



2011-01-31
ASTELEHENA
307. ZENBAKIA
7. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

Asmakizun ekologikoak Eskoriatzan

Jasangarritasun
Azoka egin dute | 4



Auto elektrikoari begira. | JULIO CALLEJA

Ibarreko aitona nagusia hil egin da, 104 urterekin | 5



Argia sariak, Etxegoieni eta Ahotsak.com webguneari | 5



Ibarreko 47 pianista gazteren kontzertua Arrasaten | 29



Gaurkotasuna, ironia puntuarekin

'Vaya Semanita' telebista saioko pertsonaiek pantaila txikitik eszenatokitara egin dute salto; egubakoitzean Oñatiko Santa Ana aretoan izan ziren | 30

Iker Galartza, Javier Anton eta Itziar Atienza, Vaya Semanita-ko aktoreak, antzezlaneko sketch batean. | JULIO CALLEJA

Debagoiendarrek onartu berri den pentsioen erreformari erantzun diote

Espainiako Ministroen Batzordeak egubakoitzean onartu zuen hurrengo pentsioen legearen oinarriak batzen dituen testua. GOIENAK Debagoieneko lau lagun elkarriketatu ditu. Oro har, iritzi txarra dute pentsioen erreformaren gainean, trakets eginda dagoela eta kaltegarria dela diote. | 2-3

Asobal mailako partidua oñatiar kutsuarekin

Bernal eta Moia oñatiarrek Arraterekin jokatu zuten | 22



Arrateko Sergio Berrios jaurtiketa egiteko gertu. | JULIO CALLEJA

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

2011 TXARTELA ETXEAN JASOKO DUZU

► Deskontu eta eskaintza zerrenda berrituarekin.

goienakluba 2011

BAZKIDEA:
BAZKIDE ZENBAKIA:
Bazkideentzako informazioa: 943 21

Debagoiendarrek pentsioen erreformari erantzuten diote

- ▶ Bailarako lau lagun elkarrizketatu ditu GOIENAK
- ▶ Oro har, iritzi txarra dute pentsioen erreformaz
- ▶ Trakets eginda eta kaltegarria dela esaten dute

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA
Espainiako Ministroen Batzordeak egubakoitzean onartu zuen hurrengo pentsioen legearen oinarriak batzen dituen testua, egubakoitz goizaldean Zapaterok CCOO eta UGT sindikatuarekin ados jartzea lortu eta gero. Oinarri horien arabera, hasierako planteamendua zertxobait leuntzen zen, baina gaur egungo erregimenarekiko murrizketa handiak gertatuko dira hala ere: pentsio osoa kobratzeko, 38,5 urte kotizatu behar izango ditu langileak, eta kasu horretan 65 urterekin erretiratu ahal izango da (gaur egun 35 urte dira); hori lortzen ez duten guztiek 67 urtera arte lan egin beharko dute eta 37 urte kotizatuta izan, pentsio osoa kobratu nahi badute. Horiek dira bi neurri garrantzitsuenak.

Kotizazio-oinarria dezente handituko da, eta hori da beste murrizketa gogor bat. Gaur egun, lan egindako azken 15 urteen oinarriaren batez bestekoarekin ateratzen da pentsioa. Bada, erreformarekin, lehenengo 20 urtera handituko da epe hori, eta gero, 25 urtera; hori ere modu progresiboan ezarriko da.

Lege berria 2013an hasiko da ezartzen. Urte horretan hasiko da erretiro-adina handitzen: 2014an erretiratu nahi duenak 65 urte

eta hilabete eta erdi beteta izan beharko ditu; 2015ean, 65 urte eta hiru hilabete; eta 2027rako, dagoneko 67 urterekin erretiratuko dira langileak.

Gaur egun, erretiro-adina 65 urtekoa izan arren, batez besteko erretiro-adina, errealtatean, 61 urtekoa da. Bada, hori ere aldatu egingo da neurri berean: bakarrrik enpresa krisian dagoenean -kaleratutako langileak, langabezian sei hilabete eman eta gero-erretiratu ahal izango dira 61 urterekin. 63 urtetik aurrera borondatez erretiratu ahal izango da langilea, baina pentsio txikiagoa izango du.

Kooperatibei ere bai

Erreformatik kooperatibetako bazkideei ere eragingo die. Izan ere, gaur egun pentsioaren %60 Lagun Arotik jasotzen dute, eta gainerako %40 Gizarte Segurantzatik; baina, iaz onartu zuten erreformaren arabera, hemendik urte batzuetara gutxi gorabehera justu alderantzizkoa izango da proportzioa. Pentsioen erreformatik, beraz, neurri baten ere eragiten die kooperatibistei.

Egoera desberdinean dauden lau lagun iritzia jaso du Goienak: sindikatuko ordezkari bat, eta emakumezkoa; gazte bat; erretiratu bat; eta aurre-erretiroa har-

tzera doan bat. Orriotako erreportajeaz gain, Goiena Telebistan etzi, eguaztena, landuko dute gaia luze eta zabal.

AMAGOIA LASAGABASTER
ELA SINDIKATUKO
ORDEZKARIA; LANGILEA

"Erreforma bat beharrezkoa baldin bada, langileekin batera egin dadila"

"Erreformatik bi multzori eragiten die gehien: batetik, gazteei, lan-merkatuan sartzeko dituzten zailtasunengatik; eta, bestetik, emakumeoi, guk ditugulako lan prekarioenak, eszedentzia gehiago hartzen ditugulako, lanaldi murriztuagoak egiten ditugulako batzuetan, eta emakume izateak eragindako egoerengatik hutsune gehiago izaten ditugulako lanean (haurdunaldia, norbait zaindu beharra...).

Bestetik, Gizarte Segurantzak 10.000 milioitik gorako superabitatekin bukatu du 2010. urtea. Hor ikusten da hainbat adituk iragarri zuten kataklismoa ez dela gertatu. Iragarpen horiek



Amagoia Lasagabaster, ELAren egoitzan. | LEIRE KORTABARRIA



Jose Antonio Amondarain erretiratu da. | TXOMIN MADINA

egin ziren gerora izan diren beste bi faktore kontuan hartu gabe: etorkinak etorririko zirela eta emakumea gero eta gehiago sartuko zela lan-merkatuan.

Politikarien helburua da pentsio plan pribatuak indartzea, diru publikoa banketxeetara eramateko; baina plan pribatuak ez dira etorkizunerako bermea.

Erreforma bat behar baldin bada, langileekin eta erretiratuekin batera egin dadila. Diru-sarrerera batzuk bermatu behar zaizkigu denoi, guk, gure kontsumoarekin eta egiten dugun gastuarekin, bermatzen baitugu pentsio publikoen sistema. Aberastasuna egon badago, baina ondo banatu behar da".

AITOR IZAGIRRE
LANGILEA; 28 URTE DITU

"Gazte gehienok oso urruti ikusten dute, eta ez dut uste arduratuta daudenik"

"Jarraitu dut pentsioen erreformaren auzia, bai; denoi eragiten digu. Dena dela, inguruan, beste

gazte batzuen artean, ez dut ikusi inongo ardurarik kontu honen gainean; ez da hitzik egiten horren inguruan. Euskal Herrian kanpoan baino ardurara handixeagoa pitzen du, hala ere. Gazte gehienok oso epe luzera ikusten dute eta ez daude oso larrituta.

Nire iritziz, erreforma gaizki planteatuta dago. Argi dago zerbait egin behar dela, pentsio sistema aldatu egin behar dela, gero eta beranduago sartzeko garelako lan-merkatua eta gero eta bizi-itxaropen handiagoa dugulako. Baina erabakiak ezin dira izan langileon eskubideon aurkakoak, langileok kontuan izanda hartutako erabakiak baizik, pentsioak erreformatzeko denon ahalegina behar delako. Espainiako Gobernuari eta enpresei interesatzen zaie balio erantsia, eta hori lortzen da gero eta prestatuago dagoen jendearekin; bada, horrek bada-ker gero eta beranduago sartzeko lan-merkatuan, ezinezkoa da ia 40 urte kotizatzea. Bestalde, ikusi dutenez langileak gero eta kualifikatuagoak direla eta pentsio gero eta handiagoak tokatzen zaizkiela, artaziak sartzeko beharra ikusi dute.

Neuk espero dut erretiratzen naizenean pentsio duin bat izatea, baina nire zalantzak ditut".

DATUA

2027.

URTEA

Erretiratzeko legezko adina handitzen joango dira modu progresiboan, eta, 2027. urtean 67 urtekoa izango da.

%20

TXIKITU

Oinarria ateratzeko urteak 15etik 25era pasatzen direnean, oinarri hori %20 txikiagoa izango da.

10.000

MILIOI EURO

Superabit horrekin amaitu du 2010. urtea Gizarte Segurantzak, ELA sindikatuaren arabera.



Aitor Izagirrek 28 urte ditu eta lanean dihardu. | TXOMIN MADINA



Mikel Irizarrek aurre-erretiroa hartuko du laster. | TXOMIN MADINA

JOSE ANTONIO AMONDARAIN
ERRETIRATUA ETA LAB
NAGUSIAK SINDIKATUKOA

"Gure ondoren datozenek borrokatu egin beharko dute; etorkizun iluna dute"

"Gazteak *artazkada* honen oinarrian daude, izan ere, luzaroago kotizatu beharko dute; gaur egungo langabezia maila egonda ere, lanean hasi beharko dira 25 urte bete baino lehen. Bestalde, pentsioaren oinarria kalkulatzeko lanaldia 15etik 25 urtera handitu

nahi dute. Langileon eta erretiratuon eskubideak txikitu egiten dira, beraz.

Bestalde, errelebu-kontratuaren praktika ere amaitu gura dute. Eta, horrez gain, orain erretiro arunterako adina 67 urtera handitu nahi badute, pentsatzekoa da aurre-erretiroarekin ere gauza bera egingo dutela.

Orain erretiratu behar direnek gogor borrokatu beharko dute, bestela etorkizun iluna izango dute.

Bestalde, lehen erretiratuon pentsioak, bizimoduaren garestitzearekin, txarto geratu baziren, orain gero eta txarrago daude. Gure bizi-baldintzak okertu egin dira. zergak handitzen doaz, BEZA %16tik %18ra handitu da, eta

gure erosketa-ahalmena txikiagoa da. Orain pentsioak izoztu izana onartezina da, eta kezka handia pizten du gugan. Erretiratuok gero eta pobregoak gara. Hala, 2009an, PFEZen (zerga aitortpean), pentsioarengatik genuen erretentzioa %10ekoa zen; bada, orain, 2011n, %12koa da, eta bizi-modua 3,5 puntu garestiagoa da. Horrek esan nahi du gure erosketa ahalmena askoz txikiagoa dela. Eta alargunen pentsioa ere gero eta txarragoa da; EAEn gehienak 970 euroekin daude, eta guk eskatzen dugu 1.020 eurokoa izatea gutxienekoa.

Ahalik eta gehien mobilizatu behar dugu; gure burua antolatu eta erantzun bat eman beharko dugu".

Enpresaburu baten iritzia

Orain bi asteko GOIENA aldizkarian, pentsioen erreformaren gaineko artikulua idatzi zuen Eduardo Zubiaurrek. Adegiko burua izan arren, Adegik ez dauka erreforma horren gaineko iritzirik, erakunde gisa; beraz, Zubiaurren iritzia berea da. Hauxe zioen: "Pentsio sistema hori edozein izanda bideragarria izateko baldintza bat bete behar du nahitaez: epe jakin batean sarrerek eta irteerak orekatuak izatea. Langabezia tasa tamalez

handiagorearen ondorioz lanean eta kotizatzen ari direnen kopurua urritzen doa. Aldiz, eta zorionez, bizi itxaropen luzeagoaren poderioz prestazioak jasotzen dituztenak ugartzen doaz. Horri era jasagarrian aurre egingo dion pentsio sistemarik ez dago (...). Nire ustez, eraginkorrena ahal denik eta modu zabalenean jendea lanean (eta kotizatzen) jartzea da: lanerako heziketa indartuz, ekintzailetasuna sustatuz, kontratazioa eta lan harremanak malgutuz eta erraztuz, prestazioaren bat jaso eta lana egin ahal izatea legezkatuz..."

Azken 25 lan-urteak zenbatuta, gutxiago kobratuko dute erretiratuek

KOTIZAZIO-OINARRIA, GUZTIAREN GAKOA

Soldataren portzentaje bat Gizarte Segurantzaren finantzatzaera doa: irabazten denaren %23,6 enpresak jartzen du, eta %4,7, langileak. Horrek muga bat dauka: ezin da kotizatu hileroko 3.000 euro inguruko soldata baino gehiagoren arabera. Diru kopuru hori da kotizazio-oinarria.

LUZEAGO LAN EGIN BEHARKO DA

Oinarri horren arabera kobratzen dira pentsioak, norbera erretiratzen denean, azken 15 urteotan lortu den oinarriaren batez bestekoa eginez; bada, erreformarekin, azken 25 urteak izango dira. Horrekin, normalean, oinarria txikiagoa izango da, 25 urteren tartean soldata handienaren eta txikiaren arteko aldea handiagoa delako kasu gehienetan. Beste murrizketa bat: oinarri osoa kobratzeko, gutxienez urte kopuru bat egin behar da lan: orain, 35 urte da, eta erreformarekin, 38,5 urte izango dira.

BENETAKO ERRETIRO-ADINA

Erretiro-adina 65 urtekoa da orain, baina inor gutxi erretiratzen da adin horrekin; praktikan, batez besteko adina 61 urteetan dago. 1967. urtea baino egun bat lehenago kotizatzen hasi diren langileak 60 urterekin erretiratu daitezke eskubide osoz; gainerako guztiak kasuan, borondatez erretiratu daitezke dagokien baino goizago, baina adina aurreratzen duten urte bakoitzeko %8 galtzen dute pentsioan.

2014AN, HILABETE ETA ERDI GEHIAGO

Erreformaren ondorioz, erretiratzeko gutxieneko adina 65etik 67ra pasatzen da, eta modu progresiboan handituko da: 2014an erretiratzen denak 65 urte eta hilabete eta erdi izan beharko ditu; 2015ean, hiru hilabete, eta abar. 2027an 67 urtean egongo da erretiratzeko legezko adina.

38,5 URTE KOTIZATZEN

Salbuespena izango dira 65 urte betetzerakoan gutxienez 38 urte eta erdian kotizatu duten langileek; horiek erretiroa hartu ahal izango dute hortik aurrera, pentsio osoarekin. Neurri horrek kalte egingo die, batez ere, gazteei, gero eta zaharrago hasten direlako kotizatzen; eta, bestetik, emakumeei, euren kontratuak prekarioagoak izaten direlako eta lan-bizitzan hutsune gehiago izaten dituztelako.

AURRE-ERRETIROA, ZAILAGO

Aurre-erretiroa hartzeko baldintzak gogortu egingo dira. Hala, borondatezko erretiroa 63 urtetik aurrera hartu ahal izango da, eta pentsioa murriztu egingo da erretiroa hartzen den adinaren arabera.

MIKEL IRIZAR

AURRE-ERRETIROA HARTU
BEHAR DU; AURREZKI KUTXAKO
LANGILEA DA

"Pentsio publikoek gutxieneko duin bat eman behar dute, eta pribatuek, hori osatu"

"Oraingoz, enpresa barruan lizentzia bat hartuko dut lanera ez joateko. Gero, errelebu-kontratu izango dut, orduan aurre-erretiratuko naiz, eta gero, erretiratu izango naiz. Pentsatzen dut derri-gorrezko erretirora ailegatzen naizenerako urte batzuk pasatuko direla eta baliteke 65 urte barik 66 urte izatea adina, baina bien bitartean nire gustuko lanetan ibiliko naiz, eta ez enpresan.

Erretiro-adin berria oso modu itxian planteatu dute. Izan behar litzateke eskailera bat, nire iritziz: 60 urtetik 70 urtera arte norberak ahal edo nahi duen arabera lehenago edo geroago erretiratu, baldintza desberdinetan.

Pentsio publikoei dagokie gutxieneko pentsio duin bat bermatzea. Hortik gora, pertsona desberdinei aukera desberdinak

ematea bidezkoa da; diru asko gastatuko duenak asko metatu, pilatu beharko du. Borroka egin behar da sistema publikoak gutxieneko duin bat ziurtatu dezan; baina pentsio-plan pribatuek horren osagarri izan daitezke.

Bestalde, errelebu-kontratu formula ona da, baina garestia ere bai. Nire iritziz, inork 60 urterekin erretiratu gura badu, erretiratu dadila, baina baldintza berezi batzuekin; lanean jarraitzen duenak baldintza hobeak izango lituzke. Modu horretara, errelebu kontratuak jarraitu egin beharko luke.

Gaur egun, batez besteko erretiratzeko adina 63 urtean dago, praktikan. Errelebu kontratuari esker erretiratu da jende asko. Enpresan 40 urte, 50 urte... lan egin duenaren soldataren zati handi bat antzinasunarengatik da; hortaz, langile hori joaten bada eta enpresak, horren partez, gazte bat hartzen bada, enpresa irabazten irtetzen da. Horregatik, errelebu kontratua ganoraz egiten bada eta langile batek bestea ordezkatzeko bada, formula egokia da.

Denok ulertzen dugu sistema ukitzea, bizi-itxaropen handiagorekin arrazoizkoa dela erretiro-adina handitzea... baina dekretuz, malgutasun barik egin izanak haserrarazi du jendea.



Led teknologiadun argien gaineko informazioa adi-adi entzun zuten bisitariak; argazkian ERKA enpresako ordezkaria azalpenak ematen. | JULIO CALLEJA

Asmakizun ekologikoak herritarren eskura, Eskoriatzako azokan

- ▶ Energia aurrezteko sistemak erakutsi dituzte batez ere
- ▶ Hondakinei leku berezia egin diete, badatorrelako atez ateko sistema

UBANE MADERA | ESKORIATZA

Kuriositatea eta ikasteko gogoia nagusi izan dira asteburuan Eskoriatzako Jasangarritasun Azoka bisitatu dutenen artean.

Kuriositatea, jakin gura dutelako zer mugitzen den ekologia bultzatzeko asmakizun edo teknologia berrien artean.

Eta ikasteko gogoia, ezen, bisitari gehienak, guztiak ez esatearren, kontzientziatuta daudelako zerbait egin beharra badagoela gure munduari zor diogun gutxieneko errespetua emateko.

Zaborra bai, tonerrak ez

"Adibidez, etxeko olio apartatzea, etxean zaborra banatzea...hortik hasten da. Toner eta halakoak, akaso, ez dakigu zela berrerabiltzen diren, eta komeni da informazio gehiago izatea eta jarrai-

pena egitea; halakoetarako oso erabilgarriak dira hemengo moduko azokak", kontatu digu bisitari batek.

"Auto elektrikoak deitu dit arreta, adibidez, edo tonerrak birziklatzeko postuak. Izan ere, guztiok dugu inprimagailua etxean, eta zer egiten dugu tonerra gatzatzen denean? Ba errazena: zaborretara bota, eta kontuz ibili behar da halakoekin", kontatu digu beste batek.

Etxeko edukiontzia handiegiak

"Azokak ematen du ikusteko aukera, eta jakiteko zela diren gauza berriak. Ikusi dugu, adibidez, zela egiten den konposta, baina hori badakigu lehenagotik, ze mentalizatuta gaude dagoeneko. Olioak batzeko poteena ere ondo dago etxerako, tamaina onekoak dire-

lako; baina zaborra batzeko etxean ipini beharreko edukiontzia handiegiak dira, "monumentuak" dira, eta hori izaten da txarrena", gaineratu du hirugarrenak.

Teknologiari berrienak

Izan ere, denetarik izan da asteburuan Eskoriatzako azokan: bizikleta elektrikoak, tolesgarriak, seg-wayak, led teknologiadun argiak, irradiatze-zoruak, eguzki plakak, argiarekin "dantzan" jartzen den "eltxoa", lurpetik berotasuna hartzen duen sistema, 12 orduan beroa ematen duten tximiniak... guztiak ere, aurrezpena bultzatzen duten teknologia berriak.

Zaborraren buruhaustea

"Ikusteko eta ikasteko azoka da hau. Azken batean gauza asko ez

dakigu ezta merkatuan daudenik ere", adierazi du Eneritz Zubiak, Eskoriatzako Ingurumen teknikariak eta azokako antolatzailetako batek.

Baina bereziki hondakinei eman diete garrantzia Jasangarritasun Azokan: "Batez ere Antzuolan martxoan hasi behar direlako atez ate zaborra batzeko sistema erabiltzen. Eta ondo funtzionatzen badu, bailara osora zabaltzeko asmoa dagoelako. Azken batean, nahikoa buruhauste ematen dizkigute zaborrek. Horrenbeste sortzen dugu bada irtenbideren bat eman egin behar zaio. Zabor larregi sortzen dugu eta birziklatu edo beste zerbait egin behar da derrigorrez. Horri eman diogu garrantzia azokan", gaineratu du Eskoriatzako Udaleko teknikariak.

Azokako Berritasunak

"Led teknologiadun argiak dira. Kontsumitzen dute ohiko argiek baino %60 gutxiago eta mantenu oso baxua dute: ohiko argiek bi urte irauten dute, eta hauek 15-20 urte. Eskoriatzan pare bat proiektutan bagabiltza."



Iñigo Martin (ERKA). | U.M.

"Berrerabiltzen ditugu inpresorako kartutxoak. Etxeko inpresoretako kartutxoak ekartzen ditu jendeak eta guk bete egiten ditugu. Kartutxoa askoz ere merkeagoa da: %40ko aurrezpena dago."



Eneritz Garaza (EkoBai). | U.M.

"Aurrez daiteke %70. Egiten duena da lurraren temperatura aprobetxatu. Zunda bat sartzen da lurpean, eta hura konektatzen da makinara. Balio du berogailuarenako, urarendako... eta hozteko."



Iñaki Paradela (Geoberri). | U.M.

"Bizimodu ekologikoa eramaten laguntzeko gailuak ditugu Taer dendan. Adibidez, kilker txiki hau martxan jartzen da argiak ematen dionean. Eta sistema honek edozein gauzatarako balio du".



Luis F. Perez (Taer). | U.M.



ENERITZ ZUBIA
ANTOLATZAILEA

"Gustura gaude azokarekin. Zapatu goizean jende gutxitxo egon zen, baina arratsaldean hitzaldiarekin animatu egin zen, eta domeka goizean ere bai. Kontzientzia lan apur bat egin behar dela uste dut, dena den".



KARLOS BELTRAN DE G.
ARRASATE

"Gauza kurioso eta ikusgarriak daude, normalean kalean ikusten ez diren kontuak. Negozio eta enpresa alternatiboak dira, gauza berriak, lanpostuak ere sortuko dituztenak poliki-poliki."



J. ANTONIO URIARTE
ESKORIATZA

"Interesgarria da. Mundua ekologismoaren bidetik doa eta gaur egun dagoenaren gainean egunean jartzeko baliogarria da azoka hau. Nik uste dut, gainera, geroago eta kontzientziatuago gaudela halakoekin."



DORLETA LEZETA
ESKORIATZA

"Gauza bereziak eta pozgarriak daude azokan, ikasteko eta erabiltzeko balio dutenak. Batzuk hasi gara kontzientziatzen, eta beste batzuk hasi beharko dira ikasten zaborra gure arazoa dela, denona."



Ibilaldietarako, bisitetarako eta naturaz gozatzeko toki egokia dela uste dute inkestatzaileek. | JOSE FELIX DIAZ DE TUESTA

Arantzazun egondakoak han ikusitakoarekin pozik daude

Arantzazuko Adiskideak-ek inguruneak ahuleziak eta indarguneak ezagutzeko azterketa aurkeztu du

MIRIAN BITERI | BERGARA

Arantzazu ezagutzen dutenek *oso ondo altua* (7,96) merezi duela uste dute. Horixe da santutegiko inguruneak dauzkan ahulguneak eta indarguneak ezagutzeko asmoz Arantzazuko Adiskideak elkarteak eskatutako azterketa batek dioena. Horren arabera, hobeto berri- tzea eta promozionatzea bilatzen da, eta haren bideragarritasunari ere lagundu.

Eguenean aurkeztu zituen Arantzazuko Adiskideak elkarteak ikerketa horren gaineko emaitzak, Donostian. Jakinarazi zuten Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) eta Iruñeko eskualdean bizi diren 1.250 laguni egindako inkestan oinarritzen direla azterketan batutako datuak.

%22k du berrikuntzen berri

Inkestan ateratako datu-kopuru zabaletik bi nabarmendu zituzten: Arantzazuk duen ahulgune nagusia berrikuntzen ezagutza falta da. Inkestatzaileen %57,9k badakite Arantzazu existitzen dela eta zein

den haren esanahia. Baina egungo egoerari buruz galdetuta, izugarri jaisten da ezagutza maila; hain justu ere, %22k bakarrik dakite azken hamarkadan egin diren berrikuntzen inguruan.

Bestalde, indargune nagusia, esan bezala, egungo errealitatea ezagutzen dutenen asebetetze maila handia da. Santutegia bisitatu dutenen arabera, ibilbideetarako, bisitarako eta kulturarekin, gastronomiarekin eta espiritualitatearekin lotutako turismo-egonal-

diak egiteko erreferentziatzko leku izateko zerbitzuak eta baliabideak ditu. Horren harira, azken bost urteotan bisitatu eta inkesta egin duten lagunek 8,11ko kalifikazioa eman diote; eta %60k ostera ere itzultzeko asmo sendoa agertu dute.

Bestalde, emaitzek diote Arantzazu erlijioaren oroitzapen historikoarekin lotzen den toki gisa dela ezaguna eta irudi horrek mugatu egiten duela egungo errealitatearen dibertsitatea.

Turismo zirkuituetan

Elkartearen esanetan, "horrenbestez, ezinbestekoa da Arantzazuri buruzko komunikazioa berri- tzea eta horri lehentasuna ematea egungo errealitate berritua, modernoa eta dinamikoa azpimarratzeko". Horrekin batera, erakundeek EAEko lehentasunezko turismo zirkuituetan gehitu beharko luketela eta Arantzazuk eta haren agenteek duten ekintza-jarduera bultzatzea ezinbestekotzat jo dute elkartetik.

DATUA

%4,2

INKESTATZAILAK

Horixe da aisialdiko lekuei buruz galdetuta Arantzazu bat-batean aipatu dutenek. Besteak beste, Donostia eta Gorbeia ditu aurretik.

Argia sariak, Etxegoieni eta Ahotsak-i

Asteburuan banatu dituzte Argia sariak, eta gertukoei eman dizkiete halako bi: irratiko atalean Fermin Etxegoien oñatiarrari, *Ekaitz Perfektua*, 100 diskorik onenak irratsaioarengatik, eta Sareko Argia saria, Badiharduguren *Ahotsak.com* webguneari.



ARGIA

AHTren lanek jarduna berreskuratu dute iazko geldialdiaren ostean

Esleipen prozesuan dauden bailarako zatiak ez dira aurtengo aurreikuspenetan sartzen

LANDER MUÑAGORRI | BERGARA

2010. urte amaierarekin batera AHTren lanetako hainbat zatiren martxa jaitsi egin zen. Egoera hori urteko laugarren hiruhilabetearekin etorri zen, trenbideen eraikuntzaz arduratzen den Adif elkarte publikoak 2010erako aurreikusita zegoen diru kopurua ia oso-osorik agortuta.

Urte berria hasi da, eta harenkin batera urte berriko aurrekontua ere abian da. Era horretan, AHTren lanek 275 milioi euroko partida izango dute aurtengo, iaz baino 50 milioi gehiago. 2011. urte hasierarekin, lan erritmoa jaitsita zegoen zatietan berriz ere martxa onean ari direla jakinarazi dute.

Debagoieneko egoera

Bailaran AHTren lanek ere aurrera jarraitzen dute, eta une honetan martxan dauden zatiak honako hauek dira: Bergara-Antzuola, Arrasate-Elorrio, Aramaio-Arrasate, Eskoriatza-Aramaio, Legutio-Eskoriatza I eta Legutio-Eskoriatza II.

Edozelan ere, Debagoienean AHTk izango duen ibilbidea amaitzeko beste hainbat zati daude esleitzeko. Besteak beste: Bergara-Bergara, Antzuola-Ezkio-Itsaso mendebaldea, Antzuola-Ezkio-Itsaso ekialdea, Arrasate-Bergara eta Elorrio-Bergara.

2011n Gipuzkoan bi esleipen egitea aurreikusten da, baina bailarakorik ez da tartean.



Suñan eraikitzen dabiltzan AHTren biaduktoa. | GOIENA

Andres Agiriano, Debagoieneko aitona nagusia zapatuan hil egin zen, 104 urterekin

Debagoieneko aitona nagusia zen Andres Agiriano; hain justu ere, San Andres egunez bete zituen 104 urteak. Bada, herenegun zapatua, hil egin zen.

Hileta elizkizunak atzo egin zituzten, 17:00etan Agirianoren bizilekua zen Bolibar auzoko Mikel Donea parrokiaren elizan. Hain zuzen, Bolibar auzoko Karoi baserrikoa zen Agiriano.



Andres Agiriano. | GOIENA

San Blas opilak bedeinkatzeko eguna: otsailaren 3a

Eguenean da San Blas, eta ibarrean ohitura denez, etxe, okindegi eta gozodenda askotan egingo dituzte opilak. Asko bedeinkatu ere egingo dituzte herriz herriko elizkizunetan: Aretxabaletako Apotzagan, Antzuolan eta Bergaran San Blas ermitan, Arrasaten eta Eskoriatzan parrokiaren, Elgetan, eta beste.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Euskal kutxek soberan gainditzen dituzte Espainiako Gobernuaren gaitasun baldintzak

Kutxa dago ondoen: Espainiak jarritako gutxieneko muga %50 gainditzen du

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA
Espainiako Gobernuak Hego Euskal Herriko eta Espainiako aurrezki-kutxak nazionalizatu egingo ditu, baldin eta ez badituzte gutxieneko exijentzia batzuk betetzen. Bada, Euskadiko aurrezki-kutxek baldintza guztiak betetzen dituzte. Ondoen kokatua Kutxa da: Zapaterok ipinitako gutxieneko muga %8an dago, eta Kutxak %12,3ko maila ematen du.

Portzentaje horiek erakundearen *core capital* delakoari dagozkio; hau da, erakundeak une jakin baten erabil dezakeen kapital portzentajea. Kutxaren kasuan, bere kapitalaren %12,3 erabili ahalko luke momentu honetan ustezko zor batzuei erantzuteko. Zapaterok gutxieneko %8ko *core capital* bat izatea eskatzen die aurrezki kutxei, saneatuta daudela kontsideratzeko. %12,3ko datu hori Fitch kalifikazio-agentziak eman du.

Saneatuta

EAEko gainerako kutxak ere ondo kokatuta daude. Hala, Vital Kutxak 2010eko jardunaldia %11,6ko *core capital*-arekin itxiko du. BBK-k oraindik ez ditu bere emaitzak jakinarazi, baina adituek diote %9 eta %10 artean izango dela bere portzentajea. Bizkaiko aurrezki kutxa Andaluzian sartu berri da, BBK Bank Cajasur moduan.

Euskadiko Kutxa bestelako kasu bat da; berari, lege berriak ez dio eragiten, ez delako aurrezki kutxa, kreditu kooperatiba baizik. Hala ere, ezin hobeto kokatuta dago, bere *core capital* edo oinarritzko kapitala % 10,84koa delako; hau da, exijentzia berria baino % 35 handiagoa. "Gainera, 2019rako beharrezkoak izango diren Basilea IIIren eskakizunak bete egiten ditugu dagoeneko", esaten dute arduradunek.

Sektorea berregituratu

Bere 2011ko txostenean, Fitch agentziak Espainiako banku-sektorea "egonkor" dagoela esaten du, baina aurrezki kutxen sektorea berregituratzea gomendatzen du. Era berean, Kutxaren balorazioan, A- kalifikazioa ematen dio epe luzerako emisioetan. Fitch-ek Hego Euskal Herriko eta Espainiako banketxe eta aurrezki kutxen kalifikazioak etenbarrik aldatzen ditu. Hiru faktore aipa-

tzen ditu sektore horren egoera azaltzeko: krisi orokorra, sektorea higiezin inbertsioetan sartuta egotea, eta Espainiako banka sektoreak nazioartean momentuan duen irudi txarra.

Beste kalifikazio-agentzia batek, Standard & Poor's-ek, kalifikazio zertxobait hobea eman zion Kutxari joan den ekaineko txostenean: A kalifikazioa, lehendik zeukan A+ zertxobait jaitzita. Kutxak normalizat eta krisi

orokorraren ondorioztat jo zuen: "Denei gertatzen ari zaien zerbait da", esan dute arduradunek.

Espainiako Gobernuak epe bat zabaldu du aurrezki-kutxek euren kabuz kapital pribatua lor dezaten. Irailean horretarako kapaz izan ez direnak banku bihurtzera behartuta egongo dira, Espainiako Estata euren kapitalean sar dadin; praktikan, banku horien nazionalizazioa ekarriko du horrek, epe baterako; gero, pribatizazioa ekarriko du. Kutxek lortu beharreko kapitalak 20.000 milioikoa izan behar du, asko jota.

Kutxako ordezkari Mikel Iriarren esanetan, horrek ekarriko du aurrezki kutxen gizarte ekintza desagertzea, eta hori "jendar-tearendako galera handia" izango da, haren iritziz. Dena dela, Euskadiko kutxek euren izaerari eutsi ahal izango dioten itxaropena ere agertzen du.



Kutxaren bulego bat Bergaran. | EDU MENDIBIL



Etxebizitzaren legea egiteko, laguntza eske

Jaurlaritzak parte-hartze prozesua ireki du 'www.etxebide.info' webgunean

L.K. | ARRASATE

Apirilaren 21era arte, edozein herritarrek eman dezake iritzia edo iradokizunak, proposamenak, komentarioak... utzi Etxebizitza Legearen aurre-proiektuaren gainean, www.etxebide.info webgunean: hor, aurre-proiektua zertan den irakur daiteke, foroetan komentarioak utzi, inkestak bete edo proposamenak egin.

Etxebizitza Sailak parte hartzera animatzen du; bere esanetan, "2010-2013ko Etxebizitzako eta Hiri Berrikuntzako Plan Zuzentzailea egiteko proposamenak eskatu" zizkien herritarrei bere egunean; "eta parte-hartzeko prozesu horretan hiritarregandik jasotako proposamenen % 80 plan zuzentzailean sartu" zituen.

Lege aurreproiektua jendar-teari eta hainbat erakunderi aurkeztu die Jaurlaritzak, eta horiek esatekoa dutena jasotzen dabil. Gero, lege proiektua egin eta Legebiltzarrean aurkeztuko du, hark bozka dezan.

Eskubidea zabaldu

Dagoeneko desadostasunak agertu dira PSE-EEren lege proposamenarekin; PPK esan du ez due-

la babestuko, eta EAJK zenbait artikulu aldatzeko eskatu du: adibidez, etxebizitza eskubidea aitortzea ez bakarrik baliabide

ekonomiko gutxien dutenendako, baizik eta beste batzuenendako ere; adibidez, 1.000 euro inguruko soldata dutenendako.

Aurre-proiektuaren ardatzak

ESKUBIDEA Baliabide gutxien dituztenen premia asetzeko betebeharra.

OREKA Sustapen Publikoko Etxebizitzen (SPE) prezioak eta errentak elkarri egokituta egon beharko dira.

LEHENTASUNA SPEen zozketan, lehentasuna izateko irizpideak izango dira familiako kide kopurua eta etxebizitza eskatzaile gisa duten antzinakotasuna.

KENTZEA SPEa desjabetuko diete bertan modu jarraian bizi ez direnei, beste etxebizitza bat dutenei, urte betez bertan bizi ez direnei... Baita etxebizitza behar bezala mantendu edo berritzen ez dituztenei, horrek arrisku batzuk dakartzanean.

BITAN ZATITU Jabeen adostasunik ez da behar izango etxebizitza bat bitan edo gehiagotan banatzeko, irteten direnak legezkoak badira.

%50EK Etxebizitzaren jabeen erdiak baino gehiagok ados daudenean, etxebizitza berritu ahal izango dute beste jabeak ados egon ez arren.

FIDANTZAK Alokatzailerek Jaurlaritzan utzi beharko dute fidantza, eta alokairu kontratu guztiak Jaurlaritzan inskribatu beharko dira.

BEHARTU Bi urte baino luzeago justifikazio barik hutsik dagoen etxebizitzari m2-ko 10 euroko kanona ipini eta errentan ematera behartu ahal izango da.

ZIGORRAK Arau-hauste larriak 9.000 eta 90.001 euro arteko isunekin zigortu ahal izango dira, eta arau-hausleak zozketetatik kanpo utz ditzakete hiru urte bete arte.

Kontsumitzaileek diote argindarraren faktura %11,9 igo dela

Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Erakundeak salatu du argindarraren faktura %11,9 igo dela urtarrilean, eta ez %9,8, Industria Ministerioak esan zuen moduan. Ministerioaren kalkulua kontsumo txikia duten familiendako bakarrik zela salatzen du elkarte horrek, urtean 3.000 kWh kontsumitzen dutenak.

Fagor Arrasate eta Danobat, txoke-abalen onuradun

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak 200 milioi euro jarri ditu txoke-abalen berariazko programan euskal enpresen traktzio-proiektuak finantzatzeko. Besteak beste, Fagor Arrasate eta Danobat Railway Systems dira onuradunak. Neurri horrek, orain arte, 1.000 milioi euroko inbertsioak mugiarazi ditu.

ZABALIK



ESTEPAN PLAZAOLA
'http://goiena.net/iritzia/'

Gazte eleliderrak

Indarkeria desagertzean, ETA desagertzean, egingo omen dute bat, behin betiko, euskarak (e)ta askatasunak. ETA bat desagertzean etorriko ei zaigu bestea. Hala esan du Patxi Lopez lehendakariak Euskararen Aholku Batzordearen lehen bileran. Jaurlaritzatik komentatu dute gaizki ulertu (nahi izan) zaiola, baina lehenago ere lotu izan du indarkeria eta euskara.

Hizkuntzek eta indarkeriak izan dute bai lotura eta badute gaur egun ere. Besteak beste, indarkeria izan da eta da hainbat hizkuntza desagertzeko faktoreetako bat.

Gaiak zer esan asko emango liguke, baina esango nuke euskarak eta askatasunak gaur egun ere egunerokoan duten lotura nagusia beste bat dela: euskaldunok euskaraz egiteko askatasuna mugatua izatea.

Eusko Jaurlaritzak badu zerbitzu bat ELEBIDE izenokoa, herritarren hizkuntza-eskubi-deak bermatzeko sortua. 2009ko txostenean dioenez, urte hartan 209 kexa jaso ziren euskaraz egiteko eskubidea urratu zitzaizaienak, hiru gaztelania erabiltzeko eskubidea bermatu ez zitzaizaienak. Kexa horietako %82 erakunde publikoekin lotuak izan ziren, gainera. Datuok 2008ko datuen oso antzekoak dira eta, tamalez, pentsatzen dut ETA desagertuta ere, ez direla goizetik guera aldatuko. Eskertuko genuke egunen batean lehendakariaren ahotik horri buruzko gogoetaren bat ere entzutea: ELEBIDE-ren urteko txostena hartu eta hedabideen aurrean datuei buruzko bere hausnarketa plazaratzea eta horri konponbidea emateko proposamenak egitea.

Pentsatzen dut euskarak askatzaileak baino gehiago euskaraz egiteko guneak, euskarazko zerbitzuak, euskaraz egingo duten hiztunak... behar dituela. Tartean baita hiztun bikainak ere, komunikatzaile ereduarrak... KUTXAK gazte ekoliderrak sortzeko ekimena du abian. Zergatik ez gazte eleliderrak sortzeko proiektu bat? Zergatik ez Debagoienean? Unibertsitatea, Goiena...

USTEAK USTE

IBAN ARANTZABAL | iarantzabal@goiena.com'

Politikarixen alde!

Halakorik! Alde? Politikarixen alde? Baina zein dago hola-kuen alde? Ba ni bai, eta lotsa barik. Edozein tertulixatan kontraktorik baiño ez da entzuten baiña... Bai, danak zaku bardiñian sartzeko ohitura txarra daukagu eta parekatzen ditudugu gure herrixetako alkatiak eta zinegotzixak Espainiako Gobernuako presidente edo Barne ministruakin. Berdin jaku libre daukazen orduak (eta desorduek) herri-lanari emoten dotsazenak edo lotsabako bat (badare). Txarrak eta onak dare irakasliak, kazetarixak, filologuak, funtzionarixuak, enpresarixuak... Politikak bardin. Zu zara kexatzen danetako bat? Ba segi zerrendetara! Laster daukazu aukeria zure herrixan bertan.

KALE INKESTA

Ze iritzi daukazu pentsioen erreformaren gainean?



JOAQUIN
ITURBE
BERGARA

"30 urterekin gazte asko lanean hasi barik dago, eta 38 urtez lan egin behar bada, kontuek ez dute ematen. Ezinezkoa da".



FLORA
SERRANO
ARRASATE

"Gu eta gure diruak gobernatzan dituzten horiek pentsio ederrak dituzte ba! Erreformaren kontra nago".



SEBAS
FERNANDEZ
ARRASATE

"40 urtetik beherakoen etorkizuna beltz ikusten dut. Gazteek ez dakit sekula erretiro osoa kobratuko duten".



VICTORIA
SANCHEZ
ARRASATE

"Oso gaizki iruditzen zait onartu duten erreforma. Ni autonomoa naiz eta ez dut ikusten nire burua 67 urtera arte lanean".

HANDIK ETA HEMENDIK

Hamar-hamabi urte arteko kirol-soziologia

Luis Aranberri Mendizabal
<http://eibar.org/blogak/amatino/>

Zergatik Bizkaiak ez du orain duela mende erdi bezainbateko futbolaririk ematen? Zergatik Nafarroako biztanlegoak, Bizkaikoaren erdia izan arren, dezente jokalarik gehiago ematen du? Lezama balio du nonbait hamar, hamabi edo hamalau urteko eskola-mutikoak han-hemenka bildu eta bertan lantzeko. Baina zer gertatzen da hamar-hamabi urte arte? Non da arazoa?

Athletic-ek Urko Vera fitxatu berri du, Eibartik pasatu ostean Lemoan jokatzeko ziharduen bilbotarra. Aspaldiko partez, bizkaitarra. [...]

Aurreko partidari Herculesean aurka zelairatu ziren hamalau zurigorrien jatorria aztertuz gero, zerrenda zera da: zortzi nafar (Ekiza, Gurpegi, Iraizoz, Llorente, Muniain, Jabi Martinez, Orbaiz eta San Jose); hiru giputz (Diaz de Zerio, Gabilondo eta Iraola); eta bana Arabatik (Toquero), Bizkaitik (Koikili) zein Errioxatik (David Lopez). Hau

da, hamalautik bat besterik ez bizkaitarra. [...]

Gaur egun dituen zortzi bizkaitarrekin -Amorebieta, Aurtenetxe, Castillo, Ibai, Iturraspe, Koikili, Raúl eta Ustaritz- Athletic-ek ezin izango luke hamaikakorik osatu. Eta sestra bereko beste hirurekin ere, behar bada sekulako zailtasunak izango lituzke lehen mailari eusteko.

Baina datu hau ez da arazoaren funtsa, ondorioa da.

Galdera da: zergatik Bizkaiak ez du orain duela mende erdi bezainbateko jokalaririk ematen? Zergatik Nafarroako biztanlegoak, Bizkaikoaren erdia izan arren, dezente jokalarik gehiago ematen du? Lezama balio du nonbait hamar, hamabi edo hamalau urteko eskola-mutikoak han-hemenka bildu eta bertan lantzeko.

Baina zer gertatzen da hamar-hamabi urte arte? Non da arazoa? Zein da arazoaren iturburua?

Aldi berean

Anjel Lertxundi Esnal
<http://berria.info/blogak/lertxundi/>

(08:00) Greba motorrak berotzen ari zen une berean,

albiste bat hedabide guztietan: Madrilgo gobernuak, estatuko bi sindikatu nagusiak eta patronala, azkenean bat pentsioen akordioan. Ezin esan ez denik kointzidentzia esanguratsua. Eta paradoxikoa. Nork bere ondorioak ateratzeko aukera du Madrilgo akordioak atzoko grebari eragindakoak. Sindikatu abertzaleek etorkizun hurbilean egingo dutenez. [...]

(12:00) Grebaren martxa aurreikusitako bidetik. Orain ordu batzuk ez neuzkan daturik. Orain, ohi bezala, datu gehiegi.

Guztiz interesatuak eta kontrajarriak, baina goizean ez nekienik argitzen ez didatenak guztiak ere. (14:30)

Ertzaintzaren kargak. Eskema puskatzen ari zait kalkulatzeko ez nuen bidetik. Zutabea bidali beharra daukat. Erretiroaren akordio berriak luzatzen du nonbait auzi sozialak konpontzeko modu zaharren adina ere...

(14:30) Ertzaintzaren kargak. Eskema puskatzen ari zait kalkulatzeko ez nuen bidetik.

Zutabea bidali beharra daukat. Erretiroaren akordio berriak luzatzen du nonbait auzi sozialak konpontzeko modu zaharren adina ere...

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarteak
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailtako arduradunak Jabi Urtzelai (Kiriola), Iñaki Iturbe (Disseimua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)


Asteburuko edizio arduraduna
Urbane Madera
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano.
Publizitatea Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano, Zieritza Martín,
Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Argutxane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
BERGARA 20570: Ibarra, 6
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 12
papera@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 1697-3542
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Joxe Amiama | Irakaslea eta psikopedagogo

"Ikasle asko eta asko kexatzen dira duten nolabaiteko lan karga arazoaz"

- ▶ Ikasleen etxeko lanen gaineko saioa egingo du Amiamak Elkar Hezin, otsailaren 9an
- ▶ Tesia lantzeko, 700 ikasle, 500 familia eta 250 irakasleren iritzia batu ditu

EDU MENDIBIL | BERGARA

Joxe Amiama tolosarra (45 urte) pedagogia eta psikopedagogia irakaslea da Donostian, EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Orain dela hiru urte ezker Mondragon Unibertsitateko kolaboratzailea ere bada. Ikasleen etxeko lanen gaineko tesia gertatzen dihardu azken urteotan. Horretarako, DBHko 18 ikastetxe aztertu ditu. Datorren otsailaren 9an Oñatiko Elkar Hezi ikastetxean izango da, 18:30ean. Ikasleen gurasoei zuzendutako saioa da.

Nolatan etxeko lanen gaineko tesia?

Familiaren eta eskolaren arteko harremana betitik interesatu zait eta are gehiago aita izan nintzenetik. Irakasleekin eta familiekin egin izan dut lan eta etxeko lanena izaten da askotan aipatzen den gaia. Eta unibertsitatean doktoregoa egiterakoan, tesia gai horri buruz egitea pentsatu nuen, besteak beste, askotan erabiltzen den errekurtsioa izan arren ikerketa gutxi dagoelako horren gainean. Tesia aurtan aurkeztea da asmoa. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 18 ikastetxe izan ditut kontuan eta datuen analisiaren fasean nago orain. DBHko 700 bat ikasle, 500 familia eta 250 irakasle ingururen iritzia jaso ditut. Ikerketa estratifikatua izan da eta denetik hartu izan dut kontuan: ikastetxe publiko zein pribatu, modelo ezberdinak (A, B eta D) eta bestelako bariantak. Aztertutako ikastetxean artean Debagoieneko bi daude: Elkar Hezi eta Bergarako Mariaren Lagundia.

Zure ikasle garaitik hona asko aldatu da etxeko lanen kontua?

Ez dakit. Hasierako inpresioa zera da: gero eta etxeko lan gehiago bidaltzen dituztela. LOGSE legearen sasoian, 1990. urtean, eskola asko etxeko lanen kontra azaldu ziren, eskolako lanarekin nahikoa zela adieraziz. Baina ematen du gaur egun etxeko lan dezente izaten dituztela ikasleek. Hipotesia hau izan daiteke: nola eskolek beste gai batzuk hartu dituzten bere gain (bideko hezkuntza, sexu hezkuntza eta bestelakoak), geletan landu beharreko plus hori etxeetara bideratzen dela. Eta horrela, matematika, fisika eta hizkuntzetako ariketak etxerako izaten dituzte askotan.

Gainera, ikastetxetik kanpoko jarduerak nabarmen gehitu dira azkenaldian, ala? Kirola dela, musika dela, ingelesa...

Oso interesgarria da gai hori. Izan ere, ikasle askok aipatu izan dute gai hori egindako inkestetan. Haien ustez, irakasle asko eta asko ez dira konturatzen eskolatik aparte gaztetxoak beste hainbat jardueratan ere badabiltzala. Egin ditudan inkestetan, bukaran, ikasleek aukera zeukatzen nahi zutena gehitzeko. Normalean jendeak ez du ezer gehitzen, aurretik nahikoa idatzi dutelako. Baina bitxia izan da askok aipatu izan dutela nolabaiteko lan karga horren arazoa. Askotan ikasleen motxilari erreparatzea besterik ez dago. Gehiegizko pisua eramaten dute eta hori izan da, hain zuzen, ikasle askok azpimarratu duten arazoa.

Beharrezkoak al dira etxeko lanak?

Ez da erraza horri erantzutea. Batzuek eskolako lanarekin nahikoa dela esaten dute eta beste batzuek etxeko lanak errefortzu modua erabiltzearen garrantzia aldarrikatzen dute. Badira ohikoak ez diren etxeko lanak ere, derrigor eskolatik kanpo egitekoak: esaterako, aitaita bati elkarriketa egitea, haren bizimodua nolakoa izan den ezagut dezaten. Planteamendu ezberdinak daude gai honen inguruan, baina argi dago osotasun baten barruan aztertu behar direla etxeko lanak. Irakasleen helburuak zeintzuk diren, ikasleen ikuspuntutik zenbat denbora inbertitzen duten eta familian etxeko lanen kontua nola bizi duten kontuan hartu behar da. Tesiaren helburuak, azken baten, bi dira: batetik, ezagutzea gaurko errealitatea zein den (Euskal



Ikasleen etxeko lanen gaineko tesia gertatzen dihardu Joxe Amiamak. | GOIENA

"Inpresioa zera da: gero eta etxeko lan gehiago izaten dituztela ikasleek"

"LOGSE legearen sasoian, eskola asko azaldu ziren etxeko lanen kontra"

Herri mailan gauza handirik ez daukagu zentzu honetan), *ikerketa esploratiboa* esaten zaiona. Eta bestetik, ea zer ikas dezakegun hortik egoera hobetzeko.

Izan ere, gatazkaren jatorria izaten dira etxeko lanak askotan.

Bai, etxeko lanak ezberdin ikusten direlako perspektibaren arabera, normala denez. Eskolak umea ikusten duen tokian, familiarik semea edo alaba ikusiko du. Irakasleak ez dira guraso, baina gurasoak ere badira irakasle

"Gai gatazkatsua da etxeko lanena; gurasoen haserrea dakar askotan"

"Irakasleen xedeak, ikasleen denbora eta familia izan behar dira kontuan"

askotan. Gai gatazkatsua da etxeko lanena eta behin baino gehiagotan konprobatu izan dut hori, guraso asko segituan berotzen direlako gai hori ateratzen den bakoitzean. Gatazkaren jatorri izatea ebitatu egin behar da beti.

Nolako saioa egingo duzue Oñatin otsailaren 9an?

Etxeko lanen helburuak, onurak eta ondorioak eta arriskuak ere aztertuko ditugu. Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoko ikasleen gurasoak daude gonbidatuta.

GORDAILU BERRIA KONFIANTZA 6

**Inbertsioa eta lasaitasuna
eskutik helduta doazenean.**

**5 aukera dituzu 6ra iristeko zeure kapitala
%100 segurtaturik duzula.**

Zoaz zeure bulegora eta konfiantza ukigai
bihurtuko zaizu. Eta errentagarri.



Kutxa Inbertsio Irtenbideak



kutxa
ZUGANDIK ZUGANA

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Julian Untzueta | Aramaio alkatea (1972-1979)

- ▶ Frankismoaren azken urteetan eta diktadura osteko lehenengoetan izan zen alkate
- ▶ Gobernadoreak beharrean, diputatu orokorrak izendatu zuen; ez zuen halakorik espero
- ▶ 1979tik 1983ra Nekazaritzako diputatu izan zen; harreman onak izan zituen Aldundian

"Errepidea ez bazen zabalagoa egiten dimititu egingo nuela esan, eta gutxira hasi ziren obrak"

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aramaio historia bizia da Julian Untzueta (Aramaio Salazan baserria, 1929). Alkate (1972-1979), Nekazaritzako diputatu eta (1979-1983) bake epaile (1999-2009) izan zen. Guk alkate izandako urteen gainean galdetu diogu.

Nola iritsi zinen Aramaio alkate izatera?

Orduan gobernadoreak izendatzen zituen alkateak. Baina ni ez ninduen gobernadoreak izendatu, Manuel Lejarreta diputatu orokorrak baizik. Prozesua luzea izan zen. Aldundiko nekazaritza arloan egiten nuen lan eta ezaguna nin-

tzen. 1972ko martxoan-edo Gobernu Zibilera joateko deia jaso nuen. Etorri berri zen gobernadore gazte bat aurkeztu zidaten eta berbetan egon ostean Aramaio alkate izendatu ninduen. Nik ezetz, ez nuela ezer ez jakin nahi: "Ez zaitut nik izendatu, diputatu orokorra izan da. Eta ezin zaitut kargutik kendu, nire aurrekoak izendatu zaituelako", erantzun zidan.

Diputazioan nire burua zena-rengana jo nuen eta Lejarretarengana nindoala esan nion. Jakinaren gainean zegoen eta ez joateko esan zidan: alkatea banintz nekazaritzako arloan askatasun osoa izango

nuela. Eta horrela, zeharka, hartu nuen Aramaio alkatez.

Hasiera ez zen erraza izan, ezta?

Zorte handia izan nuen Aldundiaren laguntza jaso nuelako. Erabateko lehentasuna eta askatasuna nuen, esaterako, diputatu orokorrarekin biltzeko.

Adibide bat: alkate izendatu eta astebetera-edo, gutun bat heldu zen udaletxera aurreko alkateak eskatutako Arrasaterako errepidea zabaltzeko proiektuarendako dirurik ez zegoela esanez. Bada, nik Lejarretari esan nion proiektu horrek aurrera egiten ez bazuen dimisioa aurkeztuko

nuela: Lejarretak hala aginduta, egun gutxira hasi ziren obrak. Izan ere, errepidea oso txarto zegoen eta beharrezkoa zen errepidea zabaltzea. Oso obra garestia zen; gogoratzen naiz aurrekontua orduko 60 milioi pezetakoa zela. Alkate izan nintzen urtee-

"Herriarrek ez zuten parte hartzen gure erabakietan, hala gogoratzen dut nik"

"1977ko urtarrilaren 17an legeztatu zen ikurrina; nik 19an jarri nuen udaletxean"

tako obra garrantzitsuena izan zen; 1975ean zabaldu genuen.

Obra horrez gain, ikastolaren irekiera izan zen nire garaiko beste proiektu handi bat. San Martin eskola nazionala zen orduan, baina guk ikastola berria egokitu genuen. Izan ere, errepi-dearen obraren ostean, herritarrek bazekiten harreman onak nituela Diputazioan –omenaldia egin zidaten Aldundian, proiektu gehien aurkeztu zituen alkatea izan nintzelako-. Hala, abadea etorri zitzaidan ikasgela batzuk egokitze eskatuz. Orduan abadeak haur txikiei euskara irakasten zien. Aldundian ez nuen inongo eragozpenik izan Udalarenak ziren lokalen egokitzea eurek ordain zezaten.

Zertan dira ezberdinak orduko eta egungo politikagintza?

Ni independente moduan aritu nintzen. Orduan alderdi politiko batekoa izatea ez zegoen horren errotuta. Horretan ezberdina zen orduko politikagintza. Bestalde, orduko politikariak gogorragoak ziren herriarekin eta herritarrek ez zuten gehiegi parte hartzen Udalen erabakietan. Nik hala gogoratzen dut behintzat.

Hori bai, euskal munduarekin egin nuen bat: Bergarako alkateen mugimendua eta ikurrinaren legeztatzea bertatik bertara jarraitu nituen. 1977ko urtarrilaren 17an legeztatu zuten; bada, hilaren 19an eskegi nuen ikurrina Aramaio udaletxean.

Nola gogoratzen dituzu pertsonalki alkatez izandako urteak?

Gustura aritu nintzen, oro har. Errealdiak izan nituen, noski. Birritan aurkeztu nion dimisioa gobernadoreari: ez nuen erantzunik jaso, ez ginen ondo eramaten. Beraz, eta errealdiak errealdi, aurrera egin behar...



Julian Untzueta alkate zenean Arrasaterako errepidea zabaltzea izan zen lan handiena. | JOKIN BEREZIARTUA



1970ko hamarkadako lehen urteetako Aramaio: ez sahiesbiderik eta ez kiroldegirik. Guardia Zibilaren kuartela, berriz, hortxe dago. | UDAL ARTXIBOA

MAGAZINEA

GOIENA TELEBISTA | GOIENA MAGAZINEA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA, 19:45 | ARRITXU BARRUSOK AURKEZTUA



HERRIAK

ARAMAIO

Herritarren "altxorrak" batzen dabilta, ondarea mantentze aldera

- ▶ Udala 1950. urtea baino lehenagoko argazkiekin artxibo digitala sortzekotan dabil
- ▶ Etxeko kutxetan dauden irudien garrantzia gogorarazi digu Naia Bailez arduradunak

MIRIAN BITERI | ARAMAIO

Argazki zaharrek duten garrantziaz jabetuta daude Aramaio Udalean, eta, hori dela eta, artxibo digitala osatzen dabilta. Horretarako beka bat sortu zuten eta urtarilaren hasiera ezkerreko Naia Bailez aramaioarra dabil zeregin horretan. Egitasmoa nolatan irten den azaldu digu: "Herri gehienetan argazki artxiboak daudela jakinda eta herriko argazki gehienak batuta dituen artxiborik ez dagoenez, hemen ere horrelakorik sortzea pentsatu da Udalean".

Udalak egun 50 argazki inguru ditu artxibatuta. Horren harira, Bailezek aipatu du beste hainbat dituela udaletxeko paretetan eskegita edo karpitetan gordeta. Horiek ere artxibatuko ditu.

Bailezek esan digu herritarrei zuzenduta dagoela proiektua: "Aramaio argazkiak daude beste hainbat artxibotan; eta orain egin nahi dena da Aramaion oraindik artxibatu barik daudenak batzea, udaletxean. Etxeetako kutxetan daudenak berreskuratzea eta ez galtzea. Bestalde, beste erakundeek euren menpe dituztenak samurragoa da lortzea. Artxibo baten baldin badaude, haiekin harremanetan jarri eta eskaera egitea da, besterik ez".

Horren harira, edozein argazki mota izan daitekeela aipatu du; hori bai, 1950a baino lehenagokoak. Aipatu du 50eko hamarkadatik aurrera irudi asko daudela, eta, hortaz, hor jarri dutela muga. Dena dela, gaineratu du horrenbeste urte ez dituzten eta interesgarriak izan daitezkeen irudiak ere jasoko dituztela.

Askotariko irudiak

Gaiari dagokionez, librea dela esan du: "Denetarik biltzen dugu. Helburua, esan bezala, ondarea berreskuratzea da. Horietan egon daitezke, esaterako, Aramaio lehengo baserri bat edo umeak jolasean. Irudiek asko erakusten dute. Pertsona bakar bat agertzen bada ere, garai hartako janzkera ikusteko aukera eskaintzen du, edo etxe bat baldin bada, garai hartako sukaldaria edo korta zelakoa zen ezagutarazten du. Azkenean, guztiek dute ondare ukitua".

Bestalde, azaldu du oraindik zehazteke dagoela artxibo hori



Udaletxeko arkupean zegoen liburutegi zaharra. | ARAMAIOKO UDAL ARTXIBO

NAIA BAILEZ | ARTXIBOKO ARDURADUNA

"Apurka gabilta ezagutarazten proiektua, ahoz aho ari da zabaltzen"

Lau hilabete emango ditu Naia Bailez aramaioarrak irudiak batzen; hain justu ere, apirilera bitartean. Orain arte ez da inor azaldu udaletxean, eta, lana errazte aldera, argazkiak dauden etxeetara joatea erabaki du orain.

Baserriz baserri ibiliko zara...

Bai, hala da. Baten bat argazkiak uzteko gertu baldin badago, harekin hitzordua egin eta etxera joango naiz. Eskanerra eta ordenagailua eroango ditut, altxor horiek horrela ez dute etxetik irten behar eta originalak etxean gertzen dira. Fitxa bat beteko dut,

argazkilariaren eta argazkiaren gaineko datuekin.

Zergatik erabaki duzue horrela egitea?

Oraindik ez da inor pasa udaletxetik, eta, hortaz, mugitzea erabaki dut. Arrazoi asko egon daitezke udaletxera ez etortzeko, hala nola jendea ez dela fidatzen, lotsa ematen diola edo mugitzeko gogo txikia daukala. Dena dela, hil honetan hasi gara eta herrian zabaltzen ari gara ezer gutxi eska dezaket. Apurka gabilta proiektua ezagutarazten, ahoz aho ari da zabaltzen.



NAIA BAILEZ

Udaletxera joanda edo e-postaz ere bidal daitezke, ezta?

Bai. Astelehenero, 16:00etatik 18:00etara nago udaletxean. Edozelan ere, beste edozein egunetan ere joan daitezke udaletxera. Eta e-postaz ere bidali ahal dira, itxasokultura@cuadrillazuia.com helbidera.

denon eskura egongo den edo ez. Jakinarazi du artxiboko argazkiak Udalarri emanda moduan geratuko direla, berak nahi duenerako erabili ahal du, hala nola DVD baterako edo telebistarako. Horik aurrerakoa zehaztu barik dagoela aipatu du.

Hasiara baten, herritarrek udaletxean azaldu behar zuten astelehen arratsaldean, argazkiarekin. Bada, orain arte herritarrik ez denez agertu, baserriz baserri joango da laster Bailez. Auzo-alkateak egitasmoaren berri ematen hasi dira ingurukoiei eta dagoeneko hainbat hitzordu ditu Bailezek zehaztuta.

Jendeak parte har dezan gonbita egin nahi izan du, azkenik: "Ondare bat mantendu nahi dugu; ez da bakarrik artxibo bat. Betiko mantentzen daitezke gabilta hau egiten".

goienakluba™

Abantailaz betetako kluba!

URTARRILEKO ZOKKETA



Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | Kuota: 48 €.

EUSKAL SELEKZIOKO ZIRA

Bidali KLUBA ZIRA
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



LIBURU SORTA

Bidali KLUBA LIBURUAK
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



UMEENTZAKO PUZZLEA

Bidali KLUBA PUZZLEA
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



REALEKO MOTXILA ETA BUFANDA

Bidali KLUBA REALA
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



ERREMEIXUAK DVD-A

Bidali KLUBA DVDa
[Bazkidearen zenbakia]
215800 zenbakira.



SARI NAGUSIA AZAROA-URTARRILA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOKKETATUKO DA

26 HAZBETEKO TELEBISTA

- 26"-ko TFT-LCD pantaila.
- Barneratutako TDT-a.
- HDMI.
- USB 2.0



SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatuz baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea.

Eskubidea izango duzue datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ez ezartzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



Dantza bai, baina barre algara ederrak ere egin zituzten bariku iluntzean eskolako gimnasioan. | JULIO CALLEJA

ARAMAIO

Erromerietan dantza egin ahal izateko gorputza trebatzen

Euskal dantzak ikasteko eskolak emango dituzte barikuetan

ARRITXU BARRUSO | ARAMAIO

Pasa den urteko dantza ikastaroek izan zuten arrakasta ikusita, aurten ere esperientzia errepikatzea erabaki dute Aramaioko Lagun Artean dantza taldekoek. "Herritarrak dantza ikastaroa hasteko irrikan zeuden. Azken hilabeteetan herritar asko etorri da galdezka. Pasa den urtean oso gustura ibili zirela-eta, gehia-

go nahi zuten", azaldu digu irakasle lanetan dabilen Adela Elexalde.

Egubakoitzean egin zuten lehenengo saioa, eta lagun talde polita elkartu zen eskolako gimnasioan; batzuk hasi berriak ziren eta beste batzuk pasa den urtean ere ikastaroan ibilitakoak. Hori horrela, bi taldetan banatu zituen irakasleak; zerotik has-

teko batzuk, eta pasa den urtean ikasitakoa gogora ekartzeko beste batzuk.

Izenematea zabalik

Dantza eskolak egubakoitzetan izango dira 18:00etatik 19:00etara. Lagun Artean dantza taldekoek azaldu dute urteko edozein momentutan eman daitekeela izena ikastaroan.



OÑATI

Mahai-futbol txapelketa Oñatin

Arrano tabernak mahai-futbol txapelketa antolatzen duen hirugarren urtea da, eta badirudi poliki-poliki izena hartzen doan txapelketa dela. Zapatu arratsaldean jende dezente gerturatu zen partiduak ikustera. Aurten zortzi bikotek hartu dute parte. Benito eta Korta, eta Ibon eta Melenas bikoteak iritsi ziren finalera, baina txapela azken horiek eraman zuten. Txapelkunek izenematean batutako diruaren %40 eta bi xanpain botila irabazi zituzten, eta bigarrenek diruaren %20 eta bi ardo botila.

JULIO CALLEJA

ARRASATE

'Ole' artean, kalean falta zen berotasuna barruan izan zuten Al-Andalus elkarteak

Elkarte andaluziarraren XXI. urteurreneko ospakizun ekitaldiak egin dituzte asteburuan

UBANE MADERA | ARRASATE

Txaloak, kantuak, dantzak, alaitasuna eta gastronomia gozoa. Horixe da normalean Al-Andalus elkarteak ospakizuneta izaten dena, eta orain ere hala izan da.

Egubakoitzean hasi ziren ekitaldiekin eta domeka eguerdian bukatu. Ehunka lagunak bisitatu dute Arrasateko elkarteak: Bergara, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Arrasatekoek.

Errozioa, iparraldeko handiena

"21 urte bete ditugu eta gero eta jende gehiago da dantza egiten duena eta gurekin dagoena. Andaluza ere geroago eta hobeto

ordezkatzten dugu Arrasaten eta Euskadin. Egia esan, lan handia egiten dugu halakoak antolatzeke, baina segi egin behar dugu. Lau aste barru Andaluziaren Egunarekin hasiko gara. Urtean hiru ekitaldi garrantzitsurekin hasi ginen eta handitzen-handitzen joan da. Adibidez, gure Errozioa Estatuko iparraldeko inportanteena bilakatu da", kontatu du Rafael Gomezek, Al-Andalus elkarteak presidentea. "Baina ez gaude guztiz pozik, ze gazte jendea badugun arren (batzuetan lau belaunaldi etortzen dira), gazteengandik bultzada handiagoa behar dugu", gaineratu du.



Coro Rociero-ko kideak, domekako saiorako instrumentu eta jantziak gertu dituztela. | JULIO CALLEJA



OIHER GANBOA
ESKORIATZA

"Zerbait hartzera etorri naiz, gurasoekin; oso giro ona dago hemen, bestetan ere etortzen gara eta beti egoten da giro ona. Batzuetan gustatzen zaizkit Andaluziako dantzak, eta bestetan ez".



ANA, MANOLI, JOSE, ANA ETA MANUEL
CADIZ-SEVILLA

"Cadiz eta Sevillatik etorritakoak gara, eta oso harro sentitzen gara andaluziarrak izateaz, baina baita Euskadin bizi izateaz ere. Asko akordatzten gara Andaluziarekin, baina lehen gehiago; izan ere, seme-alabak-eta izan ditugu eta orain ohituago gaude hemen bizitzen. Egia esan hemen oso gustura gaude. Gainera, Al-Andalus elkarteak badugu Andaluziako zatitxo bat eta hori asko eskertzen da".



KONTXI ATXA BELTRAN
ESKORIATZA

"Nator alabak dantza egingo duelako. 8 urterekin hasi zen dantzan. Senarra andaluziarra da eta nire ama Jaengo zen. Ni asko erakartzen nau hark eta alaba, ahalko balu, han biziko litzateke".



DORLETA JAKUE
ARRASATE

"Egia esan domekero etortzen gara familiarekin hona zerbait hartzera, izan ere, alaitasun handia egoten da Al-Andalus elkarteak. Gaur ere horixe aurkitu dugu: giro ona eta jende mordoska".



ANTZUOLA

JULIO CALLEJA

Mus txapeldunak, Segurara

Juan Simon Aristi eta Beñar Kortabarría bikoteak irabazi du Antzuolako Mus txapelketako finala, atzo, domeka, Arin tabernan jokatu zutena. Eurak gailendu dira txapelketan parte hartu duten 34 bikoteen artean. Bigarren izan dira Gotzon Gabilondo eta Xabier Altzelai. Bi bikote horiek eta Txomin Alberdi eta Iñaki Agirre eta Felix Alonso eta Claudio Cabrera bikoteak otsailaren 26an Seguran jokatu duten herrialdeko txapelketara joango dira. "Han lau erregean jokatu dute; hemen zortzi erregean jokatu dute, eta desberdina da", abisatu gura izan du Jesus Kortabarría, txapelketako Antzuolako faseko antolatzaileak.



ARRASATE

UBANE MADERA

Xaboa eginda, 2011koa prestatzen

Bedoña geroago eta ezagunagoa da Debagoiengan. Halaxe da, azkenaldian ibarreko bisitariak ugaltu egin direlako Arrasateko auzo horretan; izan ere, 2010ean 20 ekitalditik gora antolatu eta bisitari ugari erakartzea lortu dute. Ekitaldi horietatik azkena zapatuan egin zuten: xaboa egiteko ikastaroa. Nerea Arexolaleibak, Bedoña Batu elkarteak iragarri du 2011ko egitaraua prestatzen dabilzala.

Arrasateko Udala buru-belarri dabil aurrezte-planak lantzen udalerrian

Energiaren, uraren eta landareen kontsumoan aurrezteko egitasmoak ditu abian gaur egun

UBANE MADERA | ARRASATE

Berogailuak lehenago itzungi, domeketan ez isiotu, tenperatura jaitxi, Vending makinak erabiltzen ez direnean itzungi... halako neurriak hartu ditu Udalak hilabeteotan. Eta bide beretik segituko du urte eta erdian.

Helburua, jakina, energia aurreztea da. Izan ere, energia aurrezteko programan sartuta dago Arrasateko Udala, Eudelen eta Energiaren Euskal Erakundearen eskutik. Finkatu duten helburua da Udalaren energia kontsumoa %20 jaistea.

Sentsoreak orain urtebete

Hori lortzeko, sentsoreak ipini zituzten orain urtebete hiru erai-

kin publiko nagusitan: udaletxean, Kulturaren eta Aukean. Neurgailu horiek argiaren, gasaren eta fuel-olioaren kontsumoa kontrolatzen dute, 15 minuturo. Hori monitorizatu, eta eraikin bakoitzeko mantenu arduradunak datuok zaintzen ditu: noiz gertatzen diren kontsumo handienak, zelakoak diren, zerbait arraroa ikusten duen, adibidez jaieguntan eraikina itxita izanda kontsumo handiegia gertatzea...

Ohiturak aldatu eta beste

Emaitzen arabera, kontsumoa aurrezteko neurriak probatzen dituzte. "Planteatzen dena da %10 aurrezte, ohiturak aldatuta: berogailuak domeketan itzali... Eta beste %10eko aurrezte kostu txikiko inbertsioak eginda. Adibidez, ikusten bada ordenagailuek kontsumo handiegia dutela, ba akaso merezi du instalazio elektrikoa egokitzea", esan du Rafa Ugartek, Ingurumen Sailko teknikari-buruak.

Jendearen inplikazioa

"Ikusi da, baita ere, jendearen inplikazioa inportantea dela. Astebetean eskatu zitzaizkien ahalik



Lorategietan urte osorako landareak sartzen ditu Udalak, aurrezteko; argazkian, Ferixalekuko lorategia . | JULIO CALLEJA

Lorategiak eta ur kontsumoa

Eraikinetan energia aurrezteko egitasmoa lantzeaz gainera, Arrasateko Udala beste bi arlotan ere badabil aurrezte plana lantzen: herriko lorategietan eta ur kontsumoan.

Lorategiei dagokionez, iraunkortasun eta errentagarritasun irizpideak indartzen dabilta Arrasateko 60 lorategitan. Landare motak aldatu egin dituzte lorategi gehienetan: orain arte urteko loreak ipintzen zituzten hainbat lekutan lore bizikorrak landatzen dihardute, justu. Bestela esanda, udako edo neguko loreak ipintzen zituzten leku batzuetan urte osoan bizirik irauten duten lore bizikorrak ipintzen dihardute.

Ur kontsumoari dagokionez eta lorategiekin lotuta, berriz, gero eta ur propio gehiago erabiltzen du Udalak lorategiak ureztatzeko: "Meatzerrekako iturburuko ura, Urkuluko ura beharrea. Horri esker lortu da litro asko aurrezte", adierazi du Patxi Arburuak, Obra eta Zerbitzu Saileko buruak. Horrez gain, herriko pare bat puntutan ura etenda dute urteotan: Iturbide ondoko monumentuan, *Titi Atomikoa* izenarekin ezagutzen denean, eta Santa Barbaran: "Urkuluko urak zeuden hartuta Iturbide ondoko monumenturako; erabili eta gero, errekarra botatzen zen. Kontsumo handiegia zen. Bestalde, Santa Barbaran ere, aurrezte aldera eta ingurumenari begira (ura usteldu egiten da), etenda dago ura", gaineratu du zinegotziak.

eta kontsumo txikien izateko, eta asko igarri zen. Bestalde, joan den asteke eguaztanean hitzaldia egin genuen osoko bilkuren are-

toan, udal langileei jakinarazteko zertan gabiltzan egitasmo horretan. Eta aurrerantzean langile bakoitzak mezua jasoko du

hilero jakinarazteko lortutako aurrezpena zenbatekoa izan den", gaineratu du Ugarte udal teknikariak.

DATUA

60

LORATEGI

Arrasaten dauden 60 lorategitan aurrezte-planak ezarrita dituzte.

12 orduan kantuan eta eskean jardungo dute, Santa Ageda bezperan

08:00etako meza entzuten hasi eta 20:00 edo 21:00 inguruan bukatuko dute santa eskea

Etzi, eguaztana, dute hitzordua Santa Agedako koruetako kideek, Karkabal elkartean, 21:00etan. Deialdia Santa Agedako koruetako kantari, poltsari eta laguntzaileei zuzenduta dago, aurten go Santa eskea antolatzeke, oraingo egubakoitzeko.

Goizetik eguerdira

Dagoeneko, baina, ordurako hitzordua eginda dute: 08:00etan elkartuko dira koruetako kide guztiak parrokan, mezatan.

Ostean, kantari eta bestelakoak bi taldetan banatu, eta bata Bedoña ingurura joango da eta bestea Zigorrola aldera. Nork bere eremuko baserri, lantegi eta bestelakoak bisitatuko ditu: "Arangurenen gora igoko gara batzuk,

beste batzuk joango dira fabriketara... 11:00-11:30 inguruan Zigorrolako San Isidron elkartuko gara ordura arte batutako txorizo eta arrautzekin hamarretakoa egiteko, eta gero segitu egingo dugu: Zigorrolako eskolak, Txatillo, Gureak... bisitatu eta 13:00-14:00 aldera Herriko Plazan elkartuko gara bi taldeak, udal-txe aurrean kantatzeko", kontatu du Jose Luis Azkarate *Zelaitxo*-k, koruetako kide batek.

Goizekoa borobiltzeko baba-jana egingo dutela ere esan du, Leintze elkartean, "baba-jana sakramentu guztiekin".

19:00-20:00, Portaloira

Baina bizkor antzean bazkaldu beharko dute, ostean atzera ere



Santa Agedako koruetako kantari, poltsari eta laguntzaileak, iazko eskean. | GOIENA

kantura atera behar dute-eta: ikastola, Euskadiko Kutxa, Santa Ageda... bisitatuko dituzte, hurrengo hitzordura arte, ohi duten moduan, 19:00-20:00 inguruan Portaloian elkartuko dira-eta. Eta herri erdialde inguruan kantuan jardun ostean, 20:30-21:00 inguruan egingo dute azkeneko ahalegina, plazan kantatzeko:

"Horixe izango da azkena, ordurako jendea nekatuta egoten da-eta", dio Azkaratek.

Eguna bukatzeko, ondo merezitako afaria egingo dute, Alkartetxean.

Eskea ere bai

Santa Ageda bezpera, baina, kantua baino gehiago izaten da: dirua

batzeko eguna ere bai. Aurten ere gertu izango dituzte poltsak, herritarren eskuzabaltasuna hartzeko.

Iaz, 6.321 euro batu zituzten, eta hola banatu, Caritasen bitartez: ezkongabeko amendako, 2.500 euro; bananduta dauden amendako, 1.100 euro; jangelendako, 1.000 euro; eta etxeak alokatzen laguntzeko 1.721 euro.

Arrasate Atletismo Taldeko atletak, Gipuzkoako pista txapelketara

Pertika jauzilariak Ermura entrenatzera, Uarkape erabiltzerik ez dutelako

EDU MENDIBIL | ARRASATE

Arrasate Atletismo Taldea neguko denboraldian buru-belarri ari da egunotan. Hain zuzen ere, taldeko hainbat atleta kadete, gazte eta junior mailetako Gipuzkoako txapelketan izan ziren aurreko asteburuan eta arrasatearrak hurrengo aste bukaeran, otsailaren 5ean eta 6an, Donostiako Anoetako Belodromoan

jokatuko den Gipuzkoako txapelketa absolutura begira daude.

Arrasate Atletismo Taldea urteko klub onena izendatu zuen Federazioak iaz. Izan ere, urte mordo darama Arrasateko taldea lan aipagarria egiten eta Fernando Zufiria beteteranoa da, neurri handi batean behintzat, horren erantzule.

Uarkapen ezin entrenatu

Edozelan ere, neguan entrenatzeko zailtasunak dituzte arrasatearrek eta uda partean eskaera egin zioten Udalarari neguan, behintzat, Uarkapen entrenatzeko aukera izateko. Baina, azkenean, atzera bota zuten atletismo sailaren proposamena, besteak beste, Uarkapek ez dituelako gaur

egun beharrezko neurriak betetzen atletismoan aritzeko.

Gauzak horrela, pertika jauzilariak Ermura entrenatzen ari dira neguko denboraldian. Zufiriak baieztatu digunez, hilean bitan gutxienez joaten dira Ermura Jonathan Perezek zuzendutako pertika jauzilariak, Malen Ruiz de Azua (gazte mailan aurtentzen eta dagoeneko 3,50 metroko

marka egin duena), Maialen Axpe (junior mailan 3,61 metroko markarekin 2011n), Izar Da Pena 14 urteko gaztetxoa (3 metro iaz infantil mailan eta aurtentzen 3,30 metro lortu dituen infantil-tan) eta Alba Etxeandia 13 urterekin (infantil mailan, 2,20 metroko marka aurtentzen) lehiatzen ari dena.

Fernando Zufiriaren arabera, goian aipatutako guztiek aukera handiak dituzte Anoetan, emaitza onak lortzeko. Era berean, haiekin batera, Iñigo Uribarren (hiruko jauzian), Izar Gorroñogoitia (luzera jauzian), Eukene Dorronsoro (200 eta 400 metroko probetan) eta Yang Chen (60 metro eta luzera jauzia) izango dira Gipuzkoako txapelketan. Aurtengo neguko zein udako denboraldia begira, 22 lagunek osatzen dute Arrasate Atletismo Taldea.



Malen Ruiz de Azua pertika jauzilaria, Mojategin. | ARANTZAZU ESKIBEL



Fernando Zufiria, Arrasate Atletismo Taldeko arduraduna. | GOIENA

Uarkapeko itoginak, gaurko Tokiko Gobernu Batzarreko aztergaietako bat

- ▶ Antza denez, ez da arazo larria; segurtasunera egokitzeko esleipen proposamena aztertuko dute
- ▶ Emakume Txokoak datozen hilabeteotarako hainbat ikastaro antolatu ditu

E.M. | ARRASATE

Astelehenetan ohikoa denez, Tokiko Gobernu Batzarren bilera izango da gaur, astelehena, 15:00etatik aurrera Arrasateko udal-txean. Aztertuko duten gaietako bat Uarkape pilotalekuko itoginak izango dira. Yolanda Perez de Arenatza Kirol zinegotziak adierazi digunez, hasiera baten ez da arazo larria, "horrelakoak maiz gertatzen direlako frontoiaren moduko eraikinetan". Esan bezala, itoginak konpondu eta Uarkape segurtasunera egokitzeko proiektuari dagozkion lanak eta esleipen proposamena izango dute gaur mahai-gainean. Hasiera baten, ez da frontoia itxi behar izango aipatutako lanak egin ahal izateko. Horixe Udaleko ordezkariak aurreratu digutena.



Uarkape pilotalekua. | JULIO CALLEJA

Udal aurrekontuaren kontrola

Bestelako gaien artean, Udal aurrekontuaren kontrola, base-ritaren azoka bereziak antolatze proposamena edota San Andreseko auzoak aurkeztutako likidazioa, iazkoa, jasotzen dira gaurko gai-zerrendan.

Emakume Txokoa

Bestalde emakume Txokoak jakitera eman ditu datozen hilabeteotarako ikastaroak. Lehenbizikoa hitzorduak otsailaren 2an hasiko dira: bertso ikastaroa Estibaliz Alberdirekin (martxoaren 19ra arteko eguaztenetan, 18:00etatik 20:00era) eta *Emakumeak eta osasuna: gure emozioak*, Pepa Bojó psikologoaren eskutik, apirilaren 13ra arte (martitzenetan 15:30etik 17:30era, gaztelaniaz).

Beste hainbat ikastaro ere iragarri ditu Emakume Txokoak: autoestimua eta hazkuntza pertsonala, barreterapia eta yoga, besteak beste. Argibidetarako: 943 79 41 39 telefono zenbakira edo posta elektronikora jo dezakezue: emakumetxokoa@arrasate-mondragon.net.

Jabetze Eskolak, bestalde, jendaurrean hitz egiten erakusteko ikastaroa antolatu du.

Lobo Electrico, Txapa Irratiaren urteko lehen musika hitzorduan

Nuevo Catocismo Catolicorekin batera arituko dira tolosarrak; martxoaren 19n Fiachras eta Norman; eta apirilean Bizardunak

EDU MENDIBIL | BERGARA

Lobo Electrico eta Nuevo Catecismo Catolico taldeen emanaldia iragarri du Txapa Irratiak otsailaren 19rako. Hamarkada luzea bete du dagoeneko Lobo Electricok: 1999an sortutako taldea da eta 2002koa da tolosarren lehen grabazioa: Bonbereneak kaleratutako Oztopo guztien gaitetik bilduman *Agujeros de gloria* abestiarekin hartu zuten parte. Handik bi urtera, 2002an, *El lado salvaje del corazón* eta *Demonios sofisticados* kantuak batzen zituen singlea eman zuten argitaratu. Eta urte berekoa da haien lehenbiziko diskoa, *Has visto al lobo eléctrico?* izenburukoa. *Artefactos mágicos* da haien



Lobo Electricok gaztetxean joko du otsailaren 19an. | GOIENA

azken lana, iazkoa. Castellon grabatu eta Kaki Arkarazok Andoaingo Garate estudioetan nahastutako lana da. Gaur egun

Dr.Magmak (ahotsa), Perrolobok (baxua), Iki Peligrok (gitarra) eta Guanchek (bateria) osatzen dute taldea.

Nuevo Catecismo Catolico taldeari dagokionez, talde ezaguna da gurean, behin baino gehiagotan jo baitute Bergaran zein inguruko herrietan. 1992an, La Perra taldea desegin ostean Donostian sortutakoa, *1530 segundos de... Nuevo Catecismo Catolico* da haien azken lana, 2006koa. Arturo Ibañez (gitarra eta ahotsa), Gonzalo Ibañez (ahotsa), Arturo Zumalabe (bateria), Iker Ilarremendi (gitarra) eta Eneko Etxeandia (ahotsa) dira taldeko kideak. Donostiarrek talde askorekin jo izan dute; besteak beste, Super-suckers, Sex Museum eta Hellacopters-ekin, hain zuzen. Eta, era berean, hainbat bilduma-diskotan hartu dute parte.

Martxoaren 19an, Fiachras

Goian aipatutakoa ez da Txaparen musika hitzordu bakarra izango: martxoaren 19an Fiachras eta Norman taldeen txanda izango da eta apirilaren 2an Bizardunak izango da gaztetxean, nafarrekin batera arituko den taldea guztiz konfirmatuta ez badago ere. Azkenik, maiatzaren 14an Willis Drummond joko du gaztetxean.

Kontzertu guztiak gaztetxean izango dira, 22:30ean, eta sarrerak 5 eurotan izango dira salgai. Era berean, kontzertuak zuzenean entzuteko aukera izango da Txapa Irratian, FMko 97.20an, eta Interneten ere bai: <http://www.txapairratia.org/>.



Nazioarteko meeting-a egin zuten Miguel Altunan abenduaren 17tik 18ra. | MIGUEL ALTUNA

Miguel Altuna institutua, nazioarte mailako presentzia handitzeko lanean

Leonardo da Vinci programaren barruan berrikuntza transferentzia lantzen dihardu orain

E.M. | BERGARA

Miguel Altuna institutuko arduradunek balorazio positiboa egin dute urtarrilaren 16tik 18ra ikastetxean egindako nazioarteko meeting-aren gainean. Miguel Altunako ordezkariek eta atzeritik etorritako bazkide europarrendako aberasgarria gertatu zen topaketa. Hain zuzen ere, Finlandiako Metropolia unibertsitateko irakasleak, Bremeneko (Alemania) unibertsitatekoak, Hungariako beste eskola batekoak

eta Iturbrok enpresako adituak izan ziren Bergaran, esperientziak trukatzeko helburu nagusiarekin. Hurrengo hitzordua Bremeneko egitea adostu zuten Miguel Altunak batutakoek.

Berrikuntza transferentzia

Nazioarte mailan presentzia handitzeko helburuarekin, COOP-PBL in VET izeneko proiektuan parte hartzen ari da Miguel Altuna institutua. Leonardo da Vinci programaren barruan kokatuta-

ko egitasmoa da eta berrikuntza transferentzia dauka helburu, OPBL izeneko metodologiak nagusiki, gaur egun Finlandia eta Alemaniako hainbat unibertsitatean erabiltzen direnak.

Horren aurretik, Maiatz Simulform proiektu europarraren arduraren izan zuen Bergarako Lanbide Heziketako ikastetxeak. Iaz urrian eman zuten bukatutzat eta emaitzak oso onak izan direla adierazi dute Miguel Altunako arduradunek. Frantzia, Danimarka eta Italiako unibertsitate eta teknologia zentzorekin lan egiteko aukera izan zuten.

Ana Gonzalez EHUko irakasle bergarraren doktorego tesia saritu dute Kantabrian

E.M. | BERGARA

UCEIF Fundazioak Ana Gonzalez Urteaga irakasle bergarraren doktorego tesia saritu du. Hain zuzen ere, *Liquidez en la elección de carteras y comportamiento dinámico de la rentabilidad* izenburuko lanak doktorego tesi onenaren saria jaso zuen. Sari banaketa astelehenean egin zuten, Fundazioaren *El Solaruco* egoitzan, Kantabrian, eta han izan ziren, besteak beste, Federico Gutierrez-Solana Kantabriako Unibertsitateko errektorea eta UCEIF Fundazioko presidentea eta Jose Luiz Gomez Alcuturri, Banco Santanderko giza bali-



Ana Gonzalez. | GOIENA

bideetako zuzendaria. Bere lanaren ardatzak azaldu zituen Ana Gonzalezek aipatutako ekitaldian.



GARAION

Garaion: ikasleak protagonista

Garaion Auzolanartean proiektuaren barruan Bergarako Ipintza institutuko hiru taldek artelanak landu zituzten eguztenez Errekalde jauregian. Hegal erraldoi bat eta bi esku handi elkar agurtzen jarri zuten, askatasuna adierazi nahian. Goiz osoa eman zuten gaztetxoek Errekalden lanean.



Ipintzako ikasleak ziurtagiriaren gaineko azalpena ematen egubakoitzean. | GOIENA

Eskola iraunkorra dela ospatu zuten egubakoitzean Ipintzan

Ikastetxeak Eskola Jasangarriaren Ziurtagiria jaso zuen urte bukaeran

M.B. | BERGARA

Ipintza institutuak Eskola Jasangarriaren Ziurtagiria jaso zuen urte bukaeran, Agenda 21 programaren barruan egindako lanarengatik. Bada, hori ospatzeko, ekitaldia egin zuten egubakoitzean; besteak beste, ingurumen heziketan lanean jarraituko dutela esan zuten: "Ingurumen heziketa eguneroko erronka da eta ahuleziak gainditu eta konpromisoa sendotu behar dugu", esan zuten eskolako Ingurumen batzordeko kideek.

Egindako lanaren sarria

Iazko ikasturte bukaeran erabaki zuen batzorde ebaluatzaileak ematea ziurtagiri hori Ipintzari, Agenda 21 programaren autoebaluazioaren galdetegia aztertu eta gero eta ikastetxea bisitatu ondoren. Izan ere, planifikaziorako antolaketa, hezkuntza komunitatearekiko komunikazioa, ikasleen parte-hartzea eta curriculumaren txertaketa aztertuta, ikusi zuten Eskola Agenda 21-ak erakusten zuela ikastetxeko garapen iraunkorrerako hezkuntzaren kalitatea.

Agenda 21 proiektuari 2005ean ekin zion Ipintzak. Ordutik hona, ingurumenarekin zerikusia duten gaiak landu dituzte –ura, hondakinak...-, diagnostikoak landuz, baliabide kudeaketaren hobekuntzarako jarduerak garatuz eta ingurumenarekiko konpromisoa bultzatuz, ikastetxean eta herrian.

Aurrerantzean, IRAES 21 eskola iraunkorren sarean parte hartuko dute, eta, horren bidez, ingurumen gaien informazioa eta esperientziak trukatu ahal izango dituzte.

Zapatua ezkerro salgai daude Magaliri laguntzeko txartelak

M.B. | BERGARA

Magali Muruamendiaratz 5 urteko bergararrak %90eko minusbalioa du, burmuinean jaiotzatik dituen kalteen ondorioz. Abuztua ezkerro Galizian dago, Foltra izeneko osasun etxean tratamendua jasotzen.

Bada, tratamendua oso garestia denez, zozketarako txartelak

atera dituzte sendiari hura ordaintzen laguntzeko. Hain justu ere, zapatua ezkerro daude salgai honako lekuetan: Imprespa inprimategian; Barcelo eta Ecuador bidaietan; Bule, Ariznoa, Ganbara, Egon, Cafe Bergara eta Agorrosin tabernetan; kultura etxean, Leturia harategian, Bolintxo okindegian eta Iratxo mertzerian.



Magali Muruamendiaratz. | GOIENA

Herriko mapa toponimikoa ikusgai jarri dute, ekarpenak egiteko

Udaletxean eta 'www.bergarakoeuskara.net' helbidean kontsulta daiteke lehen bertsioa

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Udala herriko mapa toponimikoa argitaratzeko da. Mapak, alde batetik, baserri auzoetako eraikin, mendi, erreka eta bestelakoen izenak jasoko ditu eta, bestetik, herriguneko kale, plaza, parke eta abarrak.

Maparen lehenengo bertsioa onartuta dago –urtarrilaren 13ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen–, eta ikusgai, interesa duten herritar guztiendako, gobernu batzordeko batzar gelaren ondoan. Ekarpina egiteko epea 30 eguneko da; otsailaren 12ra arte, hain justu ere.

Udaletxean ikusgai

Bada, mapa ikusteko udaletxera joan beharrik ere ez dago. Osorik edo zatika ikus daiteke webgune honetan: www.bergarakoeuskara.net (helbide zehatza: <http://www.bergarakoeuskara.net/node/221770>).

Horrekin guztiarekin, Udaletik gonbita egiten diete herritarrei ekarpenak egiteko. Ekarpenera esandako webgunean egin daitezke edo bestela e-posta bidez euskara@bergara.net helbidera idatzi edo Udaleko Euskara Zerbitzura deitu: Telefonoa: 943 77 91 29 (Estepan).

Autobus zerbitzua jarri dute hilaren 3an eta 7an San Blas ermitara igotzeko

Jaien barruan, besteak beste, Migeltxo Saralegi eta Idoia Etxeberria harri-jasotzaileak izango dira

M.B. | BERGARA

Murinondo auzoan San Blas jaiak ospatuko dituzte asteen. Gainera, adineko pertsonei ermitara iristeko erraztasunak emateko, doako autobus zerbitzua egongo da aurten, lehenengoz. Hain zuzen, hilaren 3an, San Blas eguna, eta hilaren 6an, San Blas Txiki eguna, egongo da zerbitzua: 10:30ean irten go da Agorrosin paretik eta 13:30ean jaitsiko da auzotik.

Egitarauaren kasuan, otsailaren 3an hasiko dira. 11:00etan meza nagusia egongo da eta opilak bedeinkatuko dituzte. Gero, salda eta txorizoa egongo da auzoko elkartean.

Otsailaren 4an, egubakoitza, 20:30ean auzoko afaria egongo da eta afaria bukatu eta gero, erromeria, Miren eta Agurtzane trikitilariekin.

Zapatuan, San Blas ermitako anaidiek batzarra egingo dute 12:00etan eta 16:00etan mus txapelketa jokatuko da, 23. San Blas saria. Izenematea 15:30ean hasiko da eta bikote bakoitzak 15 euro ordainduko ditu.

Herri kirolak

San Blas Txiki egunean, otsailaren 6an, meza nagusia egongo da 11:00etan, eta gero, salda eta txorizoa banatuko dute elkartean. 11:30ean dantza erakustaldia egongo da eta gero, harri-jasotzaileen erakustaldia. Hain zuzen, Migeltxo Saralegi 100 kiloko zilindro eta esferikoarekin eta 200 kiloko laukiluzenarekin arituko da. Idoia Etxeberria, berriz, 80 kiloko kubikoarekin, 63 kiloko esferikoarekin eta 100 kiloko laukiluzenarekin.

OHARRAK

MATRIKULA ZABALIK DAGO HHI-N GAURTIK

Helduen Eskolak bigarren lauhilabeterako matrikula egiteko epea zabalduko du gaur, astelehena, otsailaren 3ra arte. 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara egin ahal izango da, Martoko 8an duten egoitzan eta 943 76 44 52 zenbakian.

IÑIGO PLAENTXIREN OMENEZKO ZOZKETA

Urtarrilaren 23an egin zuten zozketa Soralezko futbol zelaietan eta zenbaki sarituak hauek dira: lehenengoa, 3.094; bigarrena, 2.055; eta hirugarrena, 1.124. Ordezkoak berriz, hauek dira: lehenengoa, 5.417; bigarrena, 5.716; eta hirugarrena, 2.556.

MATRIKULAZIO EPEA IREKI DU ARANZADI IKASTOLAK

Gaur hasi eta otsailaren 11ra arte egongo da zabalik. Kanpainaren

barruan hainbat ekitaldi antolatu dituzte: gaur, hilak 31, Nerea Mendizabalek *Zer gertatzen da bi urterekin?* delako hitzaldia egingo du, 18:00etan; eta 18:30ean ikastolaren gaineko batzar informatiboa egingo dute. Otsailaren 1etik 11ra bisita gidatu pertsonalizatuak egingo dituzte eta horretarako hitzordua hartu behar da 943 76 90 71 zenbakian edo bergara@ikastola.net helbidera idatzita. Otsailaren 6an, berriz,

ate irekiak egingo dituzte, 11:00etan hasita.

AZOKAN POSTUA HARTZEKO DEIA

Azokan postua hartzeko baldintzak kaleratu ditu Udalak. Eskaintzaren espedientea Udaleko idazkaritzan aztertu ahal da 09:00etatik 13:00etara.

SAN JOXEPEK DONOSTIARA IRTEERA ANTOLATU DU

Hilaren 23rako antolatu dute. 10:30ean abiatuko dira, eta, Donostiako leku esanguratsuenak ikusi eta gero, Aginaga sagardotegian bazkalduko dute. Bidaiarako txartelak gaur, astelehena, jarriko dituzte salgai, 11:30etik 12:30era eta 17:30etik 18:30era, elkarrearen egoitzan. Bestalde, Mediterraneoan barrena bidaia egiteko izenematea gaur, astelehena, itxiko dela ekarri du gogora zuzendaritzak.

Edurne Izagirre eta Amaia Aldama | Psikologoak

"Nork bere burua entzun eta horren arabera ekin behar du"

Prebentzio Sailak antolatuta, emakumeendako 'Komunikazioa eta ekologia emozionala tailerra' egiten dihardute urtarrilaren 24a ezker

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Udaleko Gizarte Zerbitzuak 45 urtetik gorako emakumeendako tailerra antolatu du. 16 emakumek hasi zuten ikastaroa hilaren 24an Amaia Aldama eta Edurne Izagirre psikologoen aginduetara. Biokin egin dugu berba.

Zer lantzen diharduzue?

Tailerraren izenburua da *Komunikazioa eta ekologia emozionala*. Tailerrean erabiliko dugun materiala atalka banatu dugu. Horietako baten komunikazioa bera landuko dugu; hau da, pertsonen artean izaten den komunikazioa aztertuko dugu. Tailerra erabat teorikoa izango da. Guk saio bakoitzean teoria emango diegu, eta etxerako lanak eroango dituzte. Eman diegun teoriaren gainean hausnarketa egingo dute eta adibideak ekarri beharko dituzte. Finean, tailer teorikoa da, baina parte-hartzailea. Oraindik zortzi saio geratzen zaizkigu: otsailaren 7an eta 21ean, martxoaren 7an eta 21ean, apirilaren 4an eta 18an eta maiatzaren 2an eta 16an.

Laugarren urtez diharduzue halako

Ikastaroak ematen. Parte-hartzaileek errepikatu egiten dute?

Bai. Gurekin dauden batzuek lau ikastaroak egin dituzte. Beste batzuk, aldiz, berriak dira. Baina, egia esan, urtez urte, erantzun ona jaso dugu. Aurten, adibidez, 16 emakumek eman dute izena, baina zortzi bat kanpoan geratu dira.

Nork erabakitzen ditu gaiak?

Guk planteatzen ditugu gaiak. Urtez urte aldatu egiten ditugu, eta, oraingoz, harrera ona izan dute.

Aurretik autoestimua ikastaroa egin duzue.

Tailer honen aurkezpena egin zutenean autoestimua ikastaroa zela esan zuten, baina ez dugu autoestimua landuko. Azken lau

urteotan egin ditugun tailerretan gai ezberdinak landu ditugu, eta guztietan egin dugu berba autoestimuari buruz. Baita oraingoa ere. Dena den, guk autoestimua baino gehiago, autonomia lantzen dugu. Nork bere irizpideak sortzen hastea, eta horietatik ikastea: gizarteak jartzen gaituen eragozpenetatik haratago nork bere burua entzun eta horren arabera ekin.

Bederatzi saio egingo dituzue. Ze helburu lortu gura dituzue?

Tailerra bukatzeko saio praktikoa egingo dugu. Pelikula bat ikusiko dugu aurreko saioetan teoriarik landu duguna ikusteko. Finean, aurrerago egingo ditugun saioetan landuko duguna egunerokotasunean baliagarri izatea lortu behar dugu. Guk ez dugu psikologia ulertzen teoria abstraktu bezala.

Gure metodologia tailerrean dauden emakumeen esperientziekin partekatu gura dugu.

Tailerra aberasgarria da emakumeendako. Eta zuendako?

Baita ere. Azken finean, eurek

"Petsonen artean sortzen den komunikazioa landuko dugu"



Edurne Izagirre eta Amaia Aldama, urtarrilaren 24ko saioa bukatuta. | M.B.

ekarpen asko egiten dituzte. Ez ditugu euren esperientzia pertsonalak lantzen, ez dugulako terapiarik egiten. Landutako teoriarekin bat egin dezaketen ikuspuntu ezberdinak ekartzen dituzte. Eta eurak gustura badau-

de, gu ere askoz motibatuago egoten gara gaia topatzeko eta prestatzeko orduan. Saiatzen gara adibideak topatzen: liburuetan, pelikuletan... gero eurei azaltzeko. Bi aldean artean hartu-eman sendoa sortzen da. Gainera, euretako batzuk lehen tailerretik dauden gurekin, eta elkarrekin eboluzio bat izan dugu.

Egia esan, oso gustura etortzen gara Oñatira. Oso ondo hartzen gaituzte. Eta eurak ere oso pozik egoten dira, kontzeptu berriak ikasi dituztelako.

"Guk ez dugu psikologia ulertzen teoria abstraktu moduan"

Naturako elementuekin artelanak egin daitezkeela erakutsi zuten Zuazolakoeak

DBHko 4. mailako eta Batxilergoko ikasleak ibili ziren Garaion Naturartekoekin

M.B. | OÑATI

Egubakoitzean ekimen berezi baten lekuko izan zen unibertsi-tate aurreko berdegunea. Garaion Naturarteko antolatuta, *Auzolana herrira* ekimenaren lehen saioa egin zuten Oñatin: Zuazola-Larraña institutuko DBHko 4. mailako eta Batxilergoko ikasleak izan ziren protagonista. Naturak dituen elementuekin artelanak egin zituzten. Han ibili ziren ikastetxeko irakasleen eta Garaion Naturartea elkarteko kideekin.

Lau orriko hirusta

08:00etan elkartu ziren unibertsi-tate aurreko berdegunean, ikastetxearen ondoan. Lekua aukeratu eta materiala batzen hasi ziren: naturak berak sortutakoa, batzuk, eta etxetik ekarritakoa, besteak.

Bi lan erraldoi egin zituzten: DBHko ikasleek lau orriko hirusta egin zuten. Orri bakoitzean elementu bat irudikatu zuten: ura, lurra, haizea eta sua. Askotariko elementuak erabili zituzten: lastoa, urdin koloreko hariak, laranja-azalak, harrirtoak, hostoak... "Esaten dute lau orriko hirustak zortea ematen duela, eta hori eginez zortea eman gura



Zortea ematen duen lau orriko hirusta egin zuten DBHko ikasleek. | ZUAZOLA

diogu naturari. Egia esan, oso gustura egin dugu lan. Proposamena egin zigutenean hasi ginen pentsatzen zer egin", esan ziguten DBHko taldekoek.

Bigarren lana Batxilergokoek egin zuten. Adarrekin mundua irudikatu zuten, eta zuhaitz batek zintzilikatu zuten. Haren inguruan loreak jarri zituzten.

Mundura heldu ahal izateko eskailera bat egin zuten egurrekin. "Naturarekin erabat uztartuta geratzen da", esan ziguten.

Garaion Naturarteko beste hiru saio egingo ditu herrian: martxoaren 21ean eta 25ean Txantxiku ikastolako gazteekin eta apirilaren 14an Elkar Hezi ikastetxeekin.

OHARRAK

HITZALDIA

Irati Anda eskalatzailak hitzaldia egingo du Zuazola institutuan gaur, 14:30ean.

HITZALDIA

Zein iritzi dute gure nerabeeen euren heziketa afektibo-sexualak delako hitzaldia egingo dute bihar, martitzena, ikastolara, 18:30ean. Eider Goiburuk jardungo du. DBHko hirugarren eta laugarren mailako ikasleen gurasoendako da.

ATE IREKIAK

Zuazola-Larraña institutuan ate irekiak egingo dituzte otsailaren 3an, 18:00etan. Seigarren mailako ikasleendako eta gurasoendako da.

I. ARETO-BIZIKLETA SAIOA

Otsailaren 26an Zubikoan egingo dute areto-bizikleta maratoirako izenematea zabalik dute, 943 71 63 75 telefonoan edo zubikoa@oinati.net helbidean. Areto-bizikletako erabiltzaileek 12 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, 18.

ODOL ATERATZEA

Otsailaren 4an egingo dute odol ateratzea Txantxiku ikastolara, 18:00etatik 20:00etara. Hurrengoa martxoaren 11n izango da.

Senidetze batzordeetako herriak harremanetan jartzeko egonaldia

Durbach-eko (Alemania) senidetze batzordeak dei berezia egin du senidetze batzordeak dituzten herriak harremanetan ipintzeko: astebeteko egonaldia -abuztuaren 13tik 20ra- Ortenberg-eko gazteluan, Durbach-etik 8 kilometrora.

Deialdia egin diete 7 urtetik beherako seme-alabak dituzten familiei. Informazio gehiago gura duenak Oñatiko senidetze batzordera dei egin dezake: 695 75 17 27 edo 688 63 00 67 telefonora.

'In the loop' filma otsaileko zineklubeko lehen emanaldian

Zineklub taldekoek gertu dute otsaileko egitaraua: lehen emanaldian, otsailaren 3an, Armando Lanuccik 2009an zuzendutako *In the loop* filma eskainiko dute. Peter Capaldi, Gina McKee eta Tom Hollander dira protagonistak. Bestalde, otsailaren 10ean *La vida en tiempos de guerra* eskainiko dute; eta hilaren 17an eta 24an, ingurumen hamabostaldien barruan, Jacques Perrin-en *Oceanos*, eta Louie Psihoyos-en *The Cove*, hurrenez hurren.

ESKORIATZA

1993an jaiotako kintoak Santa Ageda entseguetan dabilta

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Egubakoitzean, otsailak 4, Santa Ageda koplak kantuan joango dira Eskoriatzako neska-mutilak. 1993an jaiotako kintoak dira egubakoitzean baserriz baserri ibiliko direnak, 24 bat. Zapatuan, Santa Ageda eguna, ostera, kalean jardungo dute kantuan eta etxez etxe eskean. Eta ilunkeran dantzan egingo dute Herriko Plazan (19:00). Aurtengo lehen dantzaldia izango da zapatukoa eta domekan, otsailak 6, errepikatu egingo dute (19:00), Santa Ageda jaiari bukaera emateko.

Hiru egun horiek behar bezala gertatzen dabilta azken hilabetean Eskoriatzako kintoak. Astean hiru entsegu egiten dituzte, bai Santa Agedaren

omenezko kantua, bai dantza ondo ikasteko, eta dagoeneko gogoz daude jaiari iritsi eta jendaurrean jarduteko.

Kintada Eguna lehenengoz

Bestalde, Kintada Eguna antolatu dute lehenengoz Santa Ageda egunaren bueltan. Egingo du deialdia, eta asmoa da adin askotariko kintoak elkartu eta giro ezin hobean txikiteoan egitea zapatu goiz partean. Gero, bazkaltzera joango dira, baina ez guztiak batera, kintada bakoitzak bere aldetik ospatuko du.

Lehenengoz antolatu dutenez, ez dakite zer-nolako erantzuna izango duen ekimenak, baina zortzi bat kintadak, behintzat, badute elkartzeko asmoa.

Hainbat goizetan izango da dinamizatzailea KZgunean

M.A. | ESKORIATZA

KZguneko dinamizatzaile Aitor Madrid lau egunetan izango da otsailaren San Pedro auzoan dagoen egoitzan, eguaztenetan hain zuzen: hilaren 2an, 9an, 16an eta 23an. Goizetan egongo da (10:30-13:00) eta 16 urtetik gorakoekin zalantzak argitzearekin batera ikastaroak egiteko aukera eskainiko du.

Hainbat eratako ikastaroak

Ikastaro zerrenda luzea dauka Madriderik herritarren eskura, gehienak bi orduan egin daitezkeenak eta Interneten gainean asko jakin barik ikasteko modukoak. Horien artean daude: sare sozialen gainekoak

–Twitter, Blogger, Skype, foroak sortu...–, Google-ek eskaintzen dituen lan-tresnen gainekoak –Gmail, Docs, Maps, Earth...– eta argazkiekin lan egiteko tresnen gainekoak –Draw, Flickr, Picnik...–. Edozein argibide gura izanez gero edo ikastaroren bat egin, aurrez jakinaraztea komeni da: 943 71 41 65.

Bestalde, Eskoriatzako KZgunean ez dute egiten IT txartela eskuratzeko azterketarik. Horretarako, Aretxabaletara jo behar dute interesatuek eta bertan ere Aitor Madrid dinamizatzailea izango dute laguntzeko prest. Hona Aretxabaletako bulegoko telefono zenbakia: 943 25 23 51.

ARETXABALETA

2011ko udal aurrekontua gaur eztabaidatuko du udalbatzak

M.A. | ARETXABALETA

Ohiko osoko bilkura egingo du gaur, hilak 31, udalbatzak (18:00), eta 2011ko udal aurrekontua izango dute eztabaidatzeko. Horrekin batera, Udaleko lanpostuen zerrenda onartzeko asmoa daukate eta hondakin batzuei baja eman. Bukatzeko, galderak eta eskaerak egiteko tartea izango dute alderdietako ordezkariak.

Gastu arrunta behera

Udal Gobernuak 12.634.427 euroko aurrekontua aurkeztuko du. Iazkoarekin alderatuta 1.685.231 euro gehiago aurreikusi dituzte aurten, eta horrekin konforme dauden edo ez jakinaraziko dute gaurko bilkuran udalbatza osatzen duten gainerako alderdietako ordezkariak.

Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastua 4.300.000 euro izango da aurrekontu horren arabera, eta pertsonal gastua, 1.600.000 euro. Gastu arrunta %10 jaitsiko dela iragarri du Udal Gobernuak eta inbertsioek, ostera, %10 egingo dutela gora. Gainera, herriko enplegua sustatzeko partida indartu gura izan dute, eta %27 egingo duela gora iragarri.

Inbertsiorik garrantzitsuen kiroldegiaren lanei aurre egiteko izango da aurten ere: 3.700.000 euro, hain zuzen. Horrez gain, kiroldegi berriko ekipamendua erosteko 300.000 euro zehaztu dituzte. Bestalde, Urkuluko planarekin jarraitzeko 636.000 euro aurreikusita daukate eta nekazari arloko beste inbertsio batzuetarako 60.000 euroko partida.

ARETXABALETA



Kepa Errastik zuzendutako film laburraren kartela, otsailaren 8an gurean aurkeztuko duena. | KEPA ERRASTI

Sahara izango da otsaileko protagonista Arkupen

Bi aretxabaletarren film laburrak emango dituzte hilaren 8an: Kepa Errasti eta Yera Sanchezenak

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Sahara eta sahararrak gertutik ezagutzeko aukera izango dute aretxabaletarrek otsailaren 8an, martitzena. Kepa Errasti aktoreak zuzendutako *Maritxu* filma emango dute lehenengo, eta Huheziko fakultatean irakasle den Yera Sanchezek egingo dute lau gero: *Biontzat*, *Ermugarra*; *PD Ondo ibili*; eta *Itsasora begira*.

Film laburrak eta komertzialak

Herritarrek egingo dute film laburrek ere izango dute tokia Arkupen, otsailaren 8an, martitzena. Kepa Errasti aktoreak zuzendutako *Maritxu* filma emango dute lehenengo, eta Huheziko fakultatean irakasle den Yera Sanchezek egingo dute lau gero: *Biontzat*, *Ermugarra*; *PD Ondo ibili*; eta *Itsasora begira*.

Zineklubari dagokionez, lau film emango dituzte (19:30): *Un profeta* (otsailak 3); *Yo soy el amor* (otsailak 10); *Soul kitchen* (otsailak 17); eta *Abel* (otsailak 24).

Eta zinema komertzialaren tartean, azken filmak izango dira: *Tres metros sobre el cielo*; *Los próximos tres días*; *Ahora los padres son ellos*; eta *El turista*. Ume eta gaztetxoek eskainitako filmak hauek dira: *Los viajes de Gulliver*; *La leyenda de los guardianes*; *Midas erregearen altxorra*; eta *El pequeño rey Macius*. Bi saio egingo dituzte film bakoitzeko: zapatuetan bat (2 euro) eta domeketan bestea (3 euro).

Umeek, gainera, Zurrumuru taldeak eskainitako *Zorroak* ikuskizuna izango dute otsailaren 12an, zapatua (11:30).

Kale animazioa

Bestalde, otsailaren 26an, zapatua, kale animazioa izango da (19:00). Bapatean zirku taldeak *Trastu biziak* emanaldia egingo du herriko kaleetan, aretxabaletarrek animatzeko asmoarekin.

Santa Ageda kantuan ibiliko dira 1992an jaiotakoak aste bukaeran

M.A. | ARETXABALETA

1992an jaiotako aretxabaletarrei dagokie aurten Santa Ageda kantuan eta eskean ibiltzea. 60 bat neska-mutil dira, eta horietatik gehienek jardungo dute. Ospakizunok gertatzen dabilta urtarril osoan; egubakoitzetan elkartzen dira, hain zuzen, kantu eta dantza entseguak egiteko. Izan ere,

aurten 19 urte beteko dituzten gazte horietako asko kanpoan dabilta ikasten eta asteko beste egunetan ez dute elkartzeko modurik.

Dantza saioak bost domekatan

Egubakoitzean, otsailak 4, baserriz baserri joango dira kantuan eta eskean; horretarako, taldeak

egingo dituzte eta auzoetan banatu. Zapatuan, Santa Ageda eguna, kalean jardungo dute Saziliako santuaren omenez kantuan egin eta herritarrei borondate eske. Gero, ilunkeran, lehenengo dantzaldia egingo dute Herriko Plazan (19:00). Dantza saio horiek Aratuste-domekara bitartean domeka guztietan egiteko ohitura dago gurean, eta, azken urteotan ez bezala, hainbat saio egin beharko dituzte aurten –guztira bost domeka–, martxoaren 6an da-eta Aratuste-domeka.

Gaur eta bihar odol ateratzeak egingo dituzte osasun etxean

Arabako Odol Bankuko kideak etorriko dira osasun etxera gaur eta bihar, martitzena, (16:15-20:00). Neguko azken bi odol ateratze saioak izango dira eta herritarrek odola ematera animatu gura dituzte. Aurreko astean 54 lagunek eman zuten, horien artean bi berriak izan ziren.

Kandelario Eguna eguaztenean eta San Blas ospakizuna egunean

Kandelario Eguna ospatuko dute kristauek eguaztenean. Kandelak bedeinkatzeko mezak izango dira: agustindarren monasterioan (09:00) eta parrokan (19:00). Eta egunean, otsailak 3, San Blas eguna ospatuko dute. Jakiak bedeinkatzeko mezak egingo dituzte: monasterioan (09:00), Salluente ermitan (10:30) eta parrokan (19:00).

Korrika antolatzekeo batzordea eguaztenean elkartuko da Arkupen

Korrika 17ren bueltan egingo den Korrika Kulturala antolatzekeo batzordea osatu eta lehen batzarra egingo dute eguaztenean, otsailak 2, gurean. Arkupen elkartuko dira (18:00) interesa duten guztiak eta batzorde horrek Korrikaren inguruko ekimenak antolatuko ditu gurean.



Udalbatza, martitzenean egindako osoko bilkuran. | L.Z.

ELGETA

Udal politikarien dietetan 10.000 euro aurreztuko ditu aurten Udalak

Oposizioa ez da neurriarekin ados agertu; politikarien lana lehen gutxi baloratzen zela uste dute, eta orain are gutxiago

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Udal politikoen dietekin lotutako bi aldaketa nagusi onartu ziren martitzenean egindako osokoan: alde batetik, udal zinegotzietan euren parte-hartzearen arabera kobratuko dituzte dietak; eta bestetik, nabarmen jaitsiko dira dieta horiek. Zerbaki orokorretan esanda, iaz zinegotzietan 23.000 euro gastatu zituen Udalak eta aurten 13.000 euro izango dira.

"Duela urtebete hasi ginen neurria eztabaidatzen", esan zuen osoko bilkuran Udal Gobernuako kide Edurne Alberdik. "Egoera ikusita erabaki ona da, hartu beharrekoa. Guk ere gure ekarpena egin behar dugu".

Oxel Erostarbe alkatearen esanetan, neurriak Udal Gobernuako kideengan du gehienbat eragina, batzordeburuengan.

Oposizioa, aurka

Elgetako Abertzaleak koalizioko hiru zinegotzietan aurkako botoa eman zuten. "Zergatik erabaki hau hauteskundeetarako hiru hilabete eskas gelditzen direnean?", galdetu zuen Patxi Basauri bozeramaileak. "Utzi gauzak bere horretan eta laga erabakia hurrengo udalbatzari". Iñaki Ugarteburuk, berriz, neurriaren motibazioa zein den galdetu zuen. "Aurrezte? Orain

arteko dietak txikiak ziren, barregarriak, eta hemendik aurrera are barregarriagoak. Batzordeetara joaten diren zinegotzietan lana, esaterako, ez da kontuan hartzen. Ze gutxi baloratzen den egiten dugun lana", adierazi zuen. EAJko ordezkari Joseba Muxikak, berriz, aurreantzean osoko bilkuretara joatearren jasoko lituzkeen 25 euroak ekarpen moduan Udalari uzterik baduen galdetu zuen.

UDAL ORDEZKARIEN DIETAK

	ORAIN ARTE	AURRERANTZEAN
Talde politikoei zinegotziko	48,42 €	40 €
Zinegotzi bakoitzeko	121,07 €	30 €
Batzordeburuei	121,07 €	60 €
Zinegotzietan, bilkurako	-	25 €

LEINTZ GATZAGA

Leintz bailarako pilota txapelketa antolatu dute beterranoendako

Martxoaren 6an hasita bi aste behin jokatuko dituzte partiduak Gatzagako pilotalekuan

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Federatuta ez dauden pilotazaleendako antolatu dute Leintz bailarako pilota txapelketa. Gatzagako pilotalekuan izango dira partiduak martxoan hasita eta izenemate epea zabalik dago otsailaren 28ra bitartean. Interesatuak Mauri Zubillaga antolatzailearengana jo behar dute (605 72 40

96); pilotari bakoitzak 5 euro ordaindu beharko ditu izena emateko.

Bi kategoria

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriaza eta Gatzagako pilotazale beterranoendako antolatu dute txapelketa, eta pilota *goxuak* (puzkoak) erabiliko dituzte.

Martxoaren 6an, domeka, emango diote hasiera txapelketari eta, hamabostean behin, domeka goizetan (09:00) jokatuko dituzte partiduak eraberrituta dagoen Gatzagako pilotalekuan. Txapelketak irailera arte iraungo du eta finalak Gatzagako Andramari jaietan izango dira, irailaren 5aren bueltan.

Bi kategoriatan banatuta egongo da txapelketa: A kategorian, 25etik 40 urte bitarteko pilotariak izango dira; eta B kategorian, 41 urtetik gorakoak. Partidu bakoitza jokatzeko hasi aurretik nortasun agiria erakutsi beharra izango dela jakinarazi dute antolatzaileek.

ARAMAIO

Hasi dira hiltegi zaharra eraberritzen; bi hilabete iraungo dute lanek

Garabia jarriko dute, eta, beraz, itxita egongo da plazarako sarrera; lbargoia kalea da alternatiba

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Hiltegi zaharra eraberritzeko proiektua datozen egunotan hasiko da forma hartzen. Egubakoitzean hasi ziren Artzamedia Construcciones SA enpresako langileak obra egin ahal izateko garabia jartzen -ikus beheko irudia-. Proiektua abenduan jarri zen martxan, baina "benetako" lanak, Martin Arriolabengoa Hirigintza zinegotzietan arabera, egubakoitzean hasi ziren. Proiektua joan den eguzteneko osoko bilkuratik pasa zen eta aho batez onartu zen lanekin aurrera egitea.

Obrek 13 asteko epea dute hasi zirenetik; beraz, bi hilabete iraungo dute. Hala, obrak amaitu arte plazarako sarrera

itxita egongo da, garabia dela -eta. Plazara sartu gura dutenek lbargoia kaletik sartu beharko dute. Obraren aurrekontua 292.000 euro inguru da.

ABB eta Udal Artxiboa

Proiektuaren arabera, bi solairu egokituko dira hiltegi zaharrean. Lehenean, Aramaio Baserri Berriko produktuen erakusketa eta salmentarako gela jarriko dute. Horrez gain, bestelako erakusketak egiteko ere erabili ahaliko dela aurreratu du Udalak. Bigarren solairuan, berriz, Udal Artxiboa jarriko dute. Izan ere, oraingo artxiboa ez dago behar den moduan katalogatuta eta, gainera, txiki geratu da.



Langileak hiltegi zaharra eraberritzeko garabia jartzen, egubakoitzean. | J.B.

ANTZUOLA

Pilates ezagutzeko doako ikastaroak gimnasioan

Astelehen eta eguztenetan goizez eta martitzen eta eguztenetan arratsaldean

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Otsailaren 14an, 16an, 21ean eta 23an, astelehen eta eguztenetan, goizez, eta 15ean, 17an, 22an eta 24an, martitzen eta eguztenetan, arratsaldean, pilatesa ezagutzeko doako hastapen ikastaroak eskainiko dituzte Antzuolako gimnasioan. Goizeko ikastaroak 11:15ean izango dira eta arratsaldekoak, berriz, 17:30ean. Gimnasioko arduradunen arabera, onura hauek eskaintzen ditu pilatesak: giharrak indartzea; malgutasuna hobetzea; bizkarrezura gogortu eta lesioak ebitatzea; gorputz-jarrerak hobetzea; eta giharren desorekak zuzentzea. Antzuolarrak animatu nahi dituzte konpromisorik gabe ikastarootan parte har dezaten.

Bestalde, gimnasiotik jakinarazi digutenez, oraindik lekua

dago erditze osteko gimnasiako taldean parte hartzeko. Abdominalen eta zoru pelbikoaren tonu muskularra berreskuratzea saioak dira. Norbaitek izena eman nahi balu edo zalantzarik izanez gero, jo dezala gimnasia bertara edo dei dezala telefono honetara: 943 76 66 61.

Helduen heziketa

Bestalde, helduen heziketako eskolak hasiko dira datorren astelehenean, otsailak 7, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Hezkuntza orokorra eta ingeleseko eskolak emango dituzte. Gaur, astelehena, hasi eta otsailaren 4ra arte dago zabalik izena emateko epea. Izena emateko edo informazio gehiagorako udaletxera jo dezakezue: 943 76 62 46.

ateak zabalik zatoz ikastolara!



HAUR HEZKUNTZA 0-6 URTE

BILERA INFORMATIBOAK

UMEZAINZA urtarrilak **31** 18:00 ARRASATE

ATE IREKIAK

JOSE ARANA otsailak **1** 18:00-19:30 ESKORATZA

BASABEAZPI otsailak **1** 18:00-20:00 ARETXABAETA

ARIMAZUBI otsailak **1-2** 17:00-18:30 ARRASATE

SANTA TERESA otsailak **3** 17:00-18:30 ARRASATE

LEHEN HEZKUNTZA 6-12 URTE

ATE IREKIAK

ARIMAZUBI otsailak **1-2** 17:00-19:00 ARRASATE

SANTA TERESA otsailak **3** 17:00-18:30 ARRASATE

GAZTELUONDO otsailak **4** 16:30-18:30 ARRASATE

ALMEN otsailak **5** 16:30-18:30 ESKORATZA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA 12-16 URTE

BILERA INFORMATIBOAK

GAZTELUONDO otsailak **2** 18:00 ARRASATE

ARIMAZUBI otsailak **3** 18:00 ARRASATE

ALMEN otsailak **3** 18:00 ESKORATZA

ATE IREKIAK

ALMEN otsailak **5** 16:30-18:30 ESKORATZA

GAZTELUPE otsailak **7-11** egun osoa ARRASATE



informa zaituz

943 77 20 25
www.arizmendi.eu



KIROLA

ESKUBALOIA

Bernalek eta Moiuak ipini zioten oñatiar kutsua Asobal ligako lehiari

- ▶ Arratek eta Valladolidek lepo beten zuten Zubikoa
- ▶ Svensson, Pastor eta Ruiz izan ziren protagonista
- ▶ Bernalek eta Moiuak Arraterekin jokatu zuten

EMAITZA

ARRATE

22-28

CUATRO RAYAS VALLADOLID

FITXA TEKNIKOA

Arrate: Voncina, Cid, Romero, Petrichev (1), Arrieta (1), Beljanskii (5), Berrios (2), Altzaga (1), Szabo (3), Mooiua, Larrañaga (1), Tokic (7), eta Bernal (1).

Cuatro Rayas Valladolid: Sierra, fernandez (2), Antonio, Alonso (4), Escudero, Svensson, Kripokapic (1), Romero (5), Rogel (1), delgado (2), Perales, De la Hera, Rodríguez (6), Cutura (5) eta Megias (2).

Epaileak: Gorka Vicente eta Iñigo Vicente anaiek zuzendu zuten lehia.

etorkizuna euren eskuetan dutenek; besteak beste, Arrateko Beljanski eta Tokic, eta Valladolideko Rodriguez eta Romero. Beste alde batetik, eskubaloian mito direnek, egin duten lanagatik eta lortutako sariengatik: Espainiako selekzioarekin munduko txapeldun izandako Juan Carlos Pastor; Teka talde mitikoarekin Europako txapeldun izandako Julian Ruiz; eta, Atletico de Madrid, Bidasoa, Bartzelona eta Portland San Antonio taldeetako atezain ohi Thomas Svensson. Guztiek jaso zituzten harmailetan batutako zaleen txalo zaparrada.

Gainera, Asobal mailako partidua *txantxiku* kutsua hartu zuen. Kantxan egon ziren Arrateko jokalaririk Andoni Bernal eta Igor Moiuak oñatiarrak. Bernalek eskuin hegalean jokatu zuen eta Moiuak atean. Duda barik eskubaloia festa bizi izan genuen.

Bernalen gola

Ruizek (Arrateren entrenatzailea) eta Pastorrek (Valladolideko entrenatzailea) antzerako partidua planteatu zuten hasieratik. Defentsa sendoa eta eraso azkarra. Alegia, Asobal ligako taldeek



Andoni Bernal jokalaririk oñatiarra Valladolid taldeko bi defentsari aurre egiten. | JULIO CALLEJA

dituzten ezaugarriak. Hasieran Arrate egokitu zen hobeto kantxara -talde bietako jokalariek esan zuten "oso gogorra" dela-, eta lehen bost minutuetan aurretik egon zen markagailuan Beljanskiren golei esker. Baina, eibartarrek hainbat baloi galdu zuten erasoan eta Valladolidek kontraerasoak baliatu zituzten golak egiteko. Pastorrek etengabe ematen zituzten aginduak aulkixotik, eta lagunarteko lehia izan arren, errieta egin zien jokalaririk batzuei.

Igor Moiuak oñatiarrak hasieratik jokatu zuen Arrateren atean, eta geldialdi onak izan zituen. Andoni Bernal lehen zatiko 24. minutuan sartu zen kantxara, eta gogotsu jokatu zuen. Gol bat egin zuen.

Lehen zatia bukatu aurretik sei goleko errenta hartu zuen Valladolidek (10-16), eta partidua bukatu arte menderatu zuen partidua. Eibartarrek lau golera hurbildu ziren (20-24), baina ezin izan zuten garaipena lortu. Gus-tura bukatu zuten guztiek.



Arrate eta Valladolideko jokalaririk elkarrekin, lag

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Eskubaloia belaunaldi ezberdinetako izarrek bat egin zuten zapatuan Oñatiko Zubikoa kiroldegian. Alde batetik gazteek,



ANDONI BERNAL
ARRATEKO JOKALARIA

"Ruizek emandako aukera aprobetxatzen ahalegindu naiz. Oso gustura jokatu dut, baina, Svensson bezalako atezaina aurrean ikusteak harritu eta beldurtu egiten zaitu".



THOMAS SVENSSON
VALLADOLIDEKO ATEZAINA

"Gustura egon gara, baina ez dakit nola izango ditudan hankak bihar. Kantxa gogorra da, eta nabaritu egin dut. Valladoliden pozik nago, baina dagoeneko, erretiroan pentsatzen hasi beharko dut".



JULIAN RUIZ
ARRATEREN ENTRENATZAILEA

"Jokaldi berriak probatu eta ditugunak indartzeko balio dute halako partiduek. Guretzako, baina, gogorrena oraintxe dator. Alcobendasen kontra irabazi behar dugu, bai ala bai".



JUAN CARLOS PASTOR
VALLADOLIDEKO ENTRENA.

"Jokalaririk gazteei eta minutu gutxi jokatzeko aukera eman diet. Hurrengo helburua da Irunen irabaztea. Ikusi beharko dugu nola datozen munduko txapelketan egon diren jokalaririk".



MIKEL MANTXOLA
ANTOLATZAILE TALDEKOA

"Guretzat pribilegio bat da Asobal mailako partidua Oñatin antolatzea. Bosgarren aldia da, eta urtez urte, zaleek ondo erantzun dute. Eskubaloia sustatzeko balio digute halako lehiak".

IGERIKETA | Gipuzkoako 150 igerilari Bergaran | 26



Lunarteko partidua bukatu ondoren. | MIREIA BIKUÑA



Aloñako Mantxola eta Osinaga Thomas Svenssonekin. | MIREIA BIKUÑA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Gure Auzunerekin zuen arantza atera zuen Ford Mugarrik

Arrasatearrek arazo barik menderatu zituzten gasteiztarrak Iturripen

EMAITZA
FOR MUGARRI ARRASATE
35-28
GURE AUZUNE GASTEIZ

M.B. | ARRASATE

Gasteizko Gure Auzune da Ford Mugarri menderatu duten bi taldetako bat; hain justu ere, 31-28 galdu zuten arrasatearrek lehen itzulian. Arantza hura ateratzeko gogoarekin kantxaratu ziren Edu Orgazen mutilak, eta arazo barik menderatu zituzten gasteiztarrak. Garaipen horrekin sendo jarraitzen du lehen tokian Ford Mugarrik 23 punturekin.

Zazpi goleko errenta

Erasoa da arrasatearren ezauzgarri nagusia -ligako golegile onenak dira-, eta horri defentsa ona gehitu ezker, hasieratik menderatzen dituzte lehiak. 5-leko defentsarekin irten zen Ford Mugarri, Gure Auzuneren



Kepa Isasmendi gasteiztarren defentsa gainditzeko gertu. | JULIO CALLEJA

erasoari trabak ipintzeko asmoz. Hasierako minutuak, baina, parekatuak izan ziren, gehienez bi goleko tartea izan zuten etxe-koek. Minutu haietan jokalar asko egotzi zituzten epaileek, eta horrek arazoak sortu zizkien

bi taldeei. Atsedeneren aurretik bost goleko tartea zabaldu zuen Ford Mugarrik (17-12). Bigarren zatian abantaila zazpi golera handitu zuten (24-17, 28-21 eta 31-24), eta ez zuten arazorik izan bi puntuak eskuratzeko.

PREFERENTE MAILA


Bigarren zatian kale egin zuten Aloña Mendiko neskek

M.B. | OÑATI

Preferente mailan diharduten Aloñako neskek galdu egin zuten atzo Usurbilen kontra 15-24, Zubikoa kiroldegian.

Denboraldiko lehia gehien antzera lehen zatian oso ondo jokatu zuten, bai erasoan eta baita defentsan ere. Taldeak orekatuta jokatu zuten, eta berdinketarekin heldu ziren atsedenera.

Baina, bigarren zatian, denboraldiko lehia askotan moduan, oñatiarrek behea jo zuten, eta garaipenak ihes egin zien. Erasoa ez zuten gola egiteko zulorik topatzen, eta defentsan huts asko egin zituzten. Idurre Elortza entretzailearen ustez ez da fisiko kontua: "Fisikoki ondo gaudela esango nuke. Baina, bigarren zatietan blokeatu egiten gara, eta ez ditugu errekurtoak topatzen erasoan gola egiteko. Entrenatzen jarraitu beharko dugu".



EUSKADIKO TXAPELKETA

JULIO CALLEJA

Puntu onak batu zituen Bergarak

Partidu inportantea irabazi zuen Soraluze BKE-k zapatuan.

Sailkapenean bosgarren lekuan dagoen El Pilar menderatu zuten 35-31. Etxekoek ez zuten partidu ona jokatu, eta bukaerara arte sufritu zuten, baina puntu onak batu zituzten. Hurrengo erronka etxetik kanpo irabaztea da: aste bukaeran Hondarribian jokatu dute Josetxo Muniategiren mutilek.

OHOREZKO ERREGIONALA



Aretxabaletako aurrelari Jon baloia harrapatu guran Oiartzungo jokalarien artean. | JULIO CALLEJA

Bitan aurreratu zen Oiartzun eta bitan berdindu zuen Aretxabaletak

Julenek eta Mikelek egin zituzten UDaren golak; azken horrek binako berdinketa egin zuen etxekoak jokalaria bat gutxiagorekin zeudenean

EMAITZA

ARETXABALETA

2-2

OIARTZUN

MIREIA BIKUÑA | ARETXABALETA

Kontrako emaitzaren aurrean erreakzionatzeko gaitasuna duela erakutsi zuen Aretxabaletak Oiartzunen kontra. Baten ez, bitan berdindu zuen markagailua. Oiartzun aurreratu zen bakoitzeko, gola egiteko gai izan ziren etxekoak: lehena Julenek egin zuen 34. minutuan eta bigarrena Mikelek 85. minutuan –ordurako etxekoak jokalaria bat gutxiagorekin zeuden–. Bukaeran, gainera, hirugarrena egiteko balentria erakutsi zuten etxekoek. Baina denbora barik geratu ziren.

Dena dela, markagailuan egondako aldaketak izan ziren norgehiagokak emandako interesgarriena. Bestelakoan, joko aldetik, oso eskasa izan zen lehia. Lehen ordu erdian ez zen ezer aipagarririk gertatu.

Aretxabaletarren atzeko lerroaren eta atezainaren arteko gaizki ulertua baliatu zuen Oiartzunek lehen gola egiteko. Area kanpoan solte geratu zen baloia atera bidali zuen Ioritzek 31. minutuan. Ez zuten ospatzeko astirik izan, hiru minutu geroago UDak berdindu egin zuen-eta. Julenek baloi luzea jaso zuen eskuin hegalean. Abiaduraz defentsa gainditu eta berdinketa egin zuen 34. minutuan.

Pozarren ospatu zuten etxekoek berdinketa. "Berdinketa psikologikoa izan da" zioten harmailetan.

FITXA TEKNIKOA

Aretxabaleta: Agirregabiria, Raul, Andoni, Kerman, Beñat, Etxeberria (lker, 51. min.), Julen, Haritz (Badillo, 74. min.), Mikel (Urtzelai, 87. min.), eta Pastrí eta Jon (Igor, 86. min.).

Oiartzun: Imanol, Gorka, Josu, Eñaut, Beñat, Enekoitz, Endika (Beñat, 77. min.), Eñaut, Ioritz, Aritz eta Martin (Jon, 65. min.).

Epailea: Antoñana jaunak zuzendu zuen partidua. Munain eta Beldarrain izan ziren laguntzaileak.

Epailearen erabakiak

Bigarren zatia joko eta gol aukera aldetik ere nahiko eskasa izan zen. Baloia hara eta ona ibili zen, kontrol barik, bigarren zatiko lehen ordu laurdenean. Orduan

MIKEL BARBERO | ARETXABALETAKO JOKALARIA

"Oiartzunen lehen gola berehala berdindu dugu eta oso inportante izan da"

Lehia bukatzeko minutu gutxi falta zirenean egin zuen berdinketaren gola Mikel Barberok. Gustura zegoen berdinketarekin.

Sufrituta, baina puntu bat batu duzue.

Berdinketa inportantea da guretako. Bitan berdintzeko gai izan gara eta, bigarrenean, hamar jokalarirekin geunden.

Partiduak emozioa izan du, baina joko aldetik eskasa izan da.

Bai, ez dugu joko askorik egin. Dena den, gaurkoan emaitzarekin geratzen gara.



Mikel Barbero. | M.B.

Inportantea izan da lehen berdinketa azkar egitea.

Bai. Oiartzunek lehen gola egin eta hiru minutu berdindu dugu. Partiduan sartuta jarraitzeko balio izan digu.

Puntuak behar dituzue. Aste bukaeran Bergararen kontrako derbia duzue.

Egia da, puntuak behar ditugu. Etxetik kanpo puntuak batzen hasi behar gara. Orain derbia dugu Bergararen kontra. Lehia parekatua izango da, bi taldeak oso berdintsu gaude-eta sailkapenean.

egin zuen bigarrena Oiartzunek. Aritzek jokaldia egin zuen ezkerretik, eta haren erdiraketa errematatu zuen Gorkak. Aretxabaleta berriro zegoen atzetik markagailuan, eta gauzak asko zaildu zitzaizkion minutu bat geroago: Kermanek bigarren txartel horia ikusi zuen eta etxekoak hamarrek geratu ziren.

Handik aurrera giroa asko nahastu zen, bai aukietan eta baita harmailetan ere. Behin eta berriz protestatu zituzten epaileak hartutako erabakiak. Hori horrela, Oiartzungo bigarren entrenatzailea kalera bota egin zuen epaileak.

Etxeko jokalariek baina, gai izan ziren berdinketa egiteko –Mikel Barberok egin zuen gola–, eta hirugarrenaren bila joan ziren epaileak adierazitako luzapena bukatu arte.

IGOERA FASEA

Mondrak Intxaurdiren aurka 5-0 irabazi du eta igoera faseko bigarren postua lortu du

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Mondrak errez menderatu zuen Intxaurdi. Azken jardunaldia arte puntu kopuru bera zuten bi taldeek, baina zapatuko norgehiagokan donostiarrak baino askoz gehiago izan ziren Arrasateko neskek.

Partiduaren lehenengo zatian, etxekoen jokoak Intxaurdi taldea erabat baliogabetu zuen eta Donostiako taldeak ez zuen inolako arriskurik sortu.

Donostiako taldeak ohikoa baino irudi eskasagoa eskaini zuen, eta Mondrak hori aprobetxatu zuen. Etxekoek joko ona egin zuten, eta nahiz eta aukera

asko izan, lehenengo zatian gol bakarria egitea lortu zuen.

Mondrak lehenengo zatian egindako joko onarekin hasi zuen bigarrena. Joko onarekin bakarrik ez, baita golekina ere. Intxaurdik ezin izan zion Mondrak jarritako erritmo azkarrari eutsi eta etxekoek lau gol sartu zituzten.

Sailkapenean bigarren

Zapatuko garaipenaren ostean, sailkapenean bigarren postua lortu dute Mondrako neskek.

Hurrengo jardunaldian, Mondrak Mojategin jokatu du Hondarribiren aurka.



Mondrako jokalariek kontraerasora irteten. | ANDER MONEDERO

OHOREZKO MAILA

Zapatuan Anaitasunaren kontra 2-0 galdu zuen Mondrak, Azkoitian jokatuako partiduan

Mondrak ez zuen bere maila erakutsi zapatuan Anaitasunaren aurka jokatuako partiduan. Azkoitiarrek ondo jokatu zuten eta arrasatearrek ezin izan zuten ezer ere egin etxekoen joko baliogabetzeko. Anaitasunak gogotsu hasi zuen partidua eta lehenengo zatian gola sartzeko bost aukera izan zituen. Horietako bat aprobetxatu eta 1-0 joan ziren atsedenaldira. Bigarren zatian, berriz, Mondra lehenengo zatian egindako akatsak zuzentzen saiatu zen, baina penalti bat egin eta gola sartu zuten etxekoek. Hortik aurrera, etxekoak izan ziren nagusi eta sailkapenean hirugarren postuan zergatik dauden erakutsi zuten.

OHOREZKO MAILA

Hiru puntuak eskuratu zituen Aloña Mendik Ondarroako Aurreraren kontra 0-1 irabazi ostean

Aloña Mendik denboraldiko bosgarren garaipena lortu zuen Ondarroan. Aitor Oruetaren mutilek partidua gogotsu hasi zuten, eta lehenengo hamar minutuetan gola sartzeko hiru aukera garbi izan zituzten. Ez zituzten aprobetxatu, baina ez zuten etsi eta eraso jokaldi batean Aurrerako jokalaria batek penaltia egin eta Aritzek ez zuen gola egiteko aukera hori galdu. Gola sartu ondoren, Aloñak partidua erritmoa moteldu egin zuen eta joko kontrolatzea lortu zuen. Defentsan fin aritu ziren oñatiarrak eta etxeko taldeak aukera bakarria egin zuen partidu osoan. Zapatuko garaipenaren ostean, sailkapenean 15. postuan dago Aloña.

OHOREZKO MAILA

Bergarak 0 eta 1 galdu zuen Tolosan, jokaldi eztabaidagarri batek baldintzatutako partiduan

Bergarrek joko onarekin ekin zioten partiduari, baina lehen zatiko hogeigarren minutuko jokaldi eztabaidagarri batek erabat baldintzatu zuen lehia. Tolosako jokalaria bat kalera botatzea agindu ostean, erabakiaz damutu eta marrazainak bergarako jokalaria baten jokoz kanpokoa adierazi zuen. Jokaldi horretatik aurrera Tolosa gehiago izan zen. Bigarren zatia berriz, parekatua izan zen gola iritsi arte. Atezaina ez zen oso fin ibili: albotik ateratako falta bat goitik zihola uste eta barrura sartu zen. Jasotako golaren ostean, Bergara saiatu zen, baina ezin.

LEHEN NAZIONALA

Irabazten joan ostean eta partidu orekatua izan arren, MUk galdu egin zuen kanpoan 69 eta 66

- ▶ Seky.es aurkaria etxean hartu zuenean ere, azken unean galdu zuen, partida irabazten joan ostean
- ▶ Hurrengo asteko Sustrai-Aloña Mendiren kontrako derbian akats berak ez errepikatzea espero dute

IRATI GOITIA | ESKORIATZA

Zapatuan etxetik kanpora jokatu zuen Mondragon Unibertsitateak eta ezin izan zituen Arrasatera garaipenaren bi puntuak ekarri.

Partidu ona egin zuten Larreategiren mutilek, baina azkenaldian beraiengan ohiko bilakatu den bezala, irabazten joan ostean,

azken minutuetan galdu egin zuten norgehiagoka. Hain zuzen, partida bukatzeko hiru minutu falta zirenean bederatziko aldearekin zihozten irabazten.

Urduritasuna

Izan ere, azken uneko urduritasun eta akatsak garesti ordaintzen dira eta horixe pasa zitzaien

MUko mutilei. Azken hiru minutuetan ez zuten saskiratzerik egin eta baloi asko galdu zituzten. Izan ere, jokalaria larri jarri ziren eta antolatzaileek ez zekiten zer egin.

Esperientzia

Seky.es talde gogorra da (hirugarren doa sailkapenean) eta

esperientzia handiko jokalaria ditu (30 urte ingurukoak). Arrasatearrak berriz, gazteagoak dira (18 eta 20 urte bitartekoak) eta igartzen zaie esperientzia falta, batez ere azken minutuetan.

Hala ere, ondo egin zieten aurre aurkari altuei defentsa gogorrarekin, eta erasoan ere txukun aritu ziren. Lastima azken

unean bi puntuko aldeagatik galdu izana.

Seky.es ez zen arerio zuzena, baina, Arrasateko mutilentzat. Sailkapenean behe aldean dauden taldeekin dute eta norgehiagoka Larreategiren mutilek, baina bi puntu horiek ere garrantzitsuak izango lirarteke atzetik dituzten taldeekiko aldeak handitzeko.

Derbia

Hurrengo astean MUko mutilek oñatiarrak hartuko dituzte etxean eta hutsegite berak ez egitea espero dute.

Izan ere, Sustrai-Aloña Mendiren aurka Oñatin jokatu zutenean ere, lehen laurdenean hamaazpi puntuko aldearekin zihozten irabazten, baina azkenean galdu egin zuten lehia.

SENIOR NESKAK

Azken laurdeneko hutsegiteak tarteko Eskoriatzako neskek galdu

Partidu ona egin zuten eskoriatzarrek, baina bi puntugatik galdu zuten azken unean (53-55)

IRATI GOITIA | ESKORIATZA

Intentsitate handiko partidua izan zen zapatuan Eskoriatzan senior mailako neskek jokatu zutena. Hala ere, eskoriatzarrek makal xamar hasi ziren, eta lehen laurdenean zortzi puntuko aldea atera zieten irundarrek. Ondorengo laurdenetan, baina, lan handia egin zuten eskoriatzarrek: presio gogorra egin zuten, korrika asko eta defentsan indartsu aritu ziren. Horrela lortu zuten partidua parekatzea eta ondorengo laurdenetan puntu bat behetik edo puntu bat goitik ibili ziren uneoro.

Azken minutuak

Partidua berdindu, eta horrela mantentzea lortu zuten neskek, baina azken lau minutuetan eginiko akats batzuk tarteko, irundarrek bederatziko puntuko aldea atera zieten berritro. Izan ere, saskiratzeetan huts egin zuten etxeok eta irundarrek ez zuten barkatu.

Eskoriatzarrek, hala ere, indar handia dutela erakutsi zuten eta azken minutuetan jo eta su aritu ziren partidua berritro orekatu arte. Horrela, partiduko azken hatsean (10 segundo falta zirenean), lau puntuko aldea zen bi



Eskoriatzako neskek gogor jardun zuten defentsa lanetan. | ANDER MONEDERO

taldeen arteko aldea. Eskoriatzarrek saskiratze bakarra egiteko denbora zuten eta lortu zuten, baina ez zen nahikoa izan. Saskiratzearekin batera amaitu baitzen partidua.

"Pena izugarria"

Eskoriatzako entrenatzaile Fernando Rasok eginiko lan guztia-oren ostean, norgehiagoka galtzea pena handia izan zela adierazi du: "Partidua azken hatsean joan

zaigu. Oso borrokatua izan da jokoa eta egin dugun lan onaren ostean, pena handia izan da galtzea". Neskek eginiko talde-lan bikaina ere azpimarratu nahi izan zuten entrenatzaileak.

GIP. 2 MAILA

Soraluze BKE-k erraz irabazi zion Gabi Jatetxeari (81 eta 39)

Bergarrek hasiera-hasieratik hartu zuten mendean sailkapeneko azken taldea eta lehenengo laurdenean dagoeneko alde handiarekin zihozten irabazten Urbinaren mutilak. Aurkari ahaleginak egin zituzten markagailuari buelta emateko, baina ezin izan zuten ezer egin bergarren defentsaren aurka.



IGERIKETA

Gipuzkoako 150 igerilarik parte hartu zuten errendimenduko hirugarren jardunaldian

Ibarreko 20 igerilari izan ziren Agorrosingo igerilekuan egindako frogan

ANDER MONEDERO | BERGARA
Euskal Herriko igeriketa txapelketara sailkatzeko denbora minimoak lortzeko hirugarren jardunaldia egin zuten zapatuan Bergarako Agorrosingo igerilekuan.

Bergarako eta Oñatiko 20 igerilarik parte hartu zuten sailkapen jardunaldian. Ibarreko ordezkari gehienek aurreko probetan lortu zituzten denbora minimoak,

eta zapatukoak bi aste barru Tolosan jokatuko duten Gipuzkoako txapelketarako entrenamendua izan zen.

Kutxa saria Oñatin

Bergarako ez zen izan zapatuan Debagoienean jokatu zen igeriketa froga bakarra. Gipuzkoako infantil mailako taldeek Kutxa sarirako final erdia jokatu zuten

Oñatiko igerilekuan. Bertan, ibarreko hiru taldek hartu zuten parte: Aloña Mendi, Bergara eta Arizmendik.

Igerilari gaztetxoek 50 metro-tan abiadura probak egin zituzten krol, bizkar eta tximeleta estiloetan. Kutxa sariko finala hurrengo zapatuan, otsailaren 5ean, Legazpiko igerilekuan jokatuko dute.



Igerilariak uretara salto egiten, igerilekuko tranpolinetik. | JULIO CALLEJA

PILOTA

Leintz bailarako beteranoen pilota txapelketa jokatu dute martxoaren 6tik aurrera

Pilota partiduak bi astetik behin jokatu dituzte Leintz Gatzagako pilotalekuan. Txapelketak bi kategoria izango ditu, lehenengoa 25 urtetik 40 urtera, eta bestea 41 urtetik aurrera. Federatuta ez dauden Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagako pilotari beteranoek jokatu dute txapelketa. Leintz bailarako pilotari beteranoen txapelketa herriko jaietan bukatuko da. Egun horretan, irailaren 5ean bi kategorietako bikote onenak lehiatuko dira finalean. Txapelketan pilota goxuekin (punpazkoak) jokatu dute, eta parte hartzeko jokalarik bakoitzak 5 euro ordaindu behar ditu.

TENISA

Arrasateko eta Oñatiko tenis taldeek partidua jokatu dute otsailaren 5ean, datorren zapatuan

Vasco Navarro Riojano Cantabro txapelketako partidua izango da hurrengo zapatuan Debagoieneko bi tenis taldeek jokatu dutena. Txapelketa hori nazioarteko Davis kopa famatuak duen funtzionamendu bera du: banakako bost partidu eta binakako bi. Partidu guztiak egun berean jokatu dituzte tenis jokalariek. Debagoieneko bi taldeak hirugarren mailan arituko dira Muskiz eta Gasteizeko bi taldeekin batera. Liga irabazten duen taldeak bigarren mailarako pasea lortzeko aukera izango du. AKE talde arrasatearrak eta Aloña Mendi talde oñatiarrak urte asko darabizate txapelketa hori jokatu gabe.

ERRUGBIA

Arrasateko Errugbi Taldeko lau jokalarik Euskadiko Selekzioarekin entrenatuko dute datorren zapatuan

Datorren zapatuan, otsailaren 5ean, infantil mailako errugbiko Euskadiko Selekzioak Mojategin entrenatuko du. Saio horretan parte hartzeko deialdia jaso dute Arrasate Errugbi Taldeko lau jokalarik: Joseba Azkarraga, Aitor Lizaraburu, Asier Delgado eta Peru Altubek. Entrenamendua Txapelketa Autonomikoa prestatze aldera eginiko saioa izango da, eta goizez eta arratsaldez egingo dituzte prestaketa lanak (10:00etatik 12:30ak arte, eta 15:30etik 17:30era).

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

EMAITZAK

Real Union-Berio	2-0
Anaitasuna-Mondra	2-0
Aurrera-Aloña Mendi	0-1
Ordizia-Hondarribia	0-2
Hernani-Trintxerpe	4-1
Pasajes-Roteta	2-1
Idiazabal-Zumaiako	1-1
Aretxabaleta-Oiartzun	2-2
Tolosa-Bergara	1-0

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Hernani	45	20
2 Pasaja	43	20
3 Anaitasuna	41	20
4 Real Union	40	20
5 Aretxabaleta	33	20
6 Bergara	32	20
7 Oiartzun	32	20
8 Tolosa	29	20
9 Aurrera	27	20
10 Mondra	25	20
11 Trintxerpe	25	20
12 Hondarribia	25	20
13 Berio	24	20
14 Idiazabal	19	20
15 Aloña Mendi	19	20
16 Ordizia	17	20
17 Zumaiako	12	20
18 Roteta	12	20

HURRENGO JARDUNALDIA

Mondra-Real Union
Aloña Mendi-Anaitasuna
Hondarribia-Aurrera
Trintxerpe-Ordizia
Roteta-Hernani
Zumaiako-Pasajes
Oiartzun-Idiazabal
Bergara-Aretxabaleta
Berio-Tolosa

ERREGIONAL PREFERENTEA

Antzuola-Aretxabaleta B	1-1
Mondra B-Amaiak Bat	2-2

1. ERREGIONALA, IGOERA

Bergara-Anaitasuna	3-3
--------------------	-----

1. ERREGIONALA, KOPA

Aretxabaleta C-Eibartarrak B	6-0
------------------------------	-----

OHOREZKO GAZTEAK - IGOERA

Beasain-Aloña Mendi	2-0
Real Union-Mondra	1-4

LEHEN MAILAKO GAZTEAK - IGOERA

Arizmendi-Añorga	3-5
------------------	-----

LEHEN MAILAKO GAZTEAK - KOPA

Eibartarrak B-Arimendi UDA B	1-1
Bergara-Aretxabaleta B	0-2

OHOREZKO KADETEAK - KOPA

Bergara-Ordizia	3-2
Oiartzun-Aretxabaleta Arizmendi	1-4

EMAKUMEZKOAK

Mondra-Intxaurdi	5-0
Arimendi-Amara Berri	4-3

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Ford Mugarri A.-Gure Auzuna	35-28
Soraluze Bergara-El Pilar	35-31

EUSKADIKO TXAPELKETA

Aloña Mendi-Atez ate Usurbil	15-24
------------------------------	-------

LEHENENGO TERRITORIALA

Hegialde Auto-Arrasate	26-21
------------------------	-------

BIGARREN TERRITORIALA

Aloña Mendi-Donibane	41-25
----------------------	-------

GAZTEAK, GIZONEZKOAK

Arrate-Bergara	33-28
Bartolo Jatetxea-Aloña Mendi	33-28

ARETO FUTBOLA

GIPUZKOAKO BIGARREN M.

Aretxabaleta-Tecnun	5-2
---------------------	-----

GIPUZKOAKO HIRUGARREN M.

Aloña Mendi-DPO-BAOBAB	6-2
------------------------	-----

SASKIBALOIA

LEHEN MAILA NAZIONALA

Legarcia-Sustrai Aloña	75-82
Seky.es-MU	69-66

SENIOR GIZONEZKOAK

Kevian Sport-MU	73-62
-----------------	-------

SENIOR GIZONEZ., 2. MAILA

Aldabe Irun-Sustrai Aloña	74-58
---------------------------	-------

SENIOR EMAKUMEZKOAK

Eskoriatza-Eroibide	53-55
---------------------	-------

GAZTE GIZONEZKOAK, PARTA.

Sein Mutilak-Soraluze BKE	70-35
Inter Mons-Aloña Mendi	57-28
MU B-Easo	60-33

GAZTE EMAKUMEZKOAK, PAR.

Aloña Mendi-Bera Bera	50-31
-----------------------	-------

KADETE GIZONEZ., PARTA.

Soraluze Bergara-Lizeotarrak	65-30
Aloña Mendi-Easo Amara	66-82

KADETE EMAKUMEZ., PARTAID.

Arizmendi Eskoriatza-Irungo	37-19
-----------------------------	-------

GU
RE
KI
RO
LA

GOIENA TELEBISTA
HARMAILATIK
ASTELEHENERO,
20:45, 22:30



goiena

ESKUBALOIA

Julian Ruiz | Arrate eskubaloi taldearen entrenatzailea

"Egoera asko aldatzen ez bada, eskubaloiak ematen duenarekin bizitzea zaila izango da"

- ▶ Arrateko entrenatzaile Julian Ruizek hitzaldia egin zuen zapatuan, hilaren 29an, Oñatin
- ▶ Tekak Europako txapelketak irabazi zituenean ezkerreko hegalean jokatzen zuen Ruizek

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Julian Ruiz (Santander, 1960) Eibarko Arrate eskubaloi taldearen entrenatzailea da. Zapatuan, hilaren 29an, Oñatin egon zen lagunarteko partidua jokatzen, eta eskubaloiaren gaineko hitzaldia egin zuen. 5-1eko defentsaz jardun zuen berbaldian, eta oso gustura erantzun zituen entzuleen galderak. Eskubaloiaren gaineko *master class* bat izan zen. Gure galderak ere erantzun zituen.

Jokalari moduan hasi zinen, eta orain entrenatzaile zaitugu. Zenbat urte daramazu eskubaloiari?

Elite mailan 30 urte baino gehiago daramat. Jokalari moduan Santanderren hasi nintzen. Ondoren Valladolidera joan nintzen Michelin taldera, eta berriro Santanderrera itzuli nintzen Tekaldera. Duda barik, talde hartan eman nituen urterik onenak.

Tekan bertan eman nituen lehen pausuak entrenatzaile moduan, harrobiko taldeetan. Asobal ligako hainbat talde zuzendu ditut: Tekal, Bidasoa eta Arrate. Emakumezkoen Espainiako hautatzaile eta entrenatzaile izan nintzen. Gainera, Alemanian urtebete egin nuen.

Zenbat aldatu da eskubaloiari hasi zinetik?

Izugarri. Batez ere aldatu da jokoaren erritmoa: egun oso azkar jokatzen dute. Gainera, jokalaria atletak dira, fisikoki indartsuak. Oso konpletoak dira. Dena den, guk ez genuen horren gaizki jokatzen!

Nola gogoratzen dituzu La Albericia kiroldegiko hitzordu garrantzitsu haiek?


Tekal taldearen urte onenetan jokalaria izan nintzen. Europako txapelketak eta ligak irabazi genituen, eta taldea indartsua zen. Baina, La Albericiako harmailetan egoten zen giroa izugarria zen. Kiroldegi txikia da, eta lepo betetzen zen. Guk geuk, gertutik sentitzen genuen zaleen animuak. Lehia haiek ahaztezinak dira.

Ordu hartan Kantabriak leku berezia zuen punta-puntako eskubaloiari.

Bai, hala da. Txapelketa asko irabazi genituen. Hori horrela, munduko talderik onena izendatu gintuzten. Talde mitikoen sailkapen hori mantentzen da, eta oraindik aurreneko lekutan dago Tekal taldea. Orain, egoera asko aldatu da.

Egun Asobal liga jokatzen duen ze taldeekin parekatuko zenuke orduko Tekal?

Ciudad Real taldearekin parekatuko nuke. Baina, euren ibilbide



Julian Ruiz Zubikoa kiroldegian Arrate eta Cuatro Rayas Valladolid taldeen arteko partidua hasi aurretik. | JULIO CALLEJA

oparoa, sariei dagokionez, Tekal egindakoa baino luzeagoa da.

Birritan parte hartu duzu Joko Olinpikoetan.

Los Angelesen eta Seulen egon nintzen Espainiako selekzioarekin, eta baita munduko txapelketa batzutan. 130 partidu jokatu nituen selekzioarekin. Ez genuen talde oso indartsua, eta erdi mailako postuetan bukatzen genituen txapelketak. Baina, oroitzapen onak ditut. Talde kide izan nituen Lorenzo Rico, Eugenio Serrano, Javier Cabanas, Juanon de la Puente, eta Juan Francisco Muñoz Melo, besteak beste.

Jokalari askoren kontra jokatu duzu. Nor aipatuko zenuke?

Duda barik, eta guztien gainetik Veselin Vuyovic. Jokalari izugarria zen: jokoaren ikuspegi guztiak menderatzen zituen. Gainera, tipo jatorra zen, lasaia, eta bazekien nola jardun entrenatzaileekin, epaileekin...

Eskubaloiaren esperientzia onak eta txarrak bizi izango zenituen. Inoiz pentsatu duzu dena pikutara bidaltzea?

Bai. Une zehatz batzuetan bai, baina hurrengo egunean iritzia aldatu izan dut. Entrenatzaile lana oso gogorra eta bakartia da. Partidua galdu ondoren, adibidez, buelta asko ematen dizkiot buruari, eta horrek tentsio handia sorrarazten dit.

Zeintzuk dira Asobal ligako talde indartsuenak?

Bi daude gainerako guztien gainetik: Bartzelona eta Ciudad Real. Maila bat beherago daude Leon-

go Ademar eta Valladolideko Cuatro Rayas. Hortik behera gainerako guztiak gaude, eta arrisku larrian gainera.

Eibar aldean ere arriskuan zaudete sailkapenari dagokionean, baina, baita egoera ekonomikoari dagokionean ere.

Egoera larrian gaude. Ekonomia-ri dagokionen itota gaude. Klubeko ordezkariek erakundeekin elkartu dira, ea bada, guztion artean irtenbidea topatzen dugun.

Gainera, klubak bizi duen egoerak eragina du jokalariaengan, eta niregan. Tentsioa da nagusi, eta ez da erraza lana ondo egitea. Sailkapenean jaitsiera postuetatik hiru puntura gaude.

Taldea desagertzeko arriskuan dago?

Orain dugun egoerarekin, bai, arriskua dugu.

Zure lanean ere eragina du klubaren egoerak?

Bai. Nik ez dut gustatzen zaidan moduan lan egiten, egoerak ez duelako batere laguntzen. Baina, moldatzen gara. Jokalaria baino lehenago pertsonak daude, eta guztiok gaude egoera larrian.

Non ikusten duzu zure burua urte batzuk barru?

Ba ez dakit non egongo naizen, baina kirol munduan seguru. Heziketa Fisikoan lizentziaduna naiz. Dena den, ez dut nire burua eskolak ematen ikusten. Dena den, egoera aldatzen ez bada, epe ertainera, eskubaloiak ematen duenarekin bizitzea ia ezinezkoa izango dela uste dut.

"Askok aldatu da eskubaloiari 30 urtetan: batez ere jokoaren erritmoa"

"La Albericia kiroldegiko giroa izugarria zen; lepo betetzen zen"

"Asobal ligako talde indartsuenak Ciudad Real eta Bartzelona dira"

"Klubaren egoerak eragina dauka taldearen kirol ibildidean"

Tratamendua dago 'r' kontsonantea egoki ahoskatzen ikasteko

5 urtetik gora ez denean ondo ahoskatzen logopedarengana jo behar da

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE
Ohikoa da umea lehenengo hitzak esaten hasten denean *r* kontsonantea ondo ez ahoskatzea; *d* eta *z* kontsonanteekin batera alfabe-

toko zailenatarikoa da. Ahoskerari hori izan ohi da umeak eskuratzen duen azkenetarikoa. Hor-taz, *arazoa* pasakorra izan ohi da kasu gehienetan.

Logopeda

5 urte bete ostean ahoskera hori ondo egiteko umeak oraindik ere zailtasunak baditu, orduan komeni da logopeda batengana joatea. Errotazismoa ez da arazo psikologiko baten ondorioa. Bi izan ohi dira iturri nagusiak: umeak mingaina gaizki kokatzen duela edo arazo fisikoren bat dagoela (mihipeko galgatxoa, ahosabaia-aren forma berezia...).

Logopeda ahoskuntza arazoak lantzen dituen profesionala da. Lehenengo, arazoaren iturria identifikatuko du eta horren araberako terapia proposatuko du. Gehienbat, aurpegiko giharren zein mingainaren mugimendua eta arnasketa landuko ditu. Arazoa lehenbailehen tratatu behar da. Errotazismoak autoestimutxikia eragin dezake, baita irakurmen eta idazmen arazoak ere.



Umea jolasean. | CELESTE MARINA



Musikoterapia saio bat. | MARIA RODRIGUEZ

Musikoterapia gurean ere indarra hartzen ari den erreminta terapeutikoa da

Tailerra egin zuen zapatuan Oñatiko Elkar Hezi ikastetxean Maria Rodriguez adituak

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Musikoterapia psikoterapia bat da eta musika, soinua eta mugimendua ditu baliabide nagusi. Maria Rodriguez eibartarra Oñatiko Elkar Hezi ikastetxean izan zen zapatuan tailerra egiten, eta, azaldu digunez, musikoterapiak hiru alor handi lantzen ditu: prebentzioa, heziketa eta alor klinikoa. "Jende gehienak horrela uste arren, ez da erlaxatzeko edo musika jakin bat entzuteko jarduera islatua", azaldu du Rodriguezek. "Musikoterapia prozesu bat da, antolatutako ekintza multzoa, terapia hasi aurretik finkatutako helburuak betetzeko eta pertsona horren bizi kalitatea hobetzeko. Saioak banakakoak izan daitezke edo taldean egin daitezke".

Erreminta terapeutikoa

Gurean diziplina berria izanagatik Rodriguezek aipatzen du aski ezaguna dela, esaterako, Argentinan eta Ameriketako Estatu Batuetan. "Argentinan egin nuen nik Musikoterapia lizentziatura eta herrialde horretan musikoterapeuta bat dute ospitale, eskola eta psikiatriko bakoitzean".

Musika espresio bide izanik oso erreminta terapeutikoa baliagarria izan daitekeela ohartu dira espezialistak. "Gure mundua soinu beteta dago, eta esan daiteke gutako bakoitzak

soinu-banda propioa duela, bizitzan zehar osatzen joan dena. Hala, gai konkretu bat hitzen bitartez lantzeko arazoak dituzten pertsonak musikaren laguntzarekin bide hori egiten has daitezke".

Programa ugari

Euskadin Musikoterapia ikasketak egiteko bi zentro daude: Gasteizen eta Bilbon; eta diziplina honetan ari diren profesionalak titulazio berezia behar dute. Badira hiru urte Maria Rodriguezek Eibarko *Musikoterapia osasun zerbitzuak* kontsultan diharduela, eta, laster, otsailen zehar, bigarren kontsulta zabalduko dute Donostian. "Hainbat programa ditugu martxan. 0-3 urte bitarteko umeekin musikarako estimulazio goiztiarra lantzen dugu. Gurasoekin batera egiten ditugu saioak eta helburua da umearen garapen globala lantzea. 3 urtetik aurrera musika eta mugimendua lantzen ditugu. Musikarekiko hartu-eman positiboa izan dadin saiartzeko gara. Gurasoek edo aitaita-amamek kantuan eta dantzaz egiten dute umeekin batera, eta, beste gauza batzuen artean, haurtzaroko oroitzapen goxoak sortzen ditugu. Eta musikoterapia programa bereziak ere baditugu; atzerapen bat edo atentzio defizita duten umeendako eta hirugarren adinekoendako dira".


Umeek lehenago ikasten dute telefonoa erabiltzen zapaten korapiloa egiten baino

AVG enpresak hainbat herrialdetako 2.200 amari egindako inkestak datu deigarriak eman ditu

JON BEREZIBAR. | ARRASATE

Antza, 2 eta 5 urte bitarteko bost haurretatik bat zapatatako korde-lak lotzen baino abilagoa da smartphone bateko aplikazioak erabiltzen. AVG enpresak urtero egiten duen inkestan gai honi buruz galdetu diete hainbat herrialdetako 2.200 amari aurten, eta emaitzek hori erakusten dute. Eta ez kordelekin bakarrik, haurren erdiak errazago erabiltzen du ordenagailu-joko simple bat bizikleta baino eta lau haurretatik batek erraz ireki dezake web nabigatzaile bat, baina zailtasunak ditu laguntza barik igeri egiteko.

AVGko arduradunek diote "teknologiak erabat aldatu" duela umeak hazteko modua eta "haurrak gurasoei erabat ezezaguna egingo zitzaizkien inguru baten" dabilzala hazten.



Umea ordenagailu parean. | MANUELLA

OHARRAK

IKASTAROA BAKETIK-EN

Datorren aste bukaeran, otsailaren 4an eta 5ean, *Zinema hezkuntza-tresna gisa* ikastaroa egingo dute Arantzazuko Baketik zentroan. Zinema hezkuntza tresna eskuragarria, dibertigarria eta ahalmen didaktiko handikoa dela ikusiko dute. Zortzi ordu eta erdiko ikastaroa da. Prezioa 40 euro da.

HITZALDIAK OÑATIN

Otsailaren 9an, eguaztena, Joxe Amiama irakasleak etxeko lanei buruzko hitzaldia egingo du Elkar Hezi ikastetxean 18:30ean. Biharamunean, otsailak 10, ohitura osasuntsuak izango dituzte ber-bagai Elkar Hezin. Egun berean, baina Zuazolan, Andoni Egaña bertsolariak gurasoendako hitzaldia egingo du 18:00etan.

GURASO TERTULIA

Goiena telebistan, eguaztenean, guraso tertuliaren beste saio bat izango da ikusgai, 20:45ean. Eskolako notak abiapuntu hartuta egungo hezkuntza sistema eta familien ohitura aldaketak izango dituzte hizpide Rafael Cristobal psikoterapeutak eta Juankar Olaeta eta Arantza Etxebarria irakasleek.



KULTURA

Piano-jotzaile txikiek artista handien modura jardun zuten Amaia antzokian

- ▶ Arrasate, Eskoriatza, Bergara eta Oñatiko gaztetxoek kontzertua eskaini zuten
- ▶ Andoainen otsailean egingo den Piano Jaialdirako entsegua izan zen barikuko saioa

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE

Benetako artista profesionalen modura: eszenatokira igo, publikoa agurtu, kontzertua eman eta atzera ere publikoa agurtu eszenatokitik jaitsi aurretik. Horrelaxe jardun zuten egubakoitzean Amaia antzokian egindako piano kontzertuan parte hartu zuten neska-mutikoek.

Entsegu ofiziala etxean

Debagoieneko piano-jotzaile gazteek hitzordu garrantzitsua dute otsailaren 19an eta 20an Andoainen. Urtero moduan Piano Jaialdia ospatuko da eta horretarako gogor entseatzen dihardute azken asteotan. Dena dela, Andoaingo jaialdiaren aurretik urtero, motorrak berotzen joateko, Arrasate Musika-lek antolatuta Amaia antzokian kontzertua egiten dute. "Andoaingo lehiaketa garrantzitsua da, baina gaurko kontzertua ere oso garrantzitsua da eta oso urduri egoten gara eszenatokira igo aurretik. Gurasoek gain lagunak ere etortzen dira pianoa nola jotzen dugun ikustera", kontatu ziguten parte-hartzaileetako batzuk amaieran.

Arrasate, Eskoriatza, Oñati eta Bergarako musika eskoletako gaztetxoek hartu zuten parte barikuko kontzertuan; guztira 47 neska-mutiko, mutikoak baino neska askoz gehiago ziren arren. *Estudio Nº5*, *Andaluza*, *New Age* eta *Shining* bezalako abestiak jo zituzten.



Arrasateko Amaia antzokia artista txikiz bete zen egubakoitz arratsaldean. | JULIO CALLEJA

Gurasoen begiradapean

Piano-jotzaileak txalo artean igozten ziren eszenatokira. Izan ere, artista txikien guraso eta lagunak ez zuten hitzordua galtzerik nahi izan. Amaia antzokiko lehenengo ilarak bete egin ziren eta famatuak balira bezala, gaztetxoek *flash* artean eman behar izan zuten kontzertua. Gurasoek adi-adi jarraitu zituzten emanaldiak.

DATUA

47

NESKA-MUTIKO

Arrasate, Oñati, Eskoriatza eta Bergarako 47 gazte igo ziren taula gainera.

Hurrengoa Andoainen

Entsegu ofiziala etxean bertan egin eta gero hurrengo saioa Andoaingo Piano Jaialdian egingo dute gure ibarreko gaztetxoek. Aurten 871 piano-jotzailek hartuko dute parte Andoaingo Bastero Kulturagunean egingo den lehiaketan. 18 urte azpikoak dira denak eta adinaren arabera hiru taldetan banatuko dituz-

te; batzuek bakarka joko dute pianoa eta bete batzuek lau eskutara. Guztiek diploma bana eta urrezko, zilarrezko edo kobrezko domina jasoko dute, egindako saioaren arabera.

Edozelan ere, egubakoitzean Amaia antzokian eskainitako emanaldia ikusi eta gero argi dago Debagoiena oso leku onean utziko dutela Andoainen.



LEIRE ETA ANE
ESKORIATZA

Anek eta Leirek 11 urte dituzte eta duela lau urte hasi ziren pianoa jotzen. Oso urduri zeuden kontzertua hasi aurretik, batez ere Ane, baina dena oso ondo irten zen. "Asko entseatu dugu eta gustura gaude egindako lanarekin", esan ziguten amaieran.



NAROA ETA MIRIAM
BERGARA

Naroarendako kontzertu honetan parte hartzen zuen hirugarren urtea zen, baina Miriamentzat lehena. Elkarrekin jo zuten pianoa eta lan bikaina egin zuten. Orain Andoaingo kontzerturako entseatuko dute. Kontatu digute ez daudela urduri.



JOSU ETA ENEKO
BERGARA

Josuk eta Enekok lau urte daramatzate pianoa jotzen. Lagunen txalo eta txistu artean igo ziren eszenatokira eta blues estiloko pieza bat jo zuten elkarrekin: "Estilo guztiak gustatzen zaizkigu, bluesa ere bai. Gustura gaude egindako lanarekin".



ANE, MARA, IDOIA, NATALIA ETA ARAITX
ARRASATE

Arrasate Musika-leko neska hauek 9 eta 10 urte dituzte. Hiru urte daramatzate pianoa jotzen eta Amaia Antzokiko kontzertua oso garrantzitsua izaten da beraientzat: "Oso urduri geunden kontzertua hasi aurretik, baina piano aurrean jartzen zarenean pasatu egiten zaizu. Andoaingo kontzertuan urduriago egongo gara seguruenik", kontatu ziguten amaieran lagunak agurtzen zituzten bitartean.



Lapurra euskaraz lapurtzeko eskubidea aldarrikatzen bankuko langileei. | JULIO CALLEJA

KRONIKA

'Vaya Semanita' 3D-n, Oñatin

IRATI GOITIA | OÑATI

Egubakoitzean, Oñatiko Santa Ana antzokira joan zirenek *Vaya Semanita* hiru dimentsiotan ikusteko aukera izan zuten. Hori esanez hasi zuen Andoni Agirregomezkorta aurkezleak antzez-lana: "Punta-puntako teknologia-ri esker, *Vaya Semanita* hiru dimentsiotan ari zarete ikusten; gainera, betaurreko beharrik izan gabe".

Izan ere, telebistako programak pantaila txikitik antzerkira egin du salto eta egubakoitzean Oñatin izan ziren programako aktoreak saioko une onenak antzetzten. Bi emanaldi izan ziren: bata 20:00etan eta bestea 22:30ean.

Bietan bete ziren Santa Ana antzokiko 275 eserlekuak, are gehiago, orain dela astebete dagoeneko salduta zeuden sarrera guztiak.

Gaurkotasuneko gaiak

Antezlanak gaurkotasuneko gaiak lantzen ditu ironia puntuarekin. Horrela, gure egunerokotasuneko gaiak parodiatzen dituzte *sketche*-tan aktoreek: giza harremanak, sexu kontuak eta lanean izaten ditugun arazoak, besteak beste.

Adibidez, ikusleek barre egin zuten, euskaraz banku bat lapurtu nahi, baina ulertzen ez zioten lapurrarekin edo su-etenaren berri emateko *Garara* deitu eta

erantzungailua irten zitzaien ETako kideekin.

Sketch musikalak ere izan ziren eta aktoreek beraien alderdi politikoa aurkeztu zuten: *Vaya Semanita*.

FITXA

SANTA ANA ANTZOKIA

Ikuskizuna: *Vaya Semanita*

Estiloa: Komedia.

Non: Oñati.

Eguna: Egubakoitza, urtarrilak 28.

Iraupena: Ordu eta erdi inguru.

Ikusle kopurua: Antzokia beteta

Ikusleez hartu-eman

Ikusleekin interakzioa ere bilatu zuten aktoreek. Horrela, Javier Anton aktoreak, Iker Jimenezen (*Cuarto Milenio* saioko aurkezlea) paperean, publikoaren artean *G puntua* aurkituta zuen emakumea aurkitu zuen, urte askotako misterioa argituz: *Existitzen al da G puntua?*

Horretaz gain, publikotik ikusle bat ere igoarazi zuten taula gainera, erretiratu ospindu baten papera egitera. "*Chancletas, que eres un chancletas*" errepikatu behar izan zuen behin eta berriro.

Aktoreak

Telebista saioko pertsonaia ezagunenei sei aktorek ematen diete bizia taula gainean: Andoni Agirregomezkortak, Javier Antonek, Itziar Atienzak, Iker Galarzak, Mañu Elizondok eta Leire Ruizek.

Aktoreak pertsonaia ugariren paperetan sartzen dira, eta, horrela, ez dira falta ostegunero pantaila txikian ikus ditzakegun pertsonaia ezagunenak: *El Jonan* ospetsua, adibidez.

Sei aktoreek lan bikaina egiten dute, eta aipagarria da zelako azkartasunez pasatzen diren pertsonaia bat antzetzetik beste bat antzetzera, horrek dakartzan arropa eta orrazkera aldaketak kontuan izanda.

Barre algarak

Aktoreek ikusleen barre algarak eragin zituzten, eta amaieran txalo zaparrada jaso zuten. Izan ere, sarri zaila izaten da bizitzako arazoan alderdi positiboa bilatzea, eta are zailagoa, horien aurrean barre egitea. Ordubetik eta erdian arazoan gordintasunaz ahaztu eta barre eragin izanagatik jaso zituzten txaloak *Vaya Semanita* taldekideek.

Xarmak ohiko indarra erakutsi zuten Debagoiengan emandako lehen kontzertuan

Zapatu gauean Bergarako Gaztetxean jo zuten Dirty Brothers, Never Surrender eta Xarmak

IRATI GOITIA | BERGARA

Kontzertu bizia izan zen zapatu gauean Bergarako Gaztetxean. Indar handiko hiru talde igo ziren taula gainera: Dirty Brothers, Never Surrender eta Xarma.

Arrasatetik iritsitako punk-rockak ireki zuen kontzertua. Dirty Brothers izan zen taulara igitzen lehena, eta ostean etorri zen Never Surrender. Beste behin ere argi geratu zen Arrasateko punk-rockak jarraitzaile asko dituela; asko izan ziren bailaratik Bergarako Gaztetxera joandako zaleak. Kontzertua hasi orduko, jarraitzaileak berotuta eta festarako gogoz zeuden. Gau guztian zehar lehenengo ilaratan gogoz egin zuten dantza.

Lehenengo aldiz gurean

Danbakako laugarren edizioako irabazleek eman zioten amaiera gauari. Taldearen estreinaldia zen gurean, eta ez zuten hutsik egin. Lehiaketan zehar, Elgetako Espaloian erakutsitako indar berbera izan zuten. Sorpresarik ere izan zen ondarrutarren emanaldian: *Jonkirru* gitarra-jotzailearen lagun Ana Sebal eszenatokira igo zen taldearekin batera abestera.

Info7ren alde

Info7 irratiak Internetetik FMra-ko jauzia eman berri du, baina antenak 6.245 euroko kostua du eta dirua biltzeko helburuarekin hainbat egitasmo antolatu dituz-



Xarma, Danbakako irabazlea, kontzertua ematen. | JULIO CALLEJA

te azkenaldi honetan. Horien artean kokatzen da zapatu gaueko kontzertua.

Ibai Redondo antolatzaile lanetan aritu da, eta adierazi digu argi dagoela Info7k jende askoren babesa duela: "Gazte asko etorri da kontzertura, kalkulatu digu 200 pertsona

inguru izango zirela. Babes handia jaso dugu. Oso pozik gaude erantzunarekin".

Taldearen jarrera ona ere azpimarratu nahi izan zuen Redondok: "Hiru taldeek ez dute ezer kobratu kontzertuarengatik eta eskerrak eman nahi dizkiegu jarrera on horregatik"

Gaztetxekoek, bestalde, barran jasotako diruaren kopuru bat eman diete Info7koei, eta hori ere eskertu nahi izan dute. Atzoko kontzertuan eta bertso saioan jasotako diruarekin, antenarentzat beharrezkoa duten diruaren erdia jaso dutela ere jakinarazi digu Redondok.

Santi Leone | Jokin Zaitegi lehiaketako irabazlea

"Nobel sarien lanak itzuliz euskararen ondarea aberastu dezakegu"

- ▶ Vargas Llosaren eleberria euskaratu beharko du
- ▶ Lehiaketan parte hartzen duen bigarren urtea da

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE

Dagoeneko badakigu nork itzuliko duen euskarara 2010eko literatura Nobel Saria; AEDk eta Elkar argitaletxeak urtero antolatzen duten Jokin Zaitegi itzulpen-lehiaketak zehazten du hori. Bada aurtengo irabazlea Santi Leone (Iruñea, 1972) da eta Mario Vargas Llosa (Peru, 1936) idazlearen *Pantaleón y las visitadoras* eleberria euskaratu beharko du. Leone historian doktorea da, zutabeak idazten ditu euskal prentsan eta irakaslea da Hizkuntza Eskolan.

Zer izan zen lehiaketa irabazi zenuela jakin zenuenean pentsatu zenuen lehenengo gauza?

Erran behar dut pentsatu nuen lehenengo gauza izan zela, ez nekiela benetan berri ona edo txarra zen. Alde batetik, oso pozik jarri nintzen lehiaketa irabaztearren, baina gero pentsatu nuen lan asko nuela aurretik eta benetan orduak eta orduak sartu beharko ditudala Vargas Llosaren eleberria ondo itzultzeko. Txantxak alde batera utzita, oso pozik nago.

Izen handiko idazlea itzuliko duzu. Zer da Vargas Llosa zuretako?

Gazteagoa nintzenez haren eleberri batzuk irakurri nituen: *La Ciudad y los Perros*, *La Guerra del fin del mundo*... Azken hori, esaterako, asko gustatu zitzaidan. Orokorrean, gustura irakurri nituen, baina harrezkero ez dut haren libururik irakurri. *Pantaleón y los Visitadores* ere ez dut oraindik irakurri. Uste dut garai baten idazle franko ona zela, baina gaur egun ezin dizut esan, ez dudalako jarraitu. Dena dela, nire nahia lehiaketa honekin zen itzulpengintzan sartzea, parte hartzea, eta ez zitzaidan inporta horrenbeste zein egile itzuli behar nuen. Vargas Llosa; ba bai, irakurri dut, idazle ona da, baina ez da niri gehien gustatzen zaidan idazlea.

"Gaztetan irakurri nuen Vargas Llosa, baina aspaldian ez dut jarraitu"

Zer da *Pantaleón y las visitadoras* eleberrian kontatzen dena?

Kontua da Peruko oihanean armadak arazo handi bat duela; soldaduek hango emakumeak bortxatu nahi dituzte. Agintariek orduan erabakiko dute Pantaleon izeneko militarra bidaltzea oihera egoera baretzeko eta honek egiten duena da prostituta talde bat eraman soldaduen nahiak asetzeko. Eta hori da funtsa, hori da nik ezagutzen dudana.

Zinemara ere eraman izan da eleberri hori, ezta?

Bai, zinemara eraman zuten eta uste dut telesail bat ere egin zutela Perun. Kontua pareko ogi saltzailea Perukoa dela eta lagina itzultzeko momentuan zalantza batzuk argitzeko berarengana jo nuen. Hark esan zidan nobela anitz ezaguna dela eta Perun telesail bat ere egin zutela. Filma ere ez dut ikusi.

Itzuliko duzun autorearen eleberria ezagututa, bada bereziki beldurrik ematen dizun ezer? Zailtasun berezirik?

Ba bai. Gaztelaraz dago eta ondo menderatzen dut gaztelera, baina



Santi Leone. | S.L.

laginean ikusi nuen Peruko gaztelaraz dagoela idatzita eta badi-ra esamolde batzuk hemen penintsulan arrotzak direnak. Bestetik, uste dut badi-rela hizkera administratiboko zati luze batzuk eta horiek ere zailak izango dira itzultzen.

"Eleberria zinemara eraman zuten eta telesail bat ere egin zuten Perun"

Zer iruditzen zaizu Jokin Zaitegi itzulpen-lehiaketa?

Aurtengoa parte hartzen duen bigarren urtea da; duela bi urte izan zen lehena Le Clezioren *Basamortua* itzuli behar zenean. Uste dut aunitz ondo dagoela eta aunitz interesgarria dela. Gainera modu horretan, Nobel sarien itzulpenen bidez, euskara ere aberasten dugula. Beharbada eleberri horretan agertzen dira esamolde eta ideia batzuk euskarak ez dituenak, eta itzulpenen bitartez euskararen ondare izartera pasatu daitezke.

Debagoiendar bi Beterriko txapelketako finalean

Ainhoa Agirreazaldegia eta Jokin Labayen bertsolariak aurrez aurre egongo dira finalean

A.B. | ARRASATE

Bi debagoiendarrek hartu dute parte aurtun Beterriko Bertsolari Txapelketan. Ainhoa Agirreazaldegia bergararrak, Onintza Enbeitia eta Uxue Alberdik Donelutxi taldea osatu dute eta *sevillana* jantzita finalerako txartela eskuratu zuten joan zen asteburuan.

Bigarren debagoiendarra Jokin Labayen arrasatearra dugu eta Ander Lizarralde eta Unai Muñoarekin batera Done-lontxo taldea osatu dute. Pasa den egubakoitzean Asteasuko Aitzondo elkartearen egindako saioan horiek ere finalerako sailkatu ziren.

Labayen eta konpainiak erraz gainditu zuten Alain Martin, Miren Amuriza eta Jone Uriak

osatutako Agedadeun taldea. Agurreko ikuskizunetik hasita, arrasatearren taldeak argi utzi zuen talde sendoa eta eskarmentuduna zirela. Labayen Eugenio umorista katalan fama-tuaz mozorrotuta azaldu zen eta berehala poltsikoratu zituen ikusleak.

Finala otsailaren 12an

Agirreazaldegiren eta Labayenen taldeek otsailaren 12an neuruko dituzte indarrak.

Finala Villabonako Behar-Zana elkartearen izango da eta txartelak dagoeneko agortuta daude.

Txapelketako antolatzaileek azaldu dute finala oso interesgarria izango dela, bi taldeak ere oso sendoak direlako.



Jon & Sugramas taldea Bergarako Zabalotegi aretoan. | JULIO CALLEJA

Blues tantakak dituen rocka

Jon & Sugramas taldeak kontzertu akustikoa eskaini zuen egubakoitzean Zabalotegi aretoan

A.B. | BERGARA

Begarako Zabalotegi aretoan blues ukitudun rock doinuak ekarri zituen Jon & Sugramas taldeak egubakoitz gauean. Jon Gurrutxagaren proiektu berria akustikoan ezagutzeko aukera izan zen.

Taldearen kalitatea eta maila ezagututa, espero zena baino jende gutxiago batu zen aretoan, baina bertara joandakoak, seguruenik harriritu geldituko ziren taldearen eta abestien kalitatearekin, eta batez ere abeslariaren ahotsarekin.

Eszenaratze oso txukuna

Kandelabroekin, alfonbra baten gainean eta lanpara berezi bat argizatuta igo ziren oholtza gainera Jon Gurrutxaga, Ekaitz Garmendia eta Andoni Mujika. Kontzertu hurbila, gertukoa eta beroa eskaini zuten. Taldearen izen bera duen diskoko abestiak jo zituzten, baina baita Allman Brothersen bertsoak ere: *Sweet Melissa* eta *Midnight Rider*.

Jende gutxi joan izanak ere izan zuen bere alde ona. Ikusleek kontzertuaren amaieran luze eta zabal hitz egin ahal izan zuten taldekideekin.

Poliki-poliki lekua egiten

Pasa den urteko maiatzean jaio zen Jon Gurrutxagaren azken proiektu hau eta hasiera-hasierratik kritika ezin hobekak jaso ditu. 70eko hamarkadako rock *sureñoa* egiten dute, blues tantak batzuk dituen rocka eta Gurrutxagak berak idatzi eta konposatutako abestiak jotzen dituzte. Jon & Sugramasena ez da Euskal Herrian gehien entzuten den musika estiloa, baina esan behar da apurka-apurka ari direla tokia egiten.

2011n atera etekina txartelari!

<p>AQUARIUM Donostia, 943 440 099</p> <p>Bi erosi eta bat ordaindu. (sarrera garestiena ordainduko da)</p> 	<p>AVIA MECA GASOLINDEGIA Arrasate, 943 791 339</p> <p>-%2 erregaian. -%2 dendan.</p> 	<p>AZKOAGA ENEA HOTELA-JATETXEA Eskoriatza, 943 714 566</p> <p>-%8 asteburuko egonaldietan. Ohe bikoitz eta egongeladuna hartuz gero, txakolin botila bat opari (Mendraka). -%10 jatetxeko kartan.</p> 	<p>BARCELÓ BIDAIAK Arrasate, 943 797 011 Bergara, 943 760 843</p> <p>1.000 eurotik gorako erosketekin "B Plana" OPARI (kontratatuaren arabera: asteburuko egonaldiak, irteera gastronomikoak, ongizate txartelak...)</p> 
<p>BEGIONDO OPTIKA Aretxabaleta, 943 799 821</p> <p>-%15 produktu guztietan. Kontsulta doan.</p> 	<p>GAHIR FISIOTERAPIA-OSTEOPATIA Eskoriatza, 943 714 341</p> <p>-%50 lehenengo kontsultan.</p> 	<p>ESKO SPORT KIROL DENDA Eskoriatza, 943 715 296</p> <p>-%10 produktu eta zerbitzu guztietan</p> 	<p>GAES ENTZUMEN ZENTROA Arrasate, 943 712 793 Bergara, 943 769 455</p> <p>-%10 (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)</p> 
<p>CLÍNICA DENTAL BERGARA Bergara 943 760 577</p> <p>-%10 zerbitzu guztietan -%15 inplanteetan Aho-garbiketa doan, 120 eurotik gorako tratamenduetan. Bazkidearentzat eta familiako batentzat.</p> 	<p>IKER SUKALDEAK Arrasate, 943 790 043 Oñati, 943 533 548</p> <p>Sukalde osoa erosita, etxetresna elektrikoa opari.</p> 	<p>LILURA EDERTZE INSTITUTUA Bergara, 943 763 171</p> <p>-%15 laser depilazioan: hanka osoa + izterrondoa (besapekoak opari). -%20 elikagai-intolerantzia proban. -%10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak -%10 fototerapia bidezko aknearentzako. Bazkidearentzat eta lagunarentzat</p> 	<p>MULTIOPTICAS Arrasate, 943 792 995 Bergara, 943 761 575</p> <p>%15 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)</p> 
<p>NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA Aretxabaleta, 943 082 189</p> <p>-%15 zerbitzu guztietan</p> 	<p>RENAULT AUTOBERRI Arrasate, 943 712 472</p> <p>-%5 konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa. -%25 pneumatikoetan Ordezkapeneko autoa, 20 euro.</p> <p>Erosketaren momentuan goian aipatutako deskontua baino handiagoa badugu, bazkideari deskontu handiena eskainiko diogu.</p> 	<p>TXIKI ZOO Aretxabaleta, 943 795 115</p> <p>-Sei ile apaindegi zerbitzuengatik, zazpigarrena doan. -%50 erainoko deskontuak txakur-txamarratan (izakinak agortu arte)</p> 	<p>TXURI URDIN IZOTZ JAUREGIA Donostia, 943 464 400</p> <p>Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan (ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia) -%20 zapatu eta domeketan (ez bada zubia edo oporraldia) -%10 zubi eta oporraldietan.</p> 
<p>ZIENTZIEN KUTXAGUNEA Arrasate, 943 012 478</p> <p>Bi erosi eta bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da)</p>  <p>ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA</p>	<p>► Astelehenetan eta ostiraletan Goiena papera buzoian. ► Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan. ► Zozketa eta promozio berezietan parte hartzeko aukera.</p> <p>Eta klubeko kide zarenez, Home Cinema bat irabazteko aukera izango duzu otsailean!</p>		

goienakluba 2011

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | Kuota: 48 €.

GURE MUSIKA TALDEAK

LITTLE
LITTLE
MUCH

Little Little Much taldeko hiru kideak. | LITTLE LITTLE MUCH

"Proiektu pertsonala da; dibertitzea da taldekideok dugun helburu nagusia"

- ▶ Disko zuzena eta azkarra da; pop eta rock ukituak ere baditu lan berriak
- ▶ Gure lehen zuzeneko Arrasaten eman gura genuke

MAIDER ARREGI | ARRASATE

2005ean jaio zen Mallorcan Little Little Much proiektua. *Give me a little* lan berriarekin musika eszenari ikuspegi ezberdina ematera datoz. Taldea Ibanek (bateria), Jonek (baxua) eta Txarlik (gitarra) osatzen dute.

Lagun artean sortutako proiektua sendotzen joan da denborarekin.

Mallorcan taberna baten sortu zen proiektua. Jon's Tabern izeneko taberna irlandarrean. Gutako inork ez zekien ganoraz ingelesez. Txantxa giroan "my english is bad, but little little much" bota

genion zerbitzariari, eta, barrezka, halaxe sortu zen taldea.

Danbakak zer eman dizue?

Oso esperientzia polita izan zen. Toki aparta jotzeko, soinu mahai eta guzti! Lehen aldiz jo genuen areto baten.

2008an bost abesti grabatu zenuztuzten.

DJ Kirrinekin grabatu genuen eta hasiera baten instrumentalak izan behar zuten lanei ahotsak sartu genizkien. Pixkanaka baxua, bateria, gitarrak sartzen joan ginen. Kolaborazio bereziak izan genituen ahotsetan: Arkaitz (Anger), Aner

(Brutal Melody), Julen (Ozen) eta Ekaitz (Lau).

Give me a little lan berri abestihoriek ere jaso dituzue?

Lan berri abesti zaharrak eta berriak sartu ditugu. Oso sentiberak gara eta garai onak gogoratu nahi izaten ditugu!

Nolako lana da?

Lan azkarra eta zuzena da. 25 minutu irauten duten 11 abesti. Metalaz eta rockaz gain, pop ukituak ere sartu ditugu. Brutaleko Anerrek *Pintxe puto* abestian lagundu digu eta *Cerve* lagunak koroak egin dizkigu.

Abestiak entzunda, disfrutatzea gustatzen zaizuela igartzen da.

Bai, ondo pasatzeko asmoz egingo lana da. Gustatzen zaionari ondo, eta bestela, ba aurrera! Guk disfrutatze helburuaz egindako proiektua da.

Orokorrean, nola hartu du jendeak lan berria?

Denetarik esan digute. [Barre] Batzuei gustatu egin zaie, beste batzuei ez. Jendeak nabarmendu duena izan da abestitik abestira dagoen aldaketa hori. Oso ezberdinak direla eta gustura hartzen direla aldaketa horiek esan digute. Proiektu ezberdina da eta *little* ukitua dauka %100!

Azala guztiz originala da!

Geure ekoizpena da. Azala geuk diseinatu dugu eta oihalezko eskulan edo artelan pertsonalizatuak dira; gainera, zikinduz gero garbitu egin daitezke!

Non grabatu duzue?

Uztaillean, bi aste grabatu genituen abestiak gure lokalean. Angerko Beñatok eta Numeneko Osinagak lagundu digute nahasketa lanekin.

Doan dago diskoa sarean.

Streetkatu webgunean jarri dugu diskoa, doan jaisteko. Bideoklipa egiten dugunean ere bertan jarriko dugu. Ideia hori daukagu, baina aurrerago grabatuko dugu.

Noiz ikusiko dugu Little berri zuzenean? Zaleak zain daude.

Laster! Txarli Kanariar uhartetan bizi da, baina datorreneko Arrasaten lotu nahi dugu lehen kontzertua. Ondoren, gu joango gara Kanarietara.

ZERTZELADA



GIVE ME A LITTLE

Estiloa: Rocka, stonerra, metala...

Egilea: Little Little Much.

Argitaletxea: Autoekoizpena.

Iraupena: 25,7 minutu.

Zikinak, dibertigarriak eta oso freskoak

Hainbat urte pasa dira arrasatear hauek Danbakan ezagutu genituenetik, eta orain disko luzeak kaleratu dute. 90eko hamarkadako semeak direla ez dago zalantzarik: rock zikina oso gustuko dute, distorsio eta anabesak lagunduta, grunge deritzon hartako Tad eta Mudhoney gogorarazi didana. Horrez gain, metala oso presente dute ADNan eta hori erritmo pisutsu eta gogorretan antzematen da. Baina oso musikazaleak direnez, esponja hutsak dira eta (Gelmako desertuko) stonerraren eta post-hardcorearen ukituak ere antzeman daitezke.

Euskaraz eta batez ere (Mallorcan ikasitako) ingelesez abesten dute eta umorea barra-barra dute. Sorpresa ederra!

IKER BARANDIARAN

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. Familia bakarreko etxea salgai 8.000 m²ko lur-sailarekin. Prezio murritzua. 636-94 81 31.

Aramaio. Etxebizitza saldu edo errentan ematen da. Hiru logela, egongela, sukaldia eta komun. Oso argitsua. Interesatuok deitu zerbaki hauetara: 620-59 86 55658-72 52 70

Bergara. Martzial Agirre kalean 105 metro koadroko etxebizitza salgai. Laugarren solairuan. Sukaldia, egongela, lau logela eta bi bainugela. 30 metroko garajea eta 11 metroko ganbararekin. Interesatuok deitu zerbaki hauetara: 608 15 45 25

Durango. Alde zaharra. 71 m². Kanpoaldera begira. Altzariz hornitua. 2 logela. Egongela. Sukaldia. Komun bat. Guztiz berriztuta. Kanpotik (2006): fatxada, atalondoa, eskailera eta teilatua. Barrutik (2007): parketa (elondoa), sukaldia (fagor elektrotresnak eta junkers galdara), gresa, berokuntza (gas naturala), kristal bikoitzeko leihoak, ate blindatua. Berehala bizitzera joateko aukera. 215.000 €. Tel: 607-71 53 53

Durango. Pisu ederra salgai martxoaren 8ko kalean. 3 urte ere ez ditu eta oso polita dago jarrita. 80 m² ditu, bi logela, bi komun, oso polita den sukaldia berria eta saloi ederra. Pisu osoa inguratzen 90m²-ko terraza itzela. Pisu osoa kanpora ematen du, komun batizan ezik, eta orientazioa paregabea da. Berarekin batera 30m²-ko garajea saltzen da. 637-41 64 38

Oñati. 60 m²ko etxebizitza salgai san lorentzen. Bi logela, komun bat eta sukaldia-egongela. Jantzia eta berria. 192.000 euro negoziagarri. Deitu 20:00ak eta 22:00ak artean, mesedez. 699-78 47 49

Oñati. Kalebarrian 71 m²ko etxebizitza salgai. Bi logela, sukaldia, egongela eta komun guztiz hornituak. Patio erabiltzarria, ganbara eta garaje itxia. Prezio ona. 665-71 77 98

Oñati. 84 m²ko etxebizitza ederra salgai. 3 gela, 2 komun, sukaldia eta egongela handia. Gainera 32 metroko lorategia dauka, garaje itxia eta ganbara. Leku aproposan dago, denda eta ikastetxe ondoan baita. Ingurune lasaia eta erdigunea 5 minutura dago. 678-71 36 97

Oñati. 85 m²ko etxebizitza salgai obispo otaduy kaleko 13. ean, 2. Solairuan. Sukaldia, hiru logela, komun eta egongela. Denaz jantzia eta oso eguzkitsua. Zuzenean bizitzera sartzeko moduan. 169.000 euro. 659 -05 11 57 630-52 17 89

Oñati. Erdialdean 110 metro koadroko duplexa salgai. Sukaldia, egongela, lau logela, bi bainugela eta garbigela-trastelakua. Oso egoera onean dago. Garajea aukeran. Harremanetarako idatzi mezua bzubi@yaho.com helbidera edo deitu telefono zerbaki hauetara: 659 53 87 62

Jaka. Jaka erdigunean, altzariz guztiz hornituriko apartamentua salgai. Garaje eta trasterarekin. Interesatuok deitu 667-49 25 57 telefono zerbakira.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan erdialdean. Berokuntza zentrala, bi logela, egongela, sukaldia eta bainugela. 450 euro. Interesatuok deitu telefono hauetara: 628 22 45 09

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, sukaldia, bainugela, egongela eta trastelakua. Interesatuok deitu telefono zerbaki hauetara: 616 92 55 06

Debagoiena. Etxebizitza bi ematen dira errentan. Bata Aramaion eta bestea Arrasaten. Interesatuok deitu telefono hauetara: 647-22 09 38

Elorrio. 50 m²-ko atiko berria alogagai elorrion. Logela, komun eta sukaldia-egongela. Igo-gailua ere badu eta prest dago bizitzera sartzeko. Oso polita. 606-04 38 35

Oñati. San Lorentzen etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, bi bainugela, egongela eta sukaldia. Interesatuok deitu telefono zerbaki hauetara: 650 56 62 06

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Arrasatear neska langile eta arduratsuk etxebizitza hartuko luke errentan arrasate erdialdean. 500 euro arte ordainduko nuke. Mila esker. Iraia. 606-74 42 37

Arrasate. Etxebizitza errentan hartu nahi dut Arrasaten, gehiezin 550 euro ordainduta. Interesatuok deitu telefono zerbaki hauetara: 666-21 88 95 edo 943-79 74 13

Arrasate. Logela hartuko nuke errentan, kontratuarekin. Ordain-tzeko arduratsua naiz. 666-21 88 95 edo 943-79 74 13

Azpeitia. Azpeitian edo inguruan etxe bat alokatu nahi nuke. Kontakua: anampiriz@gmail.com edo 635-75 29 56.

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Bi ogelarekin nahikoa genduke. Hilean 500 -550 euro ordaintzeko prest. 647-22 35 87

Bergara. Etxebizitza baten bila nabil alogairuan hartzeko. Hiru logela izatea beharko nuke. Gilberto da nire izena. Interesatuok deitu telefono zerbaki hauetara: 654-24 13 27

Bergara. Etxebizitza errentan hartuko nuke. 2 edo 3 logelarekin. 677-77 22 31

Elorrio. Altzariz jantzitako pisu bila nabil Elorrion, alokatzeko. 94-658 21 91

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Logela ematen da errentan, sukaldia eta egongela erabiltzeko eskubidearekin. 666-68 00 04

Arrasate. Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu errentan. Interesatuok deitu telefono zerbaki hauetara: 630-71 35 83

Arrasate. Pertsona bat behar dugu errentan ematen etxebizitza osatzeko. Ignacio. Interesatuok deitu telefono zerbaki hauetara: 670-59 73 62

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. Interesatuok deitu telefono zerbaki hauetara: 648-86 05 49

Bergara. Logela ematen da errentan, sukaldia erabiltzeko eskubidearekin. 650-62 12 94943-08 22 60

Bergara. Etxebizitza osatzeko pertsona behar da, sukaldia erabiltzeko eskubidearekin. Bolun. 670-85 86 68

Bergara. Bi logela ematen dira errentan Bolun, prezio onean. Interesatuok deitu zerbaki hauetara: 645-67 79 75

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:
943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguneke 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
 Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
 GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:
- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.
 Egubakoitzean + Astelehenean: 20,50 € (BEZ barne).
 Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.
 Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 21 € (+BEZ).
 Egubakoitzean + Astelehenean: 28 € (+BEZ).

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: **iragarkilaburrak.com**

Bergara. Ozaetan, etxea osatu nahi nuke. Interesatuok deitu telefono zerbaki hauetara: 606 -63 19 91

Donostia. Antiguan, gela argitsu bat eta garaje itxia bat alokairuan emateko moduan, kontratuarekin; hilean 375 euro (errenta aitoreneko diru laguntzarekin, 280 euro!) gehi 60 euro gastuengatik, luzerako (12 hilabete, gutxienez) 114 m²ko etxe batean. Beste 2 pertsona langileekin partekatzeke litzateke (27 eta 29 urtekoak gara; ez gara bikotea). Bi bainu, egongela handi bat, sukaldia berria, berria, terraza (14m²) eta igerilekua. Paregabea aukera. Garrantzitsua: urte osorako banku abala eskatzen du etxearen jabeak. Interesatuok deitu telefono zerbaki hauetara: 626 -22 92 58.

Donostia. Donostian gela bat alokatzen da neska batentzat. Interesatuok deitu zerbaki hauetara: 943-65-16-92

Muxika. Gela handi bat errentan ematen dut armarioduna, txalet adosatu batean. Lorategi eta aparkaleku propioak. Interneteko eta kableko telebista. Gasoleo kalefakzioa etxe osoan. Sukaldia (guztiz hornitua) eta egongela-jangela (telebistaduna) erabiltzeko eskubidearekin. Zonalde lasaia eta ondo komunikatua. Gemikatik 3 km-ra eta Gemikarako eta Mungiarako autobus geltokitik 50 m-ra. 280 € gastuak barne. 685-73 27 90

Oñati. Etxebizitza osatzeko pertsona bat edo bi behar dira. Deitu 18:00etatik aurrera. 653 -74 87 51

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garaje itxia ematen da errentan Uarkapen, erosteko aukerarekin. 615-73 98 30 edo 943-24 53 57

Etxarri-aranatz. Garaje partzela alokatzen da plaza aldean. Interesatuok deitu telefono zerbaki hauetara: 652-26 28 18.

204. ERRENTAN HARTU

Elorrio. Furgoneta bat sartzeden garaje baten bila nabil Elorrion, alokatzeko. Interesatuok deitu telefono zerbaki hauetara: 679-66 63 31

3. LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Lokala ematen da errentan San Andres auzoan. Musika taldeek entseatzeko egokia. 690 95 45 47

Iurreta. Pabiloia alogagai Arianandiko industrialdean. 150 m² beheko solairua. 120 m² goiko solairua. Interesatuok deitu telefono zerbaki hauetara: 657-79 45 52.

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Neska behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Deitu 19:00ak eta 20:00ak bitartean 680 55 83 16 telefono zerbakira.

402. ESKAERAK

Aretxabaleta. Eskarmentudun emakumea gertu adinekoak zaintzeko. Egunez zain zain. 943-53 33 92

Arrasate. Asteburuarra. Emakume euskalduna gertu orduka plantxa zein garbiketa lanak egiteko edo ume etanagusiak zaintzeko. 699-54 17 27

Arrasate. Bergara edo Arrasate. Mutila gertu sukaldia laguntzaile, zerbitzari, garbiketa edo nagusiak zaintzen jarduteko. Esperientziaduna eta legezko paperekin. 634-84 41 94 asteburu eta jaiegunetan lan egingo

nuke nagusi eta umeak zaintzen edo garbiketa zein plantxa lanean. Baita astean zehar 18:00etatik 20:00etara bitartean ere. Presazkoa da. Fanny salvatiera. 682-31 97 37

Arrasate. Asteburu eta jaiegunetan lan egingo nuke nagusi eta umeak zaintzen edo garbiketa zein plantxa lanean. Baita astean zehar 18:00etatik 20:00etara bitartean ere. Presazkoa da. Fanny salvatiera. 682-31 97 37

Arrasate. Hemengoeska prest etxeak garbitzeko, umeak zaintzeko eta beste edozein lanetarako; orduka ere bai. Interesatuok deitu telefono zerbaki hauetara: 659-55 27 16

Arrasate. Nagusi eta umeak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Gaez zain egunez. 618-1471 34

Arrasate. Neska euskalduna, haur hezkuntza ikasketak burututakoa, umeak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zerbaki hauetara: 615-76 19 82

Arrasate. Arrasaten, Aretxabaletan edo Bergaran lan egingo nuke arratsaldeetan, pertsona nagusiak zaintzen edo bestelako lanak egiten. Erizain laguntzaile ikasketak egiten nabil. 689-18 04 12

Anoeta. Emakume euskaldun bat naiz, eta arratsalde tolosaldean lan egiteko prest nago. Edozein lan mota egiteko prest nago. Harremanetan jartzeko: 626-71 48 07

Azpeitia. Bi emakume, helduak zaintzeko prest. Geriatriako titulua daukagu. Harremanetarako: 695-74 88 35 eta 647-72 23 36 posta elektronikoa: loreaig83@hotmail.com

Azpeitia. Neska arduratsua, haur hezkuntza teknikari eta begirale tituluduna, arratsaldeetan haurrak zaintzeko eskaintzen da Azpeiti inguruan. Telefonoa: 646-56 49 22

Azpeitia. 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientziaduna bai begirale moduan, zaintzaile moduan. Arratsalde haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. Interesatuok deitu telefono zerbaki hauetara: 606-42 64 14

Bergara. Orduka lan egingo nuke. Geriatria titulua daukat. Esperientziaduna. 650-62 12 94/943-08 22 60

Bergara. Mutil gaztea edozein lanerako gertu. Auto dut. 654 -24 13 27

Bergara. Esperientziadun neska umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono zerbaki hauetara: 665-75 41 32

Bergara. Emakume euskalduna gertu umeak zaintzeko. Haur-tzaintza titulua eta esperientzia daukat. Deitu 688-65 30 62 telefonora eta Arantzazurengatik galdetu.

Bergara. Esperientziadun neska etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko gertu. Interesatuok deitu telefono zerbaki hauetara: 665-75 41 32

Bergara. Bertako neska gertu asteburuetan nagusiak zaintzeko. Interesatuok deitu zerbaki hauetara: 637-18 07 23

Bergara. Garbiketa lanetarako eta pertsona edadetuen zaintza lanak egiteko gertu nago. Interesatuok deitu telefono zerbaki hauetara: 691-03 25 02

Bergara. Neska bergararra gertu etxeko lanak egiteko. Interesatuok deitu zerbaki hauetara: 943-76 28 12

Bergara. Neska bergararra gertu etxeko lanak egiteko. 943 76 28 12

Bergara. Garbiketa lanetarako eta pertsona edadetuen zaintza lanak egiteko gertu nago. 69103 25 02

Bergara. Mutil gaztea edozein lanerako gertu. Auto dut. 654 24 13 27

Bergara. Bertako neska gertu asteburuetan nagusiak zaintzeko. 637 18 07 23

Debagoiena. Emakumea umeak zaindu zein nagusiak zaintzeko gertu, orduka ere bai. 663 65 78 43

Debagoiena. Emakumea gertu sukaldia laguntzaile, etxe etxeko laguntza edo garbiketa lanetarako. 664 50 66 57

Debagoiena. Esperientziadun dendaria euskalduna arropa denda zein bestelakoetan lan egiteko prest. Interesatuok deitu telefono zerbaki hauetara: 650 13 74 93

Debagoiena. Emakume euskaldun bat behar da emakume heldu bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 696-46 03 85

Debagoiena. Neska euskalduna prest pertsona nagusiak zaintzeko. Gainera, klinika laguntzaile titulua daukat. Deitu 646 38 46 81 telefono zerbakira eta Itxasorengatik galdetu.

Debagoiena. Gizona gertu edozein lan egiteko. Interesatuok deitu telefono zerbaki hauetara: 647 06 09 97

Debagoiena. Emakume arduratsua garbiketa lanak eta nagusi edo ume zaintzarako eskaintzen da. Gloria. Deitu 630 26 13 28 edo 943 79 13 88 telefono zerbakira

Debagoiena. Esperientziadun mutila gertu sukaldari, sukaldia laguntzaile, menuak prestatzen eta abar jarduteko. Deitu 666 21 88 95 telefono zerbakira

Debagoiena. Pertsona arduratsua nagusien zaintzarako edota etxeak garbitzeko. 688 80 32 03 edo 943 53 37 00.

Debagoiena. Emakume arduratsua gertu ume eta nagusiak zaindu edo orduka garbiketarako egiteko. Interesatuok deitu zerbaki hauetara. Finkora arratsalde edo gaez deitu, mesedez. 943 71 53 74 edo 695 73 87 95.

Debagoiena. Geriatria laguntzaile titulua duen esperientziadun emakumea gertu nagusi zein umeak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. Lourdes. 652 76 65 06

Debagoiena. Emakumea gertu ile-apaindegian lan egiteko edo garbiketa zein nagusien zaintzararako. 619-23 37 30

Debagoiena. Gizona gertu edozein lan egiteko. 646-27 70 46

Debagoiena. Gizona gertu erakuntzan jarduteko (erakuntza ofiziala naiz) edota garbiketa lanetarako. 639-41 68 38

Debagoiena. Mutila gertu gabonetan edozelako lanetan jarduteko. 654-98 69 14

Debagoiena. Neska gaztea gertu lan hauetarako: zerbitzari (hiru urte eta erdiko esperientzia), garbiketa lanak (etxeak, tariak eta abar) eta ume zaintzaile. 664-37 49 85

Debagoiena. Neska gaztea, lanerako gogo handiz, gertu etxeko lanak egin, ume edo nagusiak zaindu edota bestelako lanetan jarduteko. Ana maria. 943-79 90 21 / 620 -83 59 50

Debagoiena. Emakumea gertu



KAROSTI
INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Masterreka 92 m². 237.399
- Masterreka. 88 m². Igo-gailuarekin.
- Artekale 40 m². Berritua.
- Bolu pasealekua 70 m². Igo-gailuarekin.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Mekolalde 110 m². 90.000
- Osintxu. 84 m². Igo-gailuarekin. 153.258
- Ibargarai 54 m². Garajearekin.
- Lorentxoko 73 m². Eraikitzeko.
- Burdiñate 53 m². Prezio ona.
- Matxiategi 65 m². Igo-gailuarekin.
- Ibarra 47 m². 146.888
- Bolu 96 m². Garajearekin.
- Simon Arrieta 70 m². Prezio ona.
- Zabalotegi 54 m². 154.761
- Aranerreka 80 m². 189.319
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Herri Lagunak 52 m². Prezio ona.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokan, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- GARAJEAK SALGAI Ozaetan. Aukera ona.

Antzuola:

- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.
- Herriko plaza 95 m². Oso etxe ona.

Elgeta:

- **AUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua.
- **PREZIO EZIN HOBEAK:** 249.210 tik hasita.
- **Eraikuntza berriak Torrealdean. 186.805 €tik aurrera.**

Soraluze:

- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.



Deba Garaia
Inmobiliaria

Telefono Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA

- Arrihuri, 97 m², garajearekin.
- Aranerreka, 80 m², oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 m², eguzkitsua. Prezio ona.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Burdiñate, 104 m², oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 m², oso ondo.
- Herrilagunak, 60 m².
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Eloorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Toki Eder plaza, 98 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Artekale, errenta. Prezio onean.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m².
- San Antonio, 65 m², eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m², eraikuntza berria.
- Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubieta, Martokan eta San Lorentzen.
- San Lorentzen aukera ona.
- Basarte. 69 m². Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m². Apartamentua. Oso ondo.
-

tulan egiteko, garbiketa lanetan, sukalde laguntzaile moduan edo pertsona nagusiak zaintzeko. Deitu 645-67 82 24/943-08 11 07 telefono zenbakira.

Debagoiena. Garbiketa lanak zein pertsona nagusien zaintza lanak egiteko gertu nago. Posible balitz bergaran, baina auto propioa daukat bailara osoan mugitzeko. Gilberto da nire izena. 654-24 13 27

Debagoiena. Gazte arduratsuak, paperekin eta gidatzeko balmenarekin lan egingo luke. 677-77 22 31

Debagoiena. Soldatzaile, margolari, mekanikari edo mendietan lan egiteko gertu. 645-67 82 24 943-08 11 07

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko, umeak zaintzeko edo nagusiekin paseatzeko, 13:30etik 19:30era. 677-81 10 00

Debagoiena. 27 urteko mutil gaztea nahiz eta lana bila nabil, edozein motatakoa, sukaldean eta obreran zein margotzen esperientzia handia daukat, baita hortuetan ere. Pare bat ordu badira ere behar bainago. Deitu 689-68 56 81 edo 606-74 42 37 zenbakietara.

Debagoiena. Mutil gaztea gertu auto-edo kamoi-gidari, eta mekanikari lanak egiteko. Beste edozein lan egiteko ere gertu. (Juan) 671-15 97 13

Debagoiena. Neska edozein lan egiteko prest. Deitu 600-81 99 34 telefonora.

Debagoiena. Gizona gertu edozein lan egiteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 647-06 09 97

Debagoiena. Etxeak, lokalak eta lantokiak margotzen dituen 3 urteko esperientziadun mutila naiz. Lan ona, azkarra eta merkea egiten dut, deitu galdezko lasai asko. Paretak, garbitu, masa heman eta margotzen ditut. Deitu 648-68 24 30 edo 648-68 24 30 telefono zenbakietara.

Debagoiena. Emakumea gertu asteburu edo gauean nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Elkarteak ere bai. 699 09 46 26

Debagoiena. Pertsona helduen zaintza lanak eta bestelako garbiketa lanak egiteko gertu nago, baita tabernari edo zerbitzari moduan lan egiteko ere. Auto propioa daukat. Deitu 654 24 13 27 zenbakira.

Debagoiena. Emakume batek garbiketa lanak egin edo nagusiak zainduko lituzke asteburuetan. 699-09 46 26

Debagoiena. Geriatria laguntzaile pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Baita gaixoak ospitalean zaintzeko ere, gauak arne. 08:00etik 15:00etara edo 20:00etik 08:00etara egingo nukela. Mirian. 646-05 58 88 / 943-79 79 49

Debagoiena. Nagusia umeak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest nago. 638-89 98 60

Debagoiena. Neska boliviarrak gertu, nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. Legezko paperak eta esperientzia daukat. 618-14 71 34.

Debagoiena. Emakume arduratsua gertu ume eta nagusiak zaindu edo orduka garbiketarako egiteko. Interesatuok deitu zenbaki hauetara. Finkora arratsalde edo gauz gertu, mesede 943-71 53 74 edo 695-73 87 95 zenbakietara.

Debagoiena. Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzen, etxeak garbitzen zein sukalde laguntzaile lanetan jarduteko. 600-81 99 34

Debagoiena. Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzen, etxeak garbitzen zein sukalde laguntzaile lanetan jarduteko. 661-00 46 55

Debagoiena. Neska gertu ume zein nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetan jarduteko. Etxean bertan bizitzen edo asteburu zein gauak egiteko gertu nago. Erreferentzia onak. 606-72 28 76

Debagoiena. 22 urteko neska gertu etxeak garbitzeko zein pertsona nagusiak zaintzeko. Orduka lan egiteko edo etxean bizitzeko prest. Deitu 648-45 21 93 zenbakira.

Debagoiena. 38 urteko emakumea etxeak garbitzeko edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu, orduka zein etxean bizitzen. Deitu 633-59 23 19 telefono zenbakira.

Debagoiena. Esperientziadun neska umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Rakel. 665-70 37 83

Debagoiena. Emakume arduratsua garbiketa lanak eta nagusi edo ume zaintzarako eskaintzen da. Gloria. 630-26 13 28 / 943-79 13 88

Debagoiena. Geriatria laguntzaile titulua duen esperientziadun emakumea gertu nagusi zein umeak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. Lourdes. Deitu 652 -76 65 06 telefonora.

Debagoiena. Pertsona arduratsua nagusien zaintzarako edota etxeak garbitzeko. 688 -80 32 03 / 943-53 37 00

Debagoiena. Neska euskalduna prest pertsona nagusiak zaintzeko. Gainera, klinika laguntzaile titulua daukat. 646-38 46 81 (Itxaso)

Debagoiena. Emakume gazte esperientziaduna, pertsona nagusiak zaintzeko gertu; Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Oñatin edo Bergaran egingo luke lan. Deitu 679-59 33 65 telefonora

Durango. Lanaldi osoan edo orduka aritzeko lan bila nabil, pertsona nagusien zaintzan edo garbiketaren. Erreferentzia onak. Tel.: 650-61 01 94.

Durango. Asteburuetarako lan bila nabil durangon edo bilbon. Erreferentzia onak. Deitu 699-77 57 21 telefonoz zenbakira.

Durango. Ilea-paintzaile durango eta inguruetan lan egiteko prest. 600-66 64 17

Durango. Masajek etxetz, durangaldean. Etxetik mugitu gabe zure gustuko hantekako igurtziak (hantekako erreflexologia), masaje lasaigarriak zein terapeutikoak emango dizkizut. Sesioa: 10 euro (40 min gutxi gorabehera). Sesioberezia (buru eta aurpegiko masajetxoak barne): 15 euro (ordu bete gutxi gorabehera). Luis mari. 606-26 62 44. Mesedez, aurretiaz deitu (egun bat lehenago, gutxienez)

Durango. Asteburuetarako lan bila nabil, taberna lan egiteko edo beste edozein lanerako. Kotxea daukat. 656-75 05 34

Durango. Garbiketan, ume edo nagusien zaintzan aritzeko lan bila nabil. Goiztan 09:30 -14:00 eta 18:00-21:00. Erreferentziak. 681-21 82 30

Emakume gaztea, esperientziaduna, pertsona nagusiak zaintzeko gertu; Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Oñatin edo Bergaran egingo luke lan. 679 59 33 65

Lezo. Neska euskalduna (EGA) eskaintzen da haurrak zaintzeko, arduratsua eta langilea, aurretik ere haurrak zaintzen lan egina. 667-23 93 72.

Lan egiteko prest. Esperientziadun neska umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Rakel. 665 70 37 83

Zarautz. Gizon euskalduna naiz, lan egiteko prest nago, edozein lanetarako. Deitu 658 -73 08 08 telefonora

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO
Arrasate. Gitarra eskolak jasoko nitzuke Arrasaten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 657-71 74 82

Bergara. Goi mailako sarrera froga egiteko matematika eskola partikularrak emateko prest dagoen pertsona euskalduna behar du. 685 75 91 72

Oñati. 3. DBHko eskola partikularrak jasoko nitzuke. 617-35 63 53

502. EMAN
Arrasate. Neska euskalduna, ekonomian lizentziaduna, eskola partikularrak emateko gertu. 679-97 76 46

Arrasate. Neska gazte euskalduna lehen hezkuntzako ikasleei ikasketetan laguntza emateko prest. 616-32 73 08

Arrasate. Eskola partikularrak ematen dira. Goimailako ingeniari industrialak. Matematika, fisika, kimika, teknologia, marrazketa... Maila guztiak, unibertsitatea barne. 630-71 35 83

Azpeitia. Laguntza behar duten ikasle edo gurasoek dei dezate. 615-79 37 70 telefonora.

Azpeitia. Ega-ko azterketarako zein beste hizkuntza eskakizunetako azterketetarako jendea prestatzen dut. Euskararen irakaskuntzan esperientzia ditut. Euskaltzari irakaslea naiz. Gipuzkoan barrena mugitzeko prest nago. A. H. E. Daukat. 645 -71 85 78

Bergara. Goizez etxera joanda ingeleseko eskolak ematen ditut. Gurasoei zuzendutako eskolak, ohiko maila lortzeko. Pazientzia handia daukat. 679-74 00 61

Bergara. Ingelesko eskola partikularrak ematen ditut. Maila guztiak. Azterketak gertatzeko ere bai. 618-91 32 89

Bergara. Ingelesko eskolak ematen dira, maila guztiak eta azterketen prestaketa. 618-91 32 89

Bergara. Klase partikularrak emango nitzuke. Haur, lehen hezkuntza eta ingeleza. 645-72 01 50

Debagoiena. Ingelesa ikasi gura? eskolako lanekin laguntza behar? zerbait antolatuz behar dozu (ezkontza, bidaia, afaria)? esperientzia daukat eta lagundu neike. Deitu lasai eta daukoton zalantzak argituko dituzut 635-12 87 82 / 943-25 05 79

Debagoiena. Eskola partikularrak. Lehen hezkuntzako irakaslea eskola partikularrak emateko prest. Rakel. 665-70 37 83

Debagoiena. Haur edo gazte txoei ingeleseko eskola partikularrak emateko gertu. Orduetegi malgua. Esperientzia handiko neska. Taldeka nahiz banaka. 15 euro/ordua (banaka). Arrasate edo inguruak. Alemaniera eta eskola laguntza ere eskeintzen da. Deitu konpromezurik gabe! 635-12 87 82

Donostia. Klase partikularrak lehen hezkuntza eta DBHko ikasleentzat. Esperientzia handiko irakaslea, heziketa berezian diplomaduna eta gizarte eta kultur antropologian lizentziaduna. Behar izanez gero, jarri nirekin harremanetan: 628-04 15 26.

Durango. 4. mailako Telekomunikazio Ingenieritzako ikasle euskalduna Batxilergoko eta DBHko klaseak Durangon emateko prest. Espezialitatea matematika klaseetan. 635-74 61 76

Elorrio. Arratsaldetan klase partikularrak ematen ditut. Interes baduzu, deitu 688-64 06 04 telefonora.

Gasteiz. Ingelesko parte-ko eskolak Gasteizko alde zaharrean edo etxean. Zientzietan eta itzulpen gintzan lizentziaduna naiz; dbh-ko, batxilergoko, lanbide heziketako eta eredu hirulekuneko mailak ematen ditut. Harremanetarako deitu 650-80 76 72 telefonora.

Villabona. Ingelesko klaseak ematen dira Gipuzkoa mailan. Taldeko edo bakarka. Maila ezberdinak. Irakasle tituluduna. Telefonoa 664-16 02 68 eta posta elektronikoa continental56@hotmail.com

Zarautz. Euskaraz edozein hizkuntza eskakizun (EGA eta laugarren h. E. Barne) atera nahi duen orori eskola partikularrak emateko prest. Gipuzkoa osoan. Euskaltzari irakaslea naiz, eta A. H. E. Daukat. 645-71 85 78

Zarautz. Lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleei klase partikularrak emateko prest, edozein arlo. Gipuzkoa osoan aritzeko prest. Irakasle moduan esperientzia. Euskaltzari irakaslea. Irakasle titulua eta euskarako laugarren hizkuntza eskakizuna. 645-71 85 78.

6. MOTORRA

601. SALDU
Audi salgai. 285.000 km. 1.950 euro. Egoera onean dago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 686 79 80 30

Opel Vectra. Gts 2.2 dti 16v autoa salgai. 2004koa. 107.000 km. Iat 2012ra arte pasatuta. 6.400 euro. Xabier. 647-51 52 5

Renault Laguna Grand Tour 1.9dci salgai. Grand tour 1.9dci. 130 zp. 2007koa. 88.000 km. Extra guztiak. Egoera oso onean. 10.800 euro. Harremanetarako deitu zenbaki honetara: 652-72 35 83.

Opel Vivaro salgai. Opel Vivaro 1.9. Cdti. Egoera onean dagoen furgoneta salgai. Ohea, mahaia, armairuak eta kortinak. 2005 urtekoa, 115 zaldi, 5 plaza eta 120.000 km. Harremanetarako: 665-73 76 05

VW multivan 2500 tdi salgai. Vw multivan 2500 tdi salgai 15.000 euro negoziagarriak. Telefonoa: 647-91 93 56

VW transporter 2.5 tdi. Motor mekanika ona eta duela gutxi eguneratua; distribuzio korreak, enbrage kit, rotulak, gurpil berriak etab tailerreko lanen eta piezen fakturrekin. Turismo ibilgailu gisa, urteko ibilgailu azterketa egiten zaio. Ekipamendua: atzeko eserlekua ohea egiten da eta banakako eserleku bat hozkailuarekin eta kopilotuarena giraz bueltatzen dena, bigarren bateria, mahaia, leiho tintatuak kordinekin, txirinduak eramateko carry bike euskarria ia berria etab. Aukera ona aisialdirako zein lanerako. 649-98 34 90.

Wolswagen passat bat salgai. Wolswagen passat bat salgai. 190.000 km. Bi-cp. 5.000 euro. Kotxea ikusteko Elorrioko autos besaiden. Telefonoa: 617-35 88 05.

Yamaha jog scooter bat salgai. Yamaha jog motorra salgai. 2.000 km. lata pasatuta. Ezer aldatu barik, dena originala. Beti egon da garajea. Deitu 650-17 22 85 telefonora edo idatziz mezu bat statokaster@gmail.com helbidera.

602. EROSI
Bigarren eskuko kotxea erosiko nuke. Bigarren eskuko kotxe txiki bat bilatzen ari naiz. Deitu 606-76 04 12 telefono zenbakira.

7. ANIMALIAK

701. SALGAI
Artzai txakurra. 8 hilabeteko artzai txakur arra salgai. Uletsua eta polita da. 655713927

Astoa salgai. Urte biko asto arra, etxean jaio eta hazitakoa. Txipa jarrita. Deitu 656-77 29 94 telefono zenbakira.

Bi indioilar ekologiko salgai. 18-20 kilokoak. 200 euro. 669 -41 69 46

Zaldi arabiarrak eta moxal emea salgai. Zaldi arabiarrak eta moxal emea salgai, euren dokumentazioarekin. Interesatuok, deitu zenbaki honetara: 675-70 85 74

703. EMAN
Artzai txakurra. 4 urte dituen artzai txakurra oparitzen da, ezin dugulako zaindu. 615-73 22 89

Cocker zuri-beltza. Cocker zuri-beltza ematen da arrasaten. 5 urtekoa. Emea. Ondo hezitakoa. Oso polita. 637-72 66 73

Hamsterkume erriarrak opari. Hamsterkume erriarrak opari. Etxean jaiok, 2 hilabete besterik ez. Oso ondo zainduta. Deitu 943-79 09 52 edo 600 -77 05 56 zenbakietara.

Katuak Gasteiztik. Katu abandonatuak kale gorririk atera, zaindu eta pertsona arduratsuei bakarrik ematen dizkiegu. Benetan maitagarriak eta ondo hezitak; bizitza eztituko dizute, duda barik. Gasteizen gaude, baina beste lekuetara ere eramatean ditugu. Gure jardura ezagutzeko sartu www.esperanzafelina.com webgunean edo deitu 650-80 76 72 telefono zenbakira.

Txakur oso polita ematen da opari. 11 hilabeteko txakur meztizoa da. Setter gorputzarekin baina golden retrieverren kolorearekin. Oso polita eta maitagarria. Oso obedientea. Oparitzen da ezin dugulako eduki eta pena handiz oparitu behar dugu. Bakarrik ondo zain dezakeen pertsona bati emango diogu. Umeekin egon da beti. 679-23 27 93

704. BESTELAKOAK
Arrasaten katu galduta. Katu zuri-beltza galduta zen zapatuan, urtarilaren 15ean, arrasaten. Begi horiak dauka. Aurkitu edo ikusi baduzu, deitu mesedez. 638-01 46 98

Katu eme txuria galduta da Aramaion. Katu eme txuria galduta da. Ikusi edo aurkitu baduzu mesedez deitu telefono hauetara. Eskerrikasko. 699-40 73 35669-15 36 58

Setterra galduta bergaran. Goiko estazio inguruan, azaroaren 20ko eta 21eko asteburuan. Setter ingeleza, arra, zuri-beltza. Aurkitu edo ikusi baduzu, deitu, mesedez, zenbaki honetara: 688-62 84 25

8. DENETARIK

801. SALDU
Bizikletarako kaskoa. Giro "Encinal Sport" modeloa. Estreinatzeke. Gorria eta beltza. Eguzkitako biserarekin. Erosoa, arina, doigarria. Dendan 71 euro balio du eta nik 55 euroan saltzen dut. 639 29 40 11

Egongelako altzariak. Estilo klasiko-rustikoa. Armairua, ontzitegia eta erdiko mahaitxoak. Egoera oso onean. Debagoienan. Interesatuok deitu zenbaki honetara eta galdetu Anegatik. 653 70 45 47

Haurrentzako aukia. Haur aukia salgai, 3 gorpulekoa. Grupo O, kapazoa eta aukia. Zakuak, sombrilla eta aterkia jartzekoak. Opari bezela troma eta mahaian jartzeko aukia. 686 11 67 02

Kafe makina. Nespresso kafe makina. "Essenza Delonghi automatica" modeloa. Beltza eta zilar kolorekoa. Berria. Abendura arteko bermearekin. Dendan 149 euro balio du eta nik 90 euroan saltzen dut. Deitu 639 29 40 11 zenbakira.

Marrakzi mahai bat. Plano edota marrazkiak egiteko mahaia. Aparejadore edo arquitektoarentzako modukoa. Plegatu egiten da eta zutik jartzen da. 686 11 67 02

MP3a. Samsung YP-Q2 JAB. Erabili gabea. Beltza. Bermea indarrean. 50 euro. Deitu 639 29 40 11 telefonora.

Ordenagailua eta Home Cinema. Packard Bell ordenagailua eta Home Cinema, Philips etxeak, salgai. Deitu 943 79 60 89 zenbakira.

Ordenadore pantaila. Samsung 75E, 17", egoera onean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 680 61 96 99

Reflex Digitala. Hiru urte eta erdiko argazki kamera digitala (Nikon D80 10Mpix) eta objektiboa (Nikor 18-200VR) salgai egoera onean. 375+400 euro. Arrazoiak: formatu aldaketa. 679 90 79 97

804. HARTU
Sofak hartuko genituzke doan. Arrasateko Gazte Txokoek botatzeko dituzuen sofak hartuko genituzke zuen etxean. Botatzeko badituzu deitu 688 68 49 44 zenbakira.

Besaulki txukun bat kentzeko moduan bazaude, mesedez abisatu eta gustura hartuko nuke. 618 80 09 32.

806. GALDU
Argazki kamara galduta da Aretxabaletan. Beltza, fujifilm etxeak, funda eta guzti. Aurkitu baduzu, deitu zenbaki honetara mesedez. Eskerrikasko. 639-99 33 34

Betaurrekoak Donostian. Graduatuak betaurrekoak bere kutxatilan eta zorrotxo bat «pen drive» batekin galduta ditut donostian azaroak 4 ean. Aurkitu badituzu, deitu mesedez. 679 -804641

Nikon argazki kamara Etxarri. Nikon argazki makina beltza galduta zen urtarilaren 15ean Etxarri Aranatzan, xapatero tabernaren inguruan. Opatu duenak hots egin dezala 678-30 11 36 telefonora.

Ume baten baserritar jantzia. Joan den ostegunean, hilak 13, urtebete neskatilaren baserritar jantzia galduta guren lurturiz kaletik Sebero Altube bitartean. Norbaitek aurkitu badu, dei dezala 605775378 telefonora. Eskerrikasko.

Arrasate. WESC markadun beroki beltza galduta nuen abenduaren 31n Arrasateko Ekaitz tabernan. Aurkitu duenak eraman dezala, mesedez Ekaitz tabernara.

807. AURKITU
Giltzak aurkitu Berriainen. Berriainen, Uharte Arakilidiki igota, bi giltza aurkitu dira. Telefonoa: 650-50 71 94.

Giltzak Etxarri Aranatzan. 2 giltza opatu dituzte Etxarri-Aranatzan. C.D. Lagun artealaguntza giltzarria dauka. Galduta dituenak Belexe irratian jaso ditzala.

9. HARREMANAK

901. HARREMANAK
Donostia Alde Zaharreko Joaldunak. Zuk ere joaldun izan nahi duzu? Etorri gure entsaietara eta proba egin! Edo zure herriko jaioedokuzinetan gu hanteko nahi baduzu ere bai. alde zaharreko joaldunak@gmail.com

Lagun bila nabil Zarautz Zumaia inguruko kirola, arrantzan, mendira joan eta berrabuzteko... 699-14 03 85.

Gasteizera eguneroko Debagoienetik. Eguneroko gasteizera autoan joaten naiz. 09:00etan gasteizen egoten naiz, eta 13:00etan bueltatzen naiz. Joateko bakarrik, edo bueltatzeko aukera. 690-19 82 79.

Sarriguren - Komarka II. Autorik gabeko mutil bat naiz. Sarriguren - Komarka II industria ibilbidea egin beharko nuke lan-egunetan, autoz. 08:30 aldera atera / 17:30ean bueltatu. Gastuak partekatuko. 670-96 96 56 - Alfonso

Zarautz lanegunetan. Toloaldetik edota Goieritik Zarautza autoz joateko jende bila. Irten, 7etatik 8etara arte; handik, bueltan, 15etatik 16etara. 688 -60 67 15.

Gitarrista. La madriguera (rock-urbano) taldea gara, eta gitarrista serio baten bila gabiltza. Behar dugun gitarrista denbora izan behar du entseu eta kontzertuak emateko. Harremanetarako: www.myspace.com/losmadriguera edo deitu zenbaki hauetara: 680-48 94 38 (Andoni), 646 -61 63 29 (Juantxu).

ARAMBURU Etxeen administrazioa Higiezinaren kudeaketa
943-65 17 13 / 664-37 25 60
www.aranburunet.net

SALGAI

- **Etxebizitza.** Amazabal kalean, igogailuarekin, Leitzan, Nafarroa.
- **Lokala.** Foruen kalean, Tolosan.
- **Garaje itxiak eta irekiak.** Tolosa, Ibarra eta Iruran.

ALOKATZEKO

- **Etxeak.** San Frantzisko kalean, Paper kalean, Herreros kalean eta Agintari kalean, Tolosan.
- **Garajeak.** Larramendin, Tolosan.
- **Txokoa.** Tximinia, komuna, ohe bikoitza, ordezko ohea eta terraza, Baraibarren.
- **Lokala lurre auzoan,** Tolosan.

www.inmosalbide.com

SALBIDE
Higiezinaren zerbitzuak

Aia. Eraikuntza berria. 3 logela, 2 bainugela eta 127 m²ko terraza. 46.588.000 pezeta.

Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 28.500.000 pezeta.

Getaria. Herrerieta kalean. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Trastelekuarekin. Egoera onean. 41.000.000 pezeta.

Zarautz. Landako plaza. 2 logela eta bainugela bat. Guztiz berritua. 45.000.000 pezeta.

Zarautz. Vista Alegren. 3 logela, bainugela eta aseoa. Terraza handia hegoaldera. Bista ederrak. 50.000.000 pezeta.

Zestoa. Erdialdean. Etxe bifamiliar batean, 3 logelako etxebizitza. 31.000.000 pezeta

'Sinde' legea onartuta, eskubideen gatazka gera daiteke orain auzitan

'Sinde' legea onartu egingo dute otsailean, Senatuan PSOEk PP eta CiUrekin hitzarmena lortu eta gero.

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Emendakin berri bati esker egingo du aurrera legeak, azkenean. Testu berrian, epailea prozesuaren lehen fasean sartzen da, baina funtsezko bestelako aldaketa gutxi dago, Gonzalez-Sinde ministroak berak baieztatu baitu "azaleko erreforma" dela. Urraketa egiten duten loturak ezabatzeko epea ere laburtu egin dute: 48 ordukoa izango da.

Kontuak kontu, aurreko bertsioan bezala, lege berriak Kultura Ministerioaren mendeko den batzorde bati ahalmena ematen dio euren irizpideen arabera egile eskubideak urratzen dituen webgune bat itxiarazteko, betiere, administrazioarekiko auzietako epaitegi baten baimena tarteko. Behin baimena jaso eta webgunearen kudeatzaileak ohartarazita, haiek 48 orduko epea izango dute lotura horiek borondatez ezabatu edo alegazioak aurkezteko. Estekak ez badira erretiratzeko, hiru eguneko epean argitaratuko da epaia.

Eskubideen arteko talka

Eta hona hemen eskubideen arteko gatazkaren dantza: egilearen jabetza eskubideak, batetik, eta adierazpen askatasuna, intimi-



Angeles Gonzalez-Sinde ministroa, erdian. | ELENA CABRERA CC (FLICKER.COM)

tatea eta segurtasun juridikoa, bestetik. Interesen dantza ere, beraz, Ainhoa Larrañaga Huheziko Jabetza Intelektualeko irakaslearen ustetan "argi" baitago "egile eskubideen defentsaren izenean interes ekonomikoak" dabilzala "babesten zenbait eskubide zanpatuta".

Bermeei dagokienez, askoren ustez, ezinbestean, gatazkan sakontzea ekiditen zaio epaileari eta, politikaz harago, "ikus-entzunezko enpresen lobby-aren eragina nabaria izan" dela dio lizentzia librean musika zabaltzen duen

Musikherria egitasmoko kide Gorka Txamorrok, eta "azkenean, kosta ahala kosta, aurrera egin" duela legeak; interesa negoziatzen duela ere, auzi-jartzaileak frogak aurkeztu beharko ditu eta demandatuak ere aurkeztu beharko ditu. Ondoren, bost eguneko epean jakinaraziko dituzte aurkezturiko frogen ondorioak eta Jabetza Intelektualaren Batzordeak hiru egunetan atera beharko du erresoluzioa. Azkenik, erresoluzioa epaileari aurkeztuko diote eta hark baimenduko du edo ez. Epaileak ez du parte hartzen erruduntasuna argitzeko prozesuan; erresoluzioa berrestea edo ukatzea da haren lana.

Bi gatazka, baina lege bakarra

"Teknologiak aurrera egin ahala legea zaharkituta geratu delako" gertatu da hau guztia, Ainhoa Larrañagaren ustez, baina irakasleak argi eta garbi banatzen ditu bi debateak: "Gauza bat da egile batek bere obratik bizi izateko eskubidea bermatu ahal izatea eta bestea egile eskubideen

Asko jota, 17 egun iraungo du prozesuak

Jabetza Intelektualaren Batzordeak parte har dezan salaketa bat jaso behar dute (partikularrena, sortzaileena zein ordezkariena). Batzordeari iruditzen bazaio urraketa egon dela, webgunearen arduradunak 48 orduko epea izango du eduki horietarako loturak ezabatzeko. Esteka horiek ez badira erretiratzeko bi eguneko epean, auzi-jartzaileak frogak aurkeztu beharko ditu eta demandatuak ere aurkeztu beharko ditu. Ondoren, bost eguneko epean jakinaraziko dituzte aurkezturiko frogen ondorioak eta Jabetza Intelektualaren Batzordeak hiru egunetan atera beharko du erresoluzioa. Azkenik, erresoluzioa epaileari aurkeztuko diote eta hark baimenduko du edo ez. Epaileak ez du parte hartzen erruduntasuna argitzeko prozesuan; erresoluzioa berrestea edo ukatzea da haren lana.

izenean beste eskubide batzuk urratzeko bidea zabaltzea".

Lizentzia libreak

Gatazka horretan bestelako alternatibarik eskaintzen duenik ere badago; lizentzia libreena, kasu. Hain zuzen, Arkaitz Zubiaga informatikako ingeniariarentzat horixe da ihes egiteko era bakarra. Zubiagak dio "artista txiki bati oso ondo" datorkiola "lizentzia librearekin publikatzea, ze horrek oso zabalkunde erraza ekarriko baitio. Kontua da artista handiek ez dutela hori nahi eta euren asmo bakarra dela saltzea, saltzea eta saltzea, besterik ez".

5 urtera arteko umeak ordenagailuan hobeto bizikletan baino

J.B. | ARRASATE

Antza, 2 eta 5 urte arteko bost haurretatik bat abilagoa da *smartphone* bateko aplikazioak erabiltzen zapatetako kordelak lotzen baino. Umeen %19 dira gauza telefono adimentsu baten ibiltzeko, baina %9 bakarrik dira gauza zapaten korapiloa ganoz lotzeko. AVG segurtasun enpresak urtero egiten duen inkestatik dator datu bitxi hori, Ameriketako Estatu Batuetan, Kanadan, Frantzia, Italian, Alemanian, Espainian, Japonian, Australian, Zeelanda Berrian eta Erresuma Batuan Internetez 2.200 amari galdetuta. Eta ez kordelekin bakarrik, haurren erdiak errazago erabiltzen du ordenagailu-joko simple bat bizikleta baino eta lau haurretatik batek erraz ireki dezake web nabigatzaile bat, baina zailtasunak ditu laguntza barik igeri egiteko. Abilezia tradizionalak abilezia digital berrien aurrean ere atzera doaz, antza.

Youtube zerbitzua ematen hasi da katalanez

Youtuben aukera daitezkeen 30 hizkuntzen artean dago aurreko astea ezker katalana. Sinadura bilketa baten ostean lortu dute erabiltzaileek bertsio katalana, gainera. Youtubeko arduradunak konbentzitzeko kanpainan erabili duten argudio nagusietako bat izan da katalanak 12 milioi hiztun dituela eta Google-eko bideo bilaketa arrunt baten 269.000 bideo aurki daitezkeela katalanez edo hiztun katalanek igotakoak.

Gmail-en iragarkiak sartzen hasi dira

Eguen goizean hasi ziren Google-ekoak euren posta zerbitzuan, Gmail-en, iragarkiak txertatzeko lehen probak egiten. Hain zuzen, Google-ek iaz *The Google Display Network* delako sarea sortu zuen konpainiak eskaintzen dituen zerbitzu eta webguneetan publizitatea sartzeko (tartean, Youtube, Google Maps eta Blogger zerbitzu ezagunak daude). Horrekin, konpainia osoak iragarkiekin gaur egun jada irabazten dituen 20 bilioi dolarrek bikoiztu ala lau-koiztu egin gurako litzukete. Gainera, publizitate oso pertsonalizatua eta erakargarria eskaintzea da Google-en asmoa, oso iragarki zehatzak sartzeko helburuarekin.

ESANAK

"Kulturaren erabateko pribatizazioa bilatzen da"

GORKA TXAMORRO | MUSIKHERRIA

"Beste eskubide batzuk urratzeko bidea zabaltzen da lege honekin"

AINHOA LARRAÑAGA | IRAKASLEA

"Diru gehien duten artistek are gehiago irabaziko dute"

ARKAITZ ZUBIAGA | INGENIARIA

Ordenagailu aurrean ezer egin barik egoteko gai?

Gai zara ordenagailu parean bi minutuz ezer egin barik egoteko? Dirudiena baino askoz ere gaitzagoa da webgune horrek dakarren erronka, eta, minutu pare batez bada ere, gure burua erlaxatzea bilatzen duena. Arreta-defizit nahastea uste baino zabaldago dagoen gaitza da eta webgune honek nork bere buruari frogatzen dio gaitasun hori erakusteko.



Deskargen webguneak filtratzen hasi da Google bilaketetan

Bilaketak egitean automatikoki ematen dituen iradokizunetatik kendu egin ditu Google-ek Megaupload, Rapidshare eta BitTorrent webguneetako emaitzak bilatzailetatik. Abenduan plazaratu zuen asmoa konpainiak eta egubakoitzean hasi zen filtroa lanean. Filtro horrek berdin-berdin eragiten die eduki partikularrei zein hirugarren baten edukiei loturak eskaintzen dituzten emaitzei. Hala ere, iradokizunetatik bai, baina gisa horretako webguneetarako emaitzak ez dituzte kenduko ohiko bilaketaren emaitzen zerrendatik.

TELE-BEGI

AMAIA PAVON
'twitter.com/
amaiapavon'



Inoiz ez delako berandu

Laurogeita hamargarren hamarkadan izan zen. Telebista kateen ugaritzeak eragin zuen lehia mediatikoa, eta telebistek 24 ordura hedatu behar izan zuten programazio taula. Garai hartan sortu zen birziklatzearen kultura telebistan, erabilitako irudiak hartu, berrantolatu eta programazio taularen beste zatitxo bat betetzen zen, era merkean eta umore kutsuan gehienetan.

Orain bi aste izan da. Ikus-entzunezko digitalizazioak eragin duen testu inguru berriaz baliatuta, idatzizko hedabide bat telebista egiten hasi da Internet bidez. Birziklatzearen kulturaz baliatuta, ausart heldu dio *Argia*-k ikus-entzunezko eremuari, informazioaren beste ikuspegi bat eskaintzeko asteroko saioan. Hamar minutuan batu ditu albisteen errepaso, elkarriketa, lehiaketa eta erreportajea, estilo fresko eta dinamikoan. Gaurkotasuna bat-batean iraungitzen den garai honetan, *Argia*-k jakin du nola berrasmatu eta eskaini ikus-entzunezko albistegia.

Inoiz ez delako berandu, euskaraz ere behar genuelako barre egitea informazioaz.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 31



Kutxen nazionalizazioa

19:45

Lander Beloki Enpresagintzako dekanoa izango da ekonomia tartean, kutxen nazionalizazioari buruz hitz egiten.

13:15 Marrazki bizidunak

13:45 Kantari

14:15 Berbetan

14:45 Berriak

15:15 San Sebastianak

Azpeitian

16:00 Ikusmira

16:15 Gipuzkoa kultura

16:45 Berriak

17:10 Marrazki bizidunak

17:45 Antzerki topaketak

18:15 Marrazki bizidunak

18:45 Berriak

19:15 Kantari

19:45 Goiena Magazinea

20:45 Harmailatik

21:30 Goiena Magazinea

22:30 Harmailatik

23:15 Gipuzkoa kultura

23:45 Goiena Magazinea

MARTITZENA, 1



Elkarriketa 'Magazinea'-n

19:45

Jose Ramon Guridi Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko foru diputatuarekin elkarriketa izango dugu.

13:15 Marrazki bizidunak

13:45 Kantari

14:15 Onein

14:45 Berriak

15:15 Harmailatik

16:00 Kulturzulo

16:15 28. Klip

16:45 Berriak

17:15 Marrazki bizidunak

17:45 Harmailatik

18:15 Marrazki bizidunak

18:45 Berriak

19:15 Kantari

19:45 Goiena Magazinea

20:45 Danbaka

21:30 Goiena Magazinea

22:30 Iragana gogoratuz

23:00 Goiena Magazinea

EGUAZTENA, 2



Notei buruzko solasaldia

20:45

Larraitz Zeberio aurkeztuta, *Tertulia* saioa eskainiko dugu eta seme-alaben notak izango dira hizpide, besteak beste.

13:15 Marrazki bizidunak

13:35 Kantari

14:00 Harmailatik

14:45 Berriak

15:15 Onein

15:45 Bi tartean

16:30 Leku txiki bat

16:45 Berriak

17:10 Marrazki bizidunak

17:30 28. Klip

18:30 Marrazki bizidunak

18:45 Berriak

19:15 Kantari

19:45 Goiena Magazinea

20:45 Tertulia

21:45 Goiena Magazinea

23:15 Tertulia

EGUENA, 3



Herri Musikaren Txokoa

22:15

Herri musikaren inguruko topaleku eta dokumentazio zentroa ezagutuko dugu, besteak beste, *Gipuzkoa Kultura* saioan.

13:15 Marrazki bizidunak

13:45 Kantari

14:15 Onein

14:45 Berriak

15:15 Nire Herria

15:45 Bi tartean

16:30 Ikusmira

16:45 Berriak

17:15 Marrazki bizidunak

17:45 Ipupomamua

18:15 Marrazki bizidunak

18:45 Berriak

19:15 Kantari

19:45 Goiena Magazinea

20:45 Iragana gogoratuz

21:15 Goiena Magazinea

22:15 Gipuzkoa kultura

22:45 Danbaka

23:30 Goiena Magazinea

EGUBAKOITZA, 4



Zuzeneko kontzertuak

22:15

Danbakan parte hartutako Desprezioen eta Atom Rhumba talde gonbidatuaren kontzertuak ikusgai izango ditugu.

13:15 Marrazki bizidunak

13:45 Kantari

14:15 Onein

14:45 Berriak

15:15 Ur eta lur

15:45 Kulturzulo

16:00 Leku txiki bat

16:10 Danbaka

16:45 Berriak

17:15 Marrazki bizidunak

15:45 Gipuzkoa kultura

18:15 Ipupomamua

18:45 Berriak

19:15 Kantari

19:45 Goiena Magazinea

20:45 Gipuzkoa kultura

21:15 Goiena Magazinea

22:15 Danbaka

23:45 Goiena Magazinea

ARRASATE IRRATIA

Kooltur Ostegunetarako sarrerak zozketatuko ditugu

Iparraldeko Willis Drummond talde indartsuak *Istanteak* izeneko hirugarren diskoa aurkeztuko du eguenean Arrasateko gaztetxean. Bertara joateko sarrerak eskuratzeko, hartu parte zozketan. Bi bide dituzue horretarako: idatzi irratia@goiena.com helbidera edo deitu 943 25 05 05era.

Albistegien errepikapenak entzuteko aukera

Arrasate Irratiko albisteak zuzeneko irratsaioan ez ezik, orduro entzun ahal izango dituzu goizetan. 10:30ean hasten da *Igo autobusera* irratsaioa albistegiarekin, eta albiste horiek Euskadi Irratiko albistegiaren aurretik entzun ahal dira 107.7an 13:00ak bitartean.

Jokin Zaitegi beka eskuratu duen Santi Leonekin elkarriketa

Jokin Zaitegi beka eskuratu duen Santi Leonekin eginda daukagu hitzordua gaurko, astelehena. Horrez gain, zuhaitz landatzeen inguruan ere jardungo dugu, eta baita, astelehenero bezala, kirol emaitzen gainean ere. Hori guztia eta gehiago 107.7an izango da gaur, 10:30ean hasita.

TELE-ALBISTEAK

Danbakako aurreko edizioetako irabazleen kontzertuak ikusgai

Baita aurreko edizioetako finaletan izan diren talde gonbidatuen kontzertuen zuzenekoak ere

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Aurtengo Danbaka bukatuta, aurreko hiru edizioek emandako onena jasoko dugu Goiena telebistan.

Horretarako, hiru edizioetako talde irabazleen kontzertuak eta talde gonbidatuen zuzenekoak eskainiko ditugu.

Hirugarren edizioa

Hirugarren edizioeko talde irabazlea The Wet Band talde mutrikuarra izan zen. Rocka lantzen du laukoteak eta euskarazko eta ingelesezko abestiekin gozatu

ahal izango da telebistan euren ikuskizunarekin.

Mutrikuarren kontzertuarekin ekingo diogu Danbakako errepasoari, beraz, eta hori martitzenean izango da, 20:45ean.

Edizio hartako gonbidatua Petti izan zen, eta Espaloian eskaini zuen zuzeneko emitituko dugu. Pettik musikarekin lehenengo harremana Noise Hole taldean izan zuen, 16 urterekin. Eta ordutik hona hainbat lan kaleratu eta kontzertu ugari eskaini ditu Berako abeslari eta gitarra-jotzaile euskaldunak.



The Wet Band, hirugarren edizioeko talde irabazlea, Espaloian. | GOIENA

Sharon Stoner, Aby-Kem, The Wet Band: irabazleen emanaldiak

Split 77, Kerobia eta Petti izan dira talde gonbidatuak; euren zuzenekoak ikusgai

Bigarren edizioa

Bigarrenean, Aby-Kem Bergarako taldea izan zen Danbakako garailea. Bost mutilek osatzen dute taldea eta lantzen duten musika estiloa hardcorea eta metala da; euskarazko abestiak dituzte.

Urte hartako talde gonbidatua, berriz, Kerobia izan zen. Espaloia jendez lepo bete zuen Iruñeko taldeak, gainera. 2001. urte bukaeran sortu zen taldea eta boskoteak kaleratu duen azken lana 2010eko *Ontziak* da.

Lehenengo edizioa

Danbaka irabazi zuen lehenengo taldea Sharon Stoner izan zen. Oñatiko hirukoteak lehiaketa irabazi ostean grabatu zuen lehenengo lan luzea: *3.000 bira*. Azkena Rock Festivalen jotzeko aukera izan zuten, gainera, 2006an.

Edizio hartan, Split 77 taldea izan zen gonbidatua eta euren musikaz gozatzeko aukera ere izango da Goiena telebistan. Emanaldiak martitzen eta eguenean eskainiko ditugu.

ZORION AGURRAK



OÑATI
Ainhoa Aranburu
Otsailaren 6an, urtebetetzea. Zorionak, *morenaza!* Belarri tirakada mordua kuadrilakuen partetik. Inauguraziñua noizko? Ondo pasatu!



ARRASATE
Elene Loiti Montero
Otsailaren 5ean, 4 urte. Zorionak, Elene: Urtebetetzerako pastela egiteko momentua iritsi da, jantzi amantala eta goxo-goxua egingo dugu! Milaka patxo potolo eta kilo zorion etxeko partetik.



BERGARA
Hodei Murgizu Rodriguez
Otsailaren 5ean, 6 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu potolo bat etxeko eta bereziki Iraia eta Unaxen partetik.



ARRASATE
Garazi Prieto Goñi
Otsailaren 4an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Familia eta lagun partetik.



OÑATI
Ane Osinaga Osinaga
Otsailaren 4an, urtebete. Zorionak, potxola. Besarkada eta muxu handi bat etxeko partetik.



ARRASATE
Txomin Frutos Urbesalgo
Otsailaren 4an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! 8 urte ia gure mutikua! Ondo ospatu eta patxo pila etxeko partetik.



BERGARA
Irati Mujika Domenech
Otsailaren 4an, hiru urte. Zorionak, Irati, eta muxu pila bat gure neskatila politxari, amatxo, aitaxo, Eki, Fito, Sintxan, tia Sorgi eta etxeko danen partetik.



ARETXABALETA
Ainara Zugasti Santamaria
Otsailaren 4an, 9 urte. Zorionak, potxola! Muxu handi bat etxeko guztion eta, bereziki, Maren, Uxue eta Egoitzen partetik.



ARRASATE
Iraia Isasi
Otsailaren 3an, 2 urte. Zorionak, pitxin, etxeko guztion partetik!



ARAMAIO
Lur Ezpeleta
Otsailaren 3an, 7 urte. Zorionak, politxoi! Txokolatzeko mila musu. Aitaxo eta amatxo. Muak!



ARRASATE
Anartz Eraña Garzia
Otsailaren 3an, 8 urte. Zorionak, potxola! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzi. Muxu handi bat denon partetik eta batez be Jonen aldetik.



ARETXABALETA
Anje Arriola Serrato
Urtarrilaren 28an, 3 urte. Zorionak, mutikote!! Patxo handi bat Laia eta etxeko danen partetik! Mua!!



BERGARA
Malen Garitano Muñoz
Otsailaren 1ean, 6 urte beteko ditu Malenek. Zorionak etxeko danen partetik!




OÑATI
Ane Atorrasagasti
Otsailaren 2an, urtetxo bat. Zorionak, printzesa! Aitaxo, amatxo eta Maddiren partetik patxo asko.



ESKORIATZA
Florencia Gallego
Otsailaren 1ean, urtebetetzea. Senarraren, semearen eta iloben partetik zorionak. Egun ona pasatu.



ARRASATE
Javier Sandoval
Otsailaren 1ean, 40 urte. Zorionak "Sando" mendizale! Oraingoan nolako mendi-gailurra igo behar duzun, 40 urtetxoak! Eder to pasatu eguna, mutil, laguntxo guztien partetik. Muxu potoloak, guapo!



BERGARA
Xabier Etxaniz
Urtarrilaren 31n, 38 urte. Zorionak, Xabi, eta ea Realak pozak ematen dizkizun. Bergarako Realzaleak.



BERGARA
June Igartua Gimber
Urtarrilaren 31n, urtebetetzea. Zorionak etxeko partetik



URRETXU
Itziar Zabaleta Artolazabal
Urtarrilaren 31n, 5 urte. Zorionak eta muxu ugari gure etxeko *spiderman* bereziari. Tio, tia, Edurne eta bereziki Markelen partetik.



ARRASATE
Nahia Garro Arana
Urtarrilaren 31n, 3 urte. Zorionak, sorgintxo. Patxo handi bat etxeko guztien partetik.



OÑATI
Maren Irazabal Plazaola
Urtarrilaren 31n, 6 urte. Zorionak eta marrubizko muxu pila bat familia guztiaren eta, bereziki, Garaziren partetik.



ARRASATE
Ane Barrenetxea Garzia
Urtarrilaren 30ean, 4 urte. Zorionak, politx hori! Patxo handi bat aitaxo amatxo eta Jonen partetik.



ARETXABALETA
Malen Gastañaga Zugasti
Urtarrilaren 30ean, 8 urte. Zorionak, politxoi! Arientzako txikixena be handi... Ondo zaindu laguntxo berrira, eh? Elegante pasatu gauen zure egunien. Mila kilo muxu: June, Ekaitz, Julen, Nagore, Jokin eta Lander.



ARETXABALETA
Ane Dacosta
Urtarrilaren 30ean, 9 urte. Zorionak Ane! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Prentsa tailerrekoen partetik.



ARRASATE
Jon Ayesa Ibaibarriaga
Urtarrilaren 30ean, urtebetetzea. Zorionak etxeko guztion partetik. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta mila muxu.



OÑATI
Begonia Idigoras Errarte
Urtarrilaren 29an, 59 urte. Zorionak eta urte askotarako, amama! Etxeko danen eta bereziki Unax, Uxue eta Elaiaren partetik, mila kilo zorion eta muxu!



ESKORIATZA
Maddi Gabilondo
Urtarrilaren 29an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Muxu handi bat familixako partetik eta ondo pasatu zure eguna!



ARETXABALETA
Arantxa Gomez
Urtarrilaren 28an, 49 urte. Zorionak, ama! Urte askotarako etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Ainere Caballero Altube
Urtarrilaren 27an, 5 urte. Zorionak, poxpolin. Primeran pasatu zure urtebetetze eguna familia eta lagunekin. Muxu gozo-gozoak zuretzat amatxo eta aitaxoren partetik.



OÑATI
Izar Bikuña Malbadi
Urtarrilaren 27an, 7 urte. Zorionak, printzesa! 7 urterekin, jaso 7 muxu, 7 opari eta 7 belarri tirakada. Maite zaitugun denon partetik.



DEBAGOIENA
Uxue Erdozia Betelu
Urtarrilaren 26an, 6 urte. Zorionak, pitxurri! Oso ondo pasatu zure eguna eta muxu handi-handi bat etxeko partetik. Aitaxo, amatxo eta Unax.



ARRASATE
Txaber Urgoitia Agirre
Urtarrilaren 24an, 3 urte. Zorionak, pototo! 3 urte, mutil handi! Muxu handi-handia zuretzako etxeko guztien partetik!



BERGARA
Irene Valle Gallastegui
Urtarrilaren 22an. Zorionak, printzesa, eta urte askotarako etxeko guztien partetik. Muxu pila.



ARETXABALETA
Arian Lopez
Urtarrilaren 11n, 10 urte. Zorionak, polit hori, asko maite zaituen Ainararen partetik. Muxuak!

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak.

Internet

Sar zaitetz goiena.net atariko Zorion agurren tartean. Aukeratu zein herritan gehitu nahi duzun eta eskatzen diren datuak bete.

Posta elektronikoa

Mezu bat bidali zorionagurra@goiena.com helbidera, adieraziz: izen abizenak, herria eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak


Etor zaitetz GOIENAKO ordezkari bat.

GOIENAN ESKELA JARTZEKO
DEITU EGUEN EGUERDIA BAINO LEHEN: 943 25 05 05. EDO ZATOZ ORDEZKARITZA BATERA.



Eskelaren prezioa: 126 euro. Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 168 euro.
 Goiena: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.

ESKER ONA



Andres Agiriano Zubia



2011ko urtarrilaren 29an hil zen, 104 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Eskoriatzan, Bolibar auzoko Karoi baserrian, 2011ko urtarrilaren 31n.

JAIOTAKOAK



Eñaut San Sebastian Aranburu

Antzuola 3,990 kilo. Urtarrilaren 21a. Gurasoak: Aintzine eta Xabier. Argazkian, umea amarekin.



Haitz Erostarbe Beristain

Elgeta 3,000 kilo. Urtarrilaren 22a. Gurasoak: Leire eta Oxel. Argazkian, Haitz sehaskan



Alain Astondoa Serrano

Antzuola 2,970 kilo. Urtarrilaren 28a. Gurasoak: Ana eta Gotzon. Argazkian, Alain aitona Salvarekin.



Aiur Moreno Zubia

Oñati 3,170 kilo. Urtarrilaren 26a. Gurasoak: Oihana eta Pedro. Argazkian, umea sehaskan



Aitor Olivenza Fernandez

Eskoriatza 2,180 kilo. Urtarrilaren 25a. Gurasoak: Ana Belen eta Unai. Argazkian, Aitor amarekin.

BABESLEA



IKUSI MAKUSI


Umeen paradisua



Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	* Peruko hiriburua	Goru	Sortu
Libiako	Beltzago egin	Aditzaren era, adizkia	
100 urteko epe			
Han eta hemen			
Masaila	Behatoki		
Musean	Fruitu mota		
	... egin, ziztatu		
	Euri xuri		
Hesola		Errep., txori mota	
Sobera begiratzeko du		Tente	
			(Zah.) Txakur
Aintzira		Behiaren arbaso	
Harareko		Bokala	


BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

R	A	T	E	R	A	R	H
O	R	U	P	U	K	L	V
E	Z	U	L	I	G	E	B
U	K	T	E	T	A	V	P
T	Z	I	Z	O	S	A	P
V	A	L	V	L	T	A	M
E	N	D	E	M	L	L	L
R	A	R	I	B	I	L	L
K	L	L	L	L	L	L	L



'Ezabatu' tekla ez dabilenean...


Araza: ordenagailuan idatzitakoa kendu egin gura dugu, baina ez dabil Ezabatu tekla. Konponbidea: antzinako tekniketara jotzea.
www.sarda.es



'Ez balitz Internet existituko, ez litzateke nazioarteko terrorismo egongo'

ALFREDO P. RUBALCABA | BARNE MINISTROA

Segurtasunaren inguruan egin dako hitzaldi baten bota du esaldi hori Rubalcabak. *Sinde* legea eta *Wikileaks* auzia puri-purian dauden honetan, sarearen kontrako iritziak sortzeko asmoz akaso? Eskerrak Interneti gauza onak ere onartu zizkion...
www.20minutos.es



Max. 7°

Min. 2°

Atertu eta argitzera egingo du. Iparraldeko haize ahula ibiliko da.
euskalmet.net

goiena

2011-01-31

HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

Aizpea Goenaga Aktorea; idazlea; antzerki, zinema eta telebistako zuzendaria... Goenagaren curriculumak lerro eta lanbide asko ditu. Azkena? Etxepare institutuko zuzendaria. | TXOMIN MADINA

'Agintzea ez zait askorik gustatzen, baina ez zait zaila egiten'

1. Txirri, Mirri eta Txiribitonon Tortolikara igotzeko pribilegioa izan zenuen... Nolakoa bidaia izan zen? Bidaia oso polita; urte oso politikak izan ziren, telebistaren hastapenak... Oroitzapen onak ditut. Gainera, eurak ganberro hutsak ziren, pertsona maitagarriak.

2. Ordutik hona izandako ibilbideari erreparatu... Izan duzu inoiz aspertzeko aukerarik?

Ez zait gustatzen aspertzea. Jakin-minak beti bultzatzen zaitu beste zerbait egin edo ikastera... Burua azkarregi joaten zait eta hurrengo kontuan pentsatzen hasten naiz.

3. Zein izan da gidoiak aginduta bota duzun esaldi xebleena?

Esaldi xebleena ez dut gogoratzeko; egoera xebleena bai. Behin telebistan elkarrizketa oso bat egin zidaten pentsatuz Elena Irueta nintzela. Lotsa ematen zidan Elena ez nintzela esan eta elkarrizketatzailea nabarmen uzteak!

4. Eszena erromantiko bat duzu eta zuk aukeratzeko bikotekidea. Nor izango litzateke zorteduna?

Eszenaren arabera: erotikoa izan daiteke, sexuala, *naif*-a... Bakoi-terako bat aukeratu nuke.

5. Inoiz esan dizute benetako lan bat bilatzeko?

Bai, denetarik esan didate. Behin denda baten esan zidaten ea daukadan txilibitu-ahotsarekin nola egin nezakeen antzerkia!



LEXURI DOYAGE

LEHENDAKARIA BANINTZ

'Laster izango naiz...'

"Alde egingo nuke hemendik! Ez dakit, ez dut nire burua hori ikusten. Baina, egia esan, laster izango naiz: nire etxeko komunitatekoa, hain zuzen ere! Lehenengo erabakia etxea hobetzea izango da. Baina horrek ez du esan nahi orain artekoak gaizki egin duenik; harreman ona dugu denok".

6. Antzerki, zinema eta telebistan zuzendari izan zara; orain Etxepare institutuko. Agintzea gustuko?

Ez pentsa... Egia da ohituta nagoela jende artean lan egitera, baina faltan igartzen dut etxera joan eta idazten egotea, nire denbora hartu... Ez zait askorik gustatzen, baina ez zait zaila egiten.

7. Nola azaldu nire amandeari zer den Etxepare institutua?

Gustatzen zaizkion euskal liburuak, antzerkiak, musika... mundura eramateko da, munduak ere goza dezan.

8. Zein koloretakoa ikusten duzu euskararen etorkizuna?

Oso argitsua. Bere bidea du, eta bere bidea jarraituko du; jendearen esku dago hori. Gazteengan, baina, konpromiso falta nabaritzen dut sektore batzuetan. Institutuoen esku utzi dugu azken urteotan, baina intentzioa eta gogoia ez dira erosten.

9. Goi karguetan aktore asko dago?

Aktoreak alde guztietan daude, paper bat betetzen dute, baina badago jende oso garbia ere, laguntzeko prest dagoena.

10. Iaz Hernaniko txotx denboraldia ireki zenuen. Aurtengo uzta probatu duzu?

Ez, baina seguru nago sagardotegira bisita egingo dudala. Ditu merituengatik, gainera, asko poztu nau denboraldia ireki duena Maialen Mujanbio izateak.

MARKOS
BALENTZIAGA



Jaiotza
agiria

Zeziliok ikasturte amaieran hartuko du erretiroa.

Zezipio bizitzan zehar paper artean airosa moldatu izan den horietakoa da.

Lehen matrikula urrun hartatik, institutua, unibertsitatea, master bat eta tesi doktrala tarteko, hamaika agiri erabili du esku artean. Gerora, eskolan bertan, denetarik izana da: idazkari, ikasketaburu, zuzendari eta, oro har, Zezipio, non katramila, han perrexila!

Bitan ere ezkondua da bizitzak uste eztao partileku eta bihurtu baititu; eta, ordaindu, berriz, txintxo-txintxo ordaindu ditu udal-, foru-, katastro- eta bideko radarzerga guzti-guztiak! Soldadutzarekikoak ere sumiso-sumiso bete zituen eta epaitegira behin, behintzat, joana da, lekuko moduan. Epaiketari zehar Zezipio bera Zezipio dela argi asko utzi zion juezari, bai horixe!

Orain erretiroa hartzea doa; karpeta bat gertu du agiritz betetzeko. Eta hauxe da Administrazioak lehen-lehenik jakin nahi izan duena: Zezipio inoiz jaio ote da? Administrazioa jaiotza-agiriaren eske du Zezipio gureak!

Zezipio txorimaloren baten abatar dela uste izan ote du Administrazioak orain arte?

PREST

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ORDIZIA OTSAILAK 3 osteguna, 17:30

ARRASATE OTSAILAK 5 larunbata, 10:30

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORIATZA OTSAILAK 3 osteguna, 18:00

ARETO
NAGUSIAN
Etorri aurretik
izena eman!